



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko uztailaren 20a

73. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak 2008an eginiko jarduerari buruzko urteko txostena (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak 2008an eginiko jarduerari buruzko urteko txostena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren lehendakariak idazki bat aurkeztu du, zeinaren bidez jakinarazi baitu aipatu kontseiluak 2008an eginiko jarduerari buruzko urteko txostena onetsi duela eta eskatu baitu dagokion batzordean aurkez dadila. Idazki hori ikusita, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 206.1 artikulurekin bat, ondokoa ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak 2008an eginiko jarduerari buruzko urteko txostena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Xedatzea txostena Ekonomia eta Ogasun Batzordean aurkez dadin.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak 2008an eginiko jarduerari buruzko urteko txostena

AURKIBIDEA

I. ZATIA. JARDUEREN MEMORIA (4. or.).

1. Nafarroan ikus-entzunezkoen araudia betetzen dela zaintzea (7. or.).

1.1. Ikus-entzunezko operadoreek araudia betetzea (7. or.).

1.2. CoANen jarduerak Nafarroako irrati- eta telebista-operadoreek emandako edukien jarraipenaren inguruan (9. or.).

1.3. Publizitate instituzionalaren jarraipena, eta Nafarroako Administrazio Publikoen eta

ikus-entzunezko komunikabideen arteko akordioena (10. or.).

2. Ikus-entzunezko komunikabideen erabiltzaileen eskubideak babestea, eta batik bat haur eta nerabeena (13. or.).

2.1. CoAN eta adingabeen babesia (13. or.).

2.2. Ikus-entzuleen Defentsarako Bulegoa (ODA) (15. or.).

3. Nafarroako ikus-entzunezko komunikabideetan aniztasuna babestea (20. or.).

3.1. Administrazioak eskatutako txostenak (20. or.).

3.2. Aldaketak Ikus-entzunezko Komunikabideen Titulartasun Erregistroan (20. or.).

3.3. Programazio-dukietan aniztasuna babesteko jarduerak (20. or.).

4. Nafarroako ikus-entzunezkoen sektorea bultzatzea (22. or.).

4.1. "Nafarroako Ikus-entzunezko Barometroa 2008" egitea (22. or.).

4.2. Nafarroako Lurreko Telebista Digitalari buruzko foroa (22. or.).

4.3. Txostenak eta azterketak (22. or.).

4.4. CoANen eta erakunde arautzaileen zein askotariko beste erakunde batzuen arteko lankidetzaharremanak sendotzeko jarduerak (23. or.).

5. Ikus-entzunezko operadoreek autoerregulazio-arauekiko konpromisoa har dezaten eta horiek ezar ditzaten sustatzea (26. or.).

5.1. Gomendioak taxutzea (26. or.).

5.2. Gaia dela-eta gomendioei jarraiki landu beharreko albisteen informazio-trataeraren azterketa (27. or.).

- 5.3. Estatu mailako autoerregulazio-kodearen jarraipenerako batzorde mistora bidalitako kexak (27. or.).
- 5.4. Interneteko Kalitate Agentzia (IQUA) (28. or.).
- 6. Komunikazio-politika bat garatzea Kontseiluaren irudi publikoa indartzeko, herritarren zerbitzura dagoen elkarte bitartekari gisa (29. or.).
 - 6.1. Komunikazioaren kudeaketa (29. or.).
 - 6.2. Agerraldiak, ponentzia instituzionalak eta jardunaldi eta ekitaldietan parte hartzea eta horietara bertaratzea (30. or.).
 - 6.3. CoANek antolatutako beste ekitaldi batzuk (30. or.).
 - 6.4. www.consejoaudiovisualdenavarra.es web-gunearen funtzionamendua (31. or.).
- II. ZATIA. ALDERDI OROKORRAK (33. or.).**
 - 7. CoANen antolaketa (33. or.).
 - 7.1. CoANen osaera (33. or.).
 - 7.2. CoANen egoitza (34. or.).
 - 7.3. CoANen pertsonal organikoa eta langileak (34. or.).
 - 7.4. CoANen aurrekontua (35. or.).
 - 7.5. CoANen ondasun eta eskubideen inbentarioa (37. or.).
 - 8. 2006-2008 Plan Estrategikoa (38. or.).
 - 8.1. 2006-2008 aldirako helburuak (38. or.).
 - 8.2. 2008ko Kudeaketa Plana (38. or.).
 - 8.3. 2009-2011 Plan Estrategikoa: 2009rako jarduerak (38. or.).
- III. ZATIA. IKUS-ENTZUNEZKOEN SEKTOREAREN EGOERA (40. or.).**
 - 9. Telebistaren egoera Nafarroan (42. or.).
 - 9.1. Sarrera (42. or.).
 - 9.2. Telebistaren sektorearen azterketa Nafarroan (43. or.).
 - 9.3. Arau-esparru berriari buruzko aurreikuspenak (52. or.).
 - 10. Irratiaren egoera Nafarroan (53. or.).
 - 10.1. Sarrera (53. or.).
 - 10.2. Irratigintzaren azterketa Nafarroan (53. or.).
 - 10.3. Arau-esparru berriari buruzko aurreikuspenak (63. or.).

I. ZATIA:
JARDUEREN MEMORIA

2008. urtean, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak (aurrerantzean, CoAN), Hiru Urteko Plan Estrategikoan (2006-2008) zehaztutako helburuak erdietsi zituen; hartara, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako

Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legearen 26. artikuluan biltzen diren eginbeharrak bete ditu Kontseiluak.

CoANen 2008ko jarduera-adierazle nagusiak argi eta garbi aurkezte aldera, jarraian doan taula paratu dugu:

Ikus-entzunezko operadoreek dagokien araudia beteko dutela zaintzea	
Foru Komunitatean titulartasuna duten <u>telebisten</u> programazioaren jarraipena (eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan)	36
<ul style="list-style-type: none"> • Aldizkako 36 txosten kuantitatibo edukien jarraipenari buruz 	
Titulartasuna duten <u>irratien</u> programazioaren jarraipena, grabazioak eginda eta operadoreei grabazioak eskatuta	19
<ul style="list-style-type: none"> • 19 txosten edukien jarraipenari buruz 	
<u>Programazio-edukien</u> alderdi jakinei buruzko txostenak	8
<ul style="list-style-type: none"> • 3 azterketa eskualdeko telebistetan emandako Nafarroako lanen kopuruari buruz • 2 azterketa eskualdeko telebistetan emandako programazio-generoei buruz • Txosten bat Eskualdeko operadoreen programazio-eskaintzetako edukien deskripzio eta katalogazioari buruz, generoaren arabera • Azterketa bat eskualdeko irratietako informazio-zerbitzu nagusiei buruz • Txosten bat telenobelek programazioetan duten lekuari buruz • Txosten bat telesail jakin bati buruz 	
<u>Publizitate-edukien</u> alderdi jakinei buruzko txostenak	4
<ul style="list-style-type: none"> • Txostena operadoreen informazio-programetan publizitate-tarteak txertatzeari buruz • Txostena operadore baten informazio-programetan babestutako tartek txertatzeari buruz • Txostena eskualdeko operadoreen telebista-saioretan publizitate-gaininpresioak txertatzeari buruz • Txostena publizitate politikoa interpretatzeko irizpideei buruz 	
<u>Beste txosten batzuk</u>	2
<ul style="list-style-type: none"> • 2 txosten CoANek eta eskualdeko telebista-operadoreek adostutako 'Betebeharrak betetzeko egutegia' gordetzeari buruz 	
Erakundeen publizitatearen jarraipena eta kontrola, eta <u>administrazio publikoek</u> ikus-entzunezko hedabideekin sinatutako akordioa	3
<ul style="list-style-type: none"> • Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionalaren kontrola kopuruari dagokionez • Txostena eta gomendioak ikus-entzunezko produkzioa sustatzeko laguntzen sistema arautuari buruz 	
<u>Jakinarazpenak</u> operadoreei	70
<u>Zehatzeko ahalmena</u> gauzatzeko ekintzak	9
<ul style="list-style-type: none"> • 0 zehapen-espeditente • 6 eskaera • Aurre-informazioko 3 aldi 	
<u>Bilerak</u> operadoreekin	9

Ikus-entzunezko komunikabideen erabiltzaileen eskubideak babestea	
Adingabeen eskubide eta betebeharrei buruzko <u>txostenak eta azterketak</u>	3
<ul style="list-style-type: none"> • Azterketa Ikastetxeetako ikasleek irakasleen argazkiak hartu eta hedatzeak izan ditzakeen ondorio juridikoei buruz • Azterketa "call tv" deitutako programek Nafarroako operadoreen programazioan duten lekuari buruz • Txostena telebista-operadoreek programei ezarritako kalifikazio-adierazpenaren inguruko hainbat alderdiri buruz 	
<u>Prestakuntza-tailerrak</u> "Familia eta ikus-entzunezko pantailak" kanpainan	36
"Teknologia berrien eragina familietan" <u>jardunaldiak</u> (Iruña eta Tuteran)	2
<u>Ikus-entzuleen Defentsarako Bulegoan</u> aurkeztutako erreklamazioak	96
Nafarroako ikus-entzunezko komunikabideetan aniztasuna babestea	
Ikus-entzunezko komunikabideetan aniztasuna babesteko <u>jarduerak</u>	3
<ul style="list-style-type: none"> • 2 ikerketa eskualdeko telebista-operadoreen barne-aniztasunari buruz, informazio-programetan aurkeztutako albisteen edukiari erreparatuz • Proposamena eskualdeko operadoreek euskarazko edukiak eskaintzearen alde 	
Administrazioak eskatutako <u>txostenak</u>	4
<ul style="list-style-type: none"> • Txosten bat xurgatze- eta transferentzia-baimenaren eskaerari buruz • Txosten bat baimena berritzeari buruz • 2 txosten ustiapenerako lagapenei buruz 	
Ikus-entzunezko Komunikabideen <u>Titulartasun Erregistroa</u> (eguneratzeak)	2
Ikus-entzunezko operadoreek autoerregulazio-arauekiko konpromisoa har dezaten eta horiek ezar ditzaten sustatzea	
<u>Gomendioak</u> ematea	3
<ul style="list-style-type: none"> • Publizitate konparatiboan oinarritutako autopromozio-kanpainei buruz • Beste telebista-programa batzuetako edo web orrietako eszenak erakusten dituzten <i>zapping</i> eta denbora-pasako programei buruz • Babes bereziko ordutegian telenobelak emateari buruz 	
<u>Analisiak</u> egitea gaurkotasun-albisteak jorratzeko moduari buruz	2
<ul style="list-style-type: none"> • Txostena Nafarroako telebista-operadoreen informazio-programetan Mutiloagoitin gertatutakoak izandako trataerari buruz • Txostena eskualdeko telebista-operadoreen informazio-programetan Arrosadia auzoan gertatutakoak izandako trataerari buruz 	
Edukiei buruzko <u>erreklamazioak izapidetzea</u> estatu mailako instantzia eta erakundeetan	9
Partaidetza <u>Interneteko Kalitate Agentzian</u> (Zuzendaritza Batzordearen bilerak)	5

Nafarroako ikus-entzunezkoen sektorea sendotzearen alde lan egitea	
"Nafarroako Ikus-entzunezkoen Barometroa 2008" egitea (1.190 inkesta)	1
Ikus-entzunezkoen sektorearen <u>egoerari buruzko txostenak</u> <ul style="list-style-type: none"> • 2007ko egoera (2007ko Urteko Txostenean jasoa) • Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren txostena irratigintzaren egoerari buruz Foru Komunitatean • Azterketa irabazi asmorik gabeko irrati kulturalen egoerari buruz 	3
<u>Berariazko txostenak</u> <ul style="list-style-type: none"> • Txostena tokiko LTD emakidei buruz, Tuter, Lizarra, Tafalla eta Zangozako mugapeetan • Txostena Lurreko Telebista Digitalak eskaintzen dituen zerbitzu gehigarriei buruz • Gomendioak 2008. urteko ikus-entzunezko produkzioarako laguntzen deialdia egiteko 	3
<u>Nafarroako Lurreko Telebista Digitalaren Foroaren bilerak</u>	1
Beste ekintza eta jarduera-adierazle batzuk	
<u>Arau-proposamenak</u> <ul style="list-style-type: none"> • Txosten-proposamena ikus-entzunezko edukiak seinalatu eta kalifikatzeko sistemari buruz • Ikus-entzunezkoen Lege Orokorra • Ikus-entzunezko Komunikabideen Estatuko Batzordearen sorrera 	3
<u>CoANen argitalpenak</u> <ul style="list-style-type: none"> • "Belaunaldi Interaktiboa komunikazio-eszenatoki berri baten aurrean. Gizarte- eta hezkuntza-erronkak" • 2007ko Urteko Txostenaren argitalpena 	2
<u>Beste erregulazio-agintaritza batzuekiko harremanak</u> <ul style="list-style-type: none"> • Ikus-entzunezkoen Kontseiluen Espainiako Plataformaren 2. bilera • Espainia eta Portugaleko agintarien bilera • Entitate Arautzaileen Europako Plataformaren (EPRA) 2 bilera 	4
<u>Lankidetzak-hitzarmenak erakunde hauekin:</u> <ul style="list-style-type: none"> • Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaiak • UNED (Nafarroa) • Telekomunikazio Ingeniariei Nafarroako Elkarteak 	3
<u>CoANek antolatutako beste ekitaldi batzuk</u> <ul style="list-style-type: none"> • "Lenguaje publicitario y discursos solidarios" liburuaren aurkezpena • "Libertad de información y proceso penal. Los límites" liburuaren aurkezpena 	2
<u>Ikastaro, bisita eta jardunaldietara joan eta parte hartzea</u>	8
<u>Agerraldiak Nafarroako Parlamentuaren aurrean</u>	2
<u>CoANek egindako bilkurak</u>	23

1. KAPITULUA

NAFARROAN IKUS-ENTZUNEZKOEN LEGEDIA BETETZEN DELA ZAINTEA

18/2001 Foru Legeak, Nafarroako ikus-entzunezkoen jardura arautzen duena eta Nafarroako ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuena, 20.3 artikuluan ezarritakoari jarraiki, CoAN "Nafarroako ikus-entzunezkoen sektorean ekoizpena, programazioa eta publizitatea erregulatzen duten legeak eta beste edozein arau betetzen direla zaintzeko eskumena duen organoa da."

Eginkizun hori betetze aldera, aginpidean dituen telebista- eta irrati-operadoreen programazio- eta publizitate-dukien egunez eguneko jarraipena egiten du CoANek.

1.1. IKUS-ENTZUNEZKO OPERADOREEK LEGEDIA BETETZEA

Nafarroan jarduteko baimena duten eskualdeko telebista-operadoreek emandako dukien jarraipen sistematikoa egiten du CoANek, programazioaren urteko 365 egunetan eguneko 24 orduak grabatuz. Bestalde, Nafarroan baimena duten irrati-programazioaren ausazko kontrolak egiten ditu. Trataera ezberdina da, hain zuzen ere, telebistarako araudia irratiarako baino garatuago dagoelako, telebista baino irrati gehiago dagoelako eta telebistako programazioak irratiak baino eragin handiagoa duelako gizartean eta, bereziki, adingabeengan.

1.1.1. TELEBISTA-OPERADOREEK LEGEDIA BETETZEA

Hilean behin, telebista-operadoreek egindako arau-hausteei buruzko txostenak aurkezten ditu CoANek; txostenok operadoreei igortzen zaizkie, horiek kontuan hartu eta hautemandako irregularitasunak zuzen ditzaten. Arau-hausteen urteko bilakaera orokorrari erreparatuta, ondorio hauek atera daitezke:

- **'Adingabeen babesa'** kategoriari dagokion arau-hausterik apenas izan den: urte osoan eta hiru operadoreak barne hartuta, 2 baino ez dira izan. 2007an 6 izan ziren; horrez gain, 18 urtetik gorakoentzako programen 13 aurrerapen eman ziren adingabeen ordutegi babestuan.

- **'Publizitate eta telesalmentarako denbora'** kategorian, arau-haustek nabarmen murriztu dira.

- Lehen **telesalmentako 3 ordu baino gehiago** izaten ziren, eta denbora hori asko murriztu da 2008an, joan den urtearekiko.


Nafarroako lanen kopuruari buruzko azterketa

18/2001 Foru Legeak jasotzen duenez, eskualdeko operadoreek Nafarroako lanen gutxieneko kopuru bat eman beharra dute, eta jarraipena egin dugu 2008an betebeharrak hori zein neurritan bete den egiaztatzeko.

Urteko batez bestekoa xedatzeko erabili diren datuak 2008ko lehenengo eta laugarren hiruhilekoetan zehar egindako bi azterketatik atera dira. Ikerlan horietan, gaur egun Nafarroako Foru Komunitatean lurreko telebista digitaleko zerbitzu publikoa eskaintzen duten emakidadunek eskaini dituzten dukiak aztertu dira, bai erkidego mailakoek –Canal 4 eta Canal 6– bai tokikoek –Iruñeko mugapean, Popular TV Navarra–, eta Nafarroan ekoiztutako lanen bolumenari erreparatu zaio.

Azterketa egiteko orduan, Nafarroako lan gisa hartu dira Nafarroako emisio guzti-guztiak, informazio-programak, kirol-emankizunak eta lehiaketak barne; hala ere, kanpoan utzi da goizaldeko ordu biak eta seiak arteko tartea.

Jarraian doan taulan, grafikoki jaso da **Nafarroako Foru Komunitatean diharduten kateek 2008an zehar eskainitako Nafarroako lanen urteko batez besteko portzentajea:**



Canal 4 Navarra eskualdeko operadoreak gutxieneko %10a gainditu du (zehazki, %12,29); horrenbestez, 2007ko datuak hobetu ditu, orduan %9,53ko lekua baitzuten Nafarroako lanek katearen programazioan.

Canal 6 Navarra operadorearen kasuan, datu aski positiboa da Nafarroako lanek pantailan hartzen duten denbora (%38); hain zuzen, bertako produkzio gehien programatzen duen nafar telebista da (irratia barne harturik ere). 2007ko datuekin alderatuta ere hobera egin du, orduan portzentajea %35,39koa baitzen.

Azkenik, tokiko Popular TV Navarra operadoreak joera positiboa ageri du; izan ere, 2008ko laugarren hiruhilekoan nabarmen igo da Nafarroako lanen presentzia lehen hiruhilekoarekin alderatuta, urteko kuota %21,2ra jasoaraziz. 2007ko datuekin alderatuta, portzentajeak gora egin du, orduan %14,45ekoa baitzen.

Programen kalifikazio-adierazpenari buruzko txostena

CoANen zerbitzu teknikoek maiatzean egindako txostenaren helburua izan zen Nafarroako lurralde-esparruan zerbitzua eskaintzeko baimena duten telebista-operadoreek erabilitako **kalifikazio- eta seinaleztapen-sistemen jarraipena** hobetzea, **ikus-entzuleen babes** egokia bermatze aldera.

Txostena egitea egokitzen jo zen une horretan **inkongruentzia jakin batzuk** hauteman zirelako eskualdeko kateen programazio-eskaintzako programaren baten kalifikazio-adierazpenean, alegia, operadoreak berak bere informazio-iturri ofizialen bidez emandako kalifikazioan (esaterako, webguneetan).

Publizitatearen gaineko araudiari buruzko txostenak

2008. urtean zehar, CoANek berariazko jarraipena egin du **informazio-programetan publizitate-tarteak eta babesleentzako tarteak txertatzeari dagokionez** operadoreek araudia betetzen duten egiaztatzeko; izan ere, 2007an errekerimendua jaso zuten hiru operadoreek, alderdi horietakoren bat ez betetzeagatik.

Lehenengo txostenean egiaztatu zen araudia zorrotz bete zutela, informazio-programetan publizitate-tarteak txertatzeari dagokionez. Alabaina, azterketa berean bestelako irregulartasun batzuk hauteman ziren publizitatearen gaineko araudia betetzeko orduan, eta eskualdeko operadore baten kasuan aurre-informazioko aldia abiarazi zen (1.2.1 azpiatala).

Urte honetan berean beste txosten bat egin da **eskualdeko operadoreen telebista-saioetan publizitate-gaininpresioen txertaketa aztertzeko**.

Azterketa horretan, aztergaia –gaininpresioak publizitatea egiteko modu gisa– kontzeptualki zehazteaz gain, Foru Komunitatean telebista-zerbitzua eskaintzeko baimena duten operadoreen adibideak ematen dira, eta horiek publizitate edo autopromozio gisa sailkatzen. Txosten berean ondorioztatu da eskualdeko operadoreek indarreko legedian jasotako aurreikuspenak betetzen dituztela, publizitate-mezuak txertatzeari dagokionez.

1.1.2. IRRATI-OPERADOREEK LEGEDIA BETETZEA

CoANek, esleituak dituen eginkizunak betetz, gaur egun Nafarroan baimena duten eta martxan dauden 19 operadoreen (Zangozako 92.6 Mhz irratia ez da oraindik hasi) irratia-erabilpena, programa-

mazioaren eta publizitatearen jarraipena egin du 2008an zehar.

Hala, Nafarroako irratzi-emankizunen aldizkako eta etengabeko jarraipena egite aldera, hileroko txostenak egin dira eta **sei hileko bi azterketatan bildu**, CoANeko zerbitzu teknikoek ondutako "Nafarroan irratzi-emankizunen edukiak kontrolatzeko protokoloa"-k ezarritako irizpideei jarraiki.

Jarraipenetan ez da arau-hausterik hauteman Nafarroan irratsaioek eman ditzaketen programazio-erakundeentzako dagokienez, uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeak, Nafarroako ikus-entzunezkoen jardura arautzen duena eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuena, 3. artikulua ezarritakoaren argitan.

1.2. COAN-en JARDUERAK NAFARROAKO IRRATI- ETA TELEBISTA-OPERADOREEK EMANDAKO EDUKIEN JARRAIPENAREN INGURUAN

1.2.1. ZEHAPEN-ESPEDIENTEAK

18/2001 Foru Legearen 18.2 artikulua ahalduz duen moduan, zehapen-espeditente bat abiarazi aurretik aurre-informazioko aldi bat zabaltea agindu daiteke gertaerak argitze aldera, gertatutakoa zehatz-mehatz jakiteko eta zehapen-prozedurari ekitea beharrezkoa den erabakitzeke.

2008an zehar, CoANeko zerbitzu juridikoek aurre-informazioko hiru aldi zabaltea, eta ondoren ixtea, agindu dute.

- CoANen azaroaren 13ko 98 bis/2008 Erabakiaren bidez, erkidegoko operadore bati aurre-informazioko aldi bat zabaltea agindu zen, **publizitate-mugak zirela-eta**; izan ere, 18/2001 Foru Legearen 12. artikuluan ezarritako mugak urratu zirela egiaztatu zen.

Operadoreei urrian egin zitzaizkien jarraipenean hauteman zen urraketa hori. Programazioa aztertu eta ikustean, egiaztatu zen operadoreak behin baino gehiagotan gainditu zuela ordubeteko bloke-erakunde ezarrita dagoen 12 minutuko muga. Espeditentea izapidetu ondoren eta egindako jarduketaren argitan, aurre-informazioko aldia bertan behera utzi zen.

- Otsailaren 21ean, CoANen 17/2008 Erabakiari jarraiki, onartu zen **eskualdeko operadore bati aurre-informazioko aldi bat zabaltea, informazio-programetan baimendu gabeko publizitate-tarteak emateagatik**.

CoANen zerbitzu teknikoek egiaztatu zuten eguneroko albistegietan babesleen publizitate-jardura baimendu gabek eman zirela, uztailaren

5eko 18/2001 Foru Legearen 14.3 artikuluan ezarritakoa urratuz. CoANek beharrezko frogaketak egin ondoren, egiaztatu zen 2008ko martxoaren 31tik operadoreak aipatu tarte babestuok emateari utzi ziola eguneroko albistegietan. Horrenbestez, CoANen 44/2008 Erabakiari jarraiki, operadoreari zabalduko aurre-informazioko aldia itxi zen.

- Bestalde, 2008ko irailaren 25ean, **osoko bilkuran hartutako 79/2008 Erabakiari jarraiki, aurre-informazioko aldi bat zabaldu zitzaion eskualdeko operadore bati, babestutako ordu-tegian "call tv" saioak emateagatik**.

Operadoreak egindako alegazioen eta hartutako konpromisoen argitan, azaroaren 27ko 103/2008 Erabakiaren bidez bertan behera utzi zen aurre-informazioko aldia.

1.2.2. ERREKERIMENDUAK

Ikus-entzunezkoen legedia betetzen dela kontrolatzeko duen eskumena baliatuz, proposamenak edo gomendioak egiteko aginpidea du CoANek, eta baita **ohartaraztekoa** ere: hala, 2008an **sei errekerimendu** egin zaizkie Nafarroan emititzeko baimena duten emakidadunei, hainbat arrazoiengatik.

- Otsailaren 7ko 8/2008 Erabakiaren bidez, operadore bati ohartarazi zitzaion uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legearen 12.3 artikuluan xedatutakoa bete zezan. Izan ere, edukien jarraipenari buruzko txosten baten arabera, operadoreak hileko egun guztietan hiru ordu baino gehiagoz ematen zituen **telesalmentako programak**, eta hogeita lau alditan sei ordu edo gehiagoz.

- Apirilaren 8an, 36/2008 Erabakiaren bidez, operadore bati ohartarazi zitzaion uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legearen 14.3 artikuluan ezarritakoa bete zezan, gaurkotasuneko gaiei buruzko eguneroko informazio-programetan **babesleen publizitate-ekintza baimendu gabek** hauteman zirelako.

- Ekainaren 5ean, 51/2008 Erabakiaren bidez, operadore bati ohartarazi zitzaion indarreko legedia zorrotz bete zezan, **telebista-programak seinatu eta kalifikatzeko sistemai dagokienez**.

- Ikus-entzuleen Defentsarako Bulegoan aurkeztutako kexa baten ondorioz, 114/2008 Erabakia eman zen, eskualdeko telebista bati ohartaraziz bere webgunean berriaz adieraz zezan programak errepikatuak direla, hala direnean.

- CoANen zerbitzu teknikoek egindako azterketa batean egiaztatu zen **"call tv" programak** ugaritzen ari zirela zenbait telebista-operadoreen programazio-eskaintzetan, eta programa horiek

adingabeentzat kaltegarriak gerta daitezkeela. Irailaren 25eko 80/2008 Erabakiaren bidez, operadore bati ohartarazi zitzaion aipatu programak babestutako ordutegitik ken zitzan, gure iritziz adingabeen garapen mental zein moralari begira kaltegarriak izan daitezkeelako.

- Berriro ere **“call tv” programak** tarteko, 103/2008 Erabakiaren bidez CoANek erabaki zuen eskualdeko telebista baten aurkako aurre-informazio aldia ixtea, telebistari betebeharrak eza-ri ondoren: “call tv” programak hasi aurretik, eta bere gain hartuko konpromisoa gauzatu, lehiaketa horien funtzionamendua eta ikus-entzulearentzat horietan parte hartzeak duen kostua argi eta zehatz-mehatz jakinaraztea; grafikoki ohartaraztea dagokion saioa “call tv” lehiaketa bat dela, eta kalifikazio morala “13 urtetik beherako adingabeentzat desgokia” dela; eta, azkenik, programazioan “call tv” programetarako denbora murrizteko behar diren neurriak hartzea, emakida esleitzeko lehiaketan telebistak aurkeztu zuen eskaintza teknikoan onartutako konpromisoak betez.

1.2.3. GOMENDIOAK

Bere eskumenen baitan, CoANek proposamenak edo gomendioak egiteko aginpidea du. Ekin-tza horiekin, eskualdeko operadoreak hobetu nahi ditu Kontseiluak, kanpoko neurri zuzentzaileak erabili gabe eta baterako erregulazioa bultzatuz.

2008an, jarraian doazen **gomendioak** egin dira (horien edukia Urteko Txosten honen 5.1 atalean ikus daiteke):

- Publizitate konparatiboan oinarritutako autopromozio-kanpainei buruzko gomendioak.
- Beste telebista-programa batzuetako edo webguneetako eszenak erakusten dituzten zapping eta denbora-pasako programei buruzko gomendioak.
- Babes bereziko ordutegian telenobelak emateari buruzko gomendioak.

1.2.4. COANek ETA ESQUALDEKO TELEBISTA-OPERADOREEK ADOSTUTAKO ‘BETEBEHARRAK BETETZEKO EGUTEGIA’ GORDETZEARI BURUZKO TXOSTENAK

2008an bi txosten egin dira **‘Betebeharrak betetzeko egutegia’** zein neurritan gorde den aztertzeke. Egutegia 2007an adostu zuten CoANek eta eskualdeko telebistek, azken horiek zorrotzago bete dezaten araudi aplikagarria, zehazki honakoa: estatu- eta foru-legedia, lizentziak esleitzeko lehiaketetako baldintzak, eta operadoreek

lizitazio horietan egindako proposamenetako batzuk.

Lehenengo txostenak, 2008ko ekainaren 5eko osoko bilkuran onartua, urtarrilaren 1ean indarrean sartutako arauen betetze-maila aztertu zuen; eta azaroaren 13an onartutakoak, berriz, aztertu zen operadoreek urriaren 1erako hartu zituzten konpromisoak bete ahal izateko neurriak hartu ote zituzten.

Bi txostenetan, operadore bakoitzaren betebeharrak eta konpromisoak banan-banan aztertu ziren, alor hauei erreparatuz: betebeharrak, 18/2001 Foru Legeak ezarritako kuotak, publizitatea, telesalmenta eta kalifikazio-adierazpena.

1.3. PUBLIZITATEAREN INSTITUZIONALAREN JARRAIPENA, ETA NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ETA IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKABIDEEN ARTEKO AKORDIOENA

Ikus-entzunezkoei buruzko araudia betetzen dela bermatzeaz arduratzen den organoa da CoAN; eta haren eginkizunetako bat da **administrazioaren eta ikus-entzunezko komunikabideen arteko harremana egokia dela zaintzea**.

Hala, uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legearen 26.1.e. artikulua adierazten duenez, CoANek “Nafarroako administrazio publikoek ikus-entzunezko komunikabideekin izenpeturiko akordioen berri izanen du, komunikabide horiek, zuzenean edo zeharka, dirulaguntza publikoak jaso edo titularitate edo jabetza publikoko ondasun edo zerbitzuak erabiltzen dituztenean”. Era berean, CoANen eskumenak dira “Nafarroako Administrazio Publikoen eta komunikabideen arteko lankidetzak-hitzar-menak kontrolatu eta haien jarraipena egitea” (26.1.f. artikulua) eta “komunikabideetako publizitate instituzionalaren kopuruak kontrolatu eta haien jarraipena egitea” (26.1.g. artikulua).

1.3.1. NAFARROAKO GOBERNUAREN PUBLIZITATE INSTITUZIONALAREN KONTROLA KOPURUARI DAGOKIONEZ

2009ko martxoaren 5ean, Nafarroako Gobernuak Erakundeekiko Harremanetarako eta Eledunaren Departamentuko Komunikaziorako Zuzendaritza Nagusiak bidalitako txosten bat jaso zuen CoANek; txostenean, **Foru Administrazioak 2008an egindako publizitate instituzionalaren kudeaketaren berri ematen zen**. Emandako datuak aztertu ondoren, ondorio hauek atera ditugu:

- **Azaroaren 11ko 1/2003 Foru Aginduan ezarritakoa bete zuen Nafarroako Gobernuak**, Foru Komunitateko Administrazioak publizitate instituzi-

onala kontratatzeari buruz xedatutako jarraibideei zegokienez.

- **Publizitatean egindako inbertsioa banatze-ko orduan, komunikabideen hedapena, audientzia eta barneratze-maila aintzat hartu ziren, eraginkortasuna eta efizientzia irizpide harturik.**

- **Ikus-entzunezkoen sektoreari dagokionez, kopuru absolutuetan telebistan egindako inbertsioa da nabarmentzeko modukoa;** izan ere, 2007. urtearekiko %31,7 igo zen, Kultura eta Turismo Departamentuak sanferminetarako berari-az egin zuen kanpainaren ondorioz. Banaketari erreparatuz gero, publizitaterik gehiena eduki orokorreko estatu mailako telebistan metatzen da; hain zuzen ere, telebistan inbertitutakoaren %80tik gora.

- **Bestalde, irratiko publizitate-tarteetan egindako inbertsioa eduki orokorreko hiru irradi nagusietara bideratu zen batik bat** (SER, Onda Cero eta COPE), guztizko inbertsioaren %80; gainerakoa, 2.000 eurotik beherako inbertsioez, irratiformulako kate handietan (Los 40 Principales, Cadena 100, Kiss FM eta Europa FM) eta tokiko irratietan jarri zen.

1.3.2. IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKABIDEETAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO LAGUNTZAK

2009ko martxoaren 27an, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailearen idatzi bat jaso zuen CoaNek; idatzian, erakunde horrek Nafarroako ikus-entzunezko komunikabideei eskaini dizkien laguntzak xehatzen ziren.

1.3.3. IKUS-ENTZUNEZKO PRODUKZIOA SUSTATZEKO LAGUNTZEN SISTEMA ARAUTUARI BURUZKO TXOSTENA ETA GOMENDIOAK

2006az geroztik Nafarroako Gobernuak eskualdeko telebista-operadoreei begira **ikus-entzunezko produkzioarako antolatu dituen deialdien eta eman dituen laguntzen** azterketa bat egin zuten CoANen zerbitzu teknikoek. Azterketa hori egin ondoren, CoANek beharrezkoa jo zuen ikus-entzunezko produkzioarako laguntzak emateko sistemari buruz hausnarketarako tarte bat zabaltzea. Izan ere, 2006ko laguntza-deialdiak aztertu ondoren, erakunde horrek zenbait gomendio egin zituen 2007ko ekainaren 11n, oharturik ez zela lortu ezarritako helburu guztiak betetzea; hain zuzen ere, aurreko deialdian hautemandako zenbait arazo berragertu ziren.

Horrenbestez, CoANek **bost gomendio zehatz** proposatu zituen, eskualdeko programazio-

ak hobetzeko eta Nafarroako ikus-entzunezkoen sektorea sustatzeko lagungarriak izanen zirelakoan, betiere telebistako zerbitzu publikoaren finantzaketari buruzko indarreko lege-xedapenak, eta bereziki Europar Batasunari buruzkoak, errespetatuz.

- **Berariaz haur- eta gazte-programazioa** txartzeko izanen den **proiektu-tipologia berri bat** sortzea. Izan ere, **kezagarria da ikustea apenas dagoela berariaz eta esplizituki haur eta gazteei zuzendutako proiekturik**, ez laguntza-deialdian eta ezta operadoreen programazio-eskaintzan ere.

- **Laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituen proiektu-tipologia bakoitzari zenbateko finko bat esleitzea**, edo, nolana ere, tipologia horietako bakoitzera bideratzea deialdian ezarriko den guztizko kopuruaren gutxieneko portzentaje bat. 2008ko deialdirako, kopuruak honela banatzea proposatu zen:

- A Tipologiari (“Foru Komunitatearentzat interesgarriak diren ekimenak zuzenean emateko proiektuak”): deialdiko guztizkoaren %20 gehienez.

- B Tipologiari (“Ikus-entzunezko produkzioak emateko proiektuak”): %40.

- C Tipologiari (“Ikus-entzunezko aurreproduzio edo produkzioak proiektuak, urtebeteko epean emitezeko konpromisoak”): %20.

- D Tipologiari, CoANek aurreko gomendioan proposatutakoa (“Berariaz haur eta gazteei zuzendutako ikus-entzunezko produkzioak emateko proiektuak”): %20.

- **Proiektu-tipologia bakoitzerako ebaluazio-irizpide ezberdinak ezartzea.** Zentzu horretan, honakoa proposatu zen:

- “Zuzeneko emankizuna” irizpidea A Tipologia-ri bakarrik aplikatzea.

- “Kalitate artistikoa” irizpidea berraztertu eta aldatzea, ebaluazioa neurgarriago izan dadin.

- Produkzio-prozesuan enpresa independente-ek parte hartzeko aukera aztertzea; enpresa horiek bestelako irizpidea eskainiko lukete, eta ebaluazio-sisteman pisua izanen lukete.

- **“Ikus-entzunezko produkzioak emateko proiektuak” tipologian proposatu zen 2008an magazine tankerako programei laguntzarik ez ematea**, 2007ko deialdian informazio-programei eman ez zitzaien bezala.

Horrela, operadoreak beste programazio-formula batzuk –berriagoak eta berritzaileagoak– bilatzera animatu nahi dira. Kontuan izan behar

da, gainera, magazine-a eskualdeko telebisten programazio-eskaintzan ongi errotutako formula dela.

Edonola ere, debateak eta elkarrizketak soilik eskainiko dituzten programak mantendu ahal izanen dira.

- Azkenik, proposatu zen, hurrengo urteetan deialdiekin jarraituz gero, **prozedura berraztertua** izan dadila, laguntzak emanen diren urtean operadoreek beren proposamenak aldez aurretik aurkeztu ahal izan ditzaten. Horrela, zenbait hilabete-ko aurrerapenaz, deialdietan ezarritako baldintzak ezagutu ahal izanen lituzkete operadoreek, eta beren programak irizpide garbi eta finkoiez prestatzeko aukera izanen lukete.

2009ko apirilaren 2an, Nafarroako Gobernuak Komunikaziorako Zuzendaritza Nagusiaren idatzi bat jaso zuen CoaNeK; idatzian xehaturik jaso ziren 2008an LTDko erkidegoko edo tokiko lizentzia zuten eskualdeko telebistek ikus-entzunezko

produktzioarako jaso zituzten laguntzen zenbatekoak. Datu horiek agerian uzten dute CoANek laguntza-sistema doitu eta programazioa zein ikus-entzunezkoen sektorea bera hobetze aldera proposatu dituen gomendioak –lehen aipatuak– ez direla aintzat hartuak izan.

1.3.4. PUBLIZITATE POLITIKOA INTERPRETATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO TXOSTENA

CoANen zerbitzu juridikoek landutako txosten honetan, **publizitate politikoa** zer den eta zer ez den xedatzen duten elementuak definitzen dira, eta, bestalde, publizitate-mota horren eta hauteskunde-propagandaren, publizitate komertzialaren eta publizitate instituzionalaren arteko aldeak finkatzen dira.

Publizitate-mota bat politikoa den ala ez xedatzeko, kontuan izan behar dira iragarkiaren igorle edo babeslea, helarazten den publizitate-mezua, hura igortzen den testuingurua eta iragarkiari darron kutsu politikoa nabarmena den edo ez.

2. KAPITULUA

IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKABIDEEN ERABILTZAILAEN ESKUBIDEAK BABESTU ETA SUSTATZEA, ETA BATIK BAT HAUR ETA NERABEENA

2001ean sortu zenetik, CoANen jarduketa-ildo nagusietako bat izan da ikus-entzunezko komunikabideen erabiltzailaen babestea, eta, batez ere, haurrak eta gazteak. Alor horretan, CoANen jardura ohikoenak dira, ikus-entzunezkoen legedia betetzen dela begiratzeaz gain (1. kapitulua), ikus-entzunezkoen eremuan adingabeei babes berezia eskaintzea eta Ikus-entzuleen Defentsarako Bulegoa kudeatzea.

2.1. COAN ETA ADINGABEEN BABESA

Hedabideek gehien kaltetu ditzaketan taldeak babestea da CoANen funtsezko eginkizunetako bat. Horregatik, **haur eta gazteei arreta berezia** eskaintzen die, eskualde mailako telebista-eman-kizunen jarraipen sistematikoa eginez eta txostenak prestatuz, gurasoak heziz, gaiari buruzko komunikazio-foroetan parte hartuz eta azterketak zein argitalpenak taxutuz.

2.1.1. ADINGABEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRI BURUZKO TXOSTENAK ETA AZTERKETAK

Erkidegoko eta tokiko operadoreek ematen dituzten programazio- eta publizitate-dukien etengabeko jarraipena eginda, Kontseiluko zerbitzu teknikoek **txostenak eta azterketak** lantzen dituzte adingabeentzat kaltegarriak izan daitezkeen alderdiak jorratuz edo kolektibo hori hobeto babesteko gauzatu beharreko jarduerak proposatuz.

Ikus-entzunezko edukiak markatu eta kalifikatzeko sistema homogeen bat paratzeko txosten-proposamena

CoANek, Foru Komunitatean ikus-entzunezkoen alorreko aginpidea izaki, idatzi bat igorri zion Gobernu Zentralari, estatu mailan ikus-entzunezko produktuak markatu eta kalifikatzeko sistema homogeen bat paratzea proposatuz. Proposamen hori egin da haurrak babesteko autoerregulazio-mekanismoak eta araudia laburrak eta lausoak direlako; aurrerapen teknologikoen garaiotan, baliabide horiek zaharkiturik daude eta ez dira eraginkorrak adingabeen gidari izan behar duten arduradunentzat.

“Call tv” programek Nafarroako operadoreen programazioan duten lekuari buruzko azterketa

Estatu mailako, eskualdeko eta tokiko eduki orokorreko telebistetan “call tv” programak (ikus-entzuleen deietan oinarritutako lehiaketak) ugari-

tzen ari direlarik, CoANek azterketa bat egin zuen, programa horiek ikus-entzuleen eskubideak urra ditzaten saihesteko har daitezkeen neurriak aztertze aldera, beharrezkoa izanez gero.

Ikerlan horretan, Nafarroako bi telebista-operadorek haurrentzako ordutegi babestuan eskaintzen zituzten tankera horretako bost lehiaketa aztertu ziren. Ondorio gisa, operadore bati aurre-informazio aldi bat zabaldu zitzaion (ikus 1.2.1 azpiatala, 3. puntua), eta beste bati errekerimendu bat bidali, lehiaketek adingabeen garapen fisiko, mental edo moralarentzat kaltegarriak izan zitezkeela iritzi zitzaiolako (ikus 1.2.2 azpiatala, 5. puntua). Era berean, exijitu zitzaion programa-mota hori ematean irizpide jakin batzuk bete zitzatela, eta ikus-entzuleek izan zezatela lehiaketen inguruko alderdi guztiei buruzko informazio osoa eskuratze-ko aukera.

Nafarroako Foru Komunitateko telebista-operadoreen emankizunetan telenobelek duten lekuari buruzko txostena

Azterketa horren xedea zen eskualdeko operadoreen emankizunetan telenobelek zuten lekua ezagutzea. Txosten horretan, generoaren definizioa eta ezaugarri nagusiak zehaztu ziren, erkidego mailako zein tokiko telebisten eskaintzan duen presentzia aztertzeaz gain. Analisiaren emaitzetatik ondorioztatu zen telenobelak kuantitatiboki ez zirela arazo bat, baina kualitatiboki izan zitezkeela; izan ere, horietako batzuk babes bereziko ordutegian ematen ziren, 4/2009 Foru Dekretuak, adingabeak telebistaren aurrean babesteko mekanismoen erabilera arautzen duena, ezarritakoaren arabera.

Une hartan arau-hausterik ez zegoenez, txostenean aurreikusi zen arren Foru Dekretu berria indarrean sartzean horrelakorik gerta zitezkeela, operadoreei iradokizun bat egitea erabaki zen, programa horiek emateko ordutegiaren inguruan. Horri buruzko beste gomendio batzuk ere egin ziren, Urteko Txosten honen 5.1.3 azpiatalean kontsulta daitezkeenak.

Ikastetxeetako ikasleek irakasleen argazkiak hartu eta hedatzeak izan ditzakeen ondorio juridikoei buruzko azterketa

Ikastetxeetako ikasleek irakasleen argazkiak hartu eta hedatzeak izan ditzakeen ondorio juridikoei buruzko azterketa egin zuen CoANek, ekintza horiek zuzenbide penalaren, zuzenbide zibilaren eta Datuak Babesteko Lege Organikoaren ikuspegiatik aztertuz. Azterketatik ondorioztatu zen adingabeak, argazkiak bertan ageri diren pertsonen baimenik gabe hartzen eta hedatzen baditu, Datu

Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoa larriki urratzen duela.

Argazkiak hartzeko eta erakutsi nahi ez diren jokabide edo irudiak zabaltzeko arriskua saihestearren, CoANek prebentzio-jarduketak gomendatu zituen, hezkuntzaren alorreko erakunde eta agintariak engaiatuz. Horregatik, Nafarroako Gobernu-ko Hezkuntza Departamentuari eta Nafarroako Eskola Kontseiluari proposatu zitzairen kontu horiek ikastetxeetan bizikidetzara arautzeko markoan txerta zitzatela.

2.1.2. "FAMILIA ETA IKUS-ENTZUNEZKO PANTAILAK" KANPAINA

2006an abiatu zen **gurasoak ikus-entzunezkoetan alfabetatzeko "Familia eta ikus-entzunezko pantailak" kanpainaren** hirugarren ekitaldia garatu zen 2008an zehar. CoANek eta Nafarroako Gobernu-ko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuaren Familia, Haurtzaro eta Kontsumoko Zuzendaritza Nagusiak sinatutako hitzarmenean jasotako lankidetzarekin baitan sartzen da jarduera hori (ikus 4.4.3 azpiatala).

DATU OROKORRAK	Familia, telebista eta beste pantaila batzuk	Familia eta Teknologia Berriak	Kop.
Egindako tailerrak	22	14	36
Parte-hartzaileak	334	193	527
Kokagunea		%	Kop.
Iruña eta eskualdea		%41,67	15
Gainerako eskualdeak		%58,33	21

2.1.3. "TEKNOLOGIA BERRIEN ERAGINA FAMILIETAN" JARDUNALDIAK

"Teknologia berrien eragina familietan" jardunaldiak antolatu zituzten CoANek eta Nafarroako Gobernu-ko Familia, Haurtzaro eta Kontsumoko Zuzendaritza Nagusiak, bi erakundeok sinatu zuten hitzarmenean jasotako lankidetzarekin baitan (4.4.3 azpiatala); jardunaldiak irailaren 22an eta 23an egin ziren Iruñean eta Tuteran, hurrenez hurren.

Iruñeko eta Madrilgo Polizia Judizialaren unitate teknikoak bi kidek, hurrenez hurren ikerketa teknologikoetan eta delitu telematikoen aurkako borrokan adituak, **Internetek adingabeentzat dituen arriskuak, mehatxuak eta aukerak** aztertu zituzten. Jardunaldietan gurasoen erantzukizun hezitzailea nabarmendu zen, eta adingabeak sareak dituen arriskuetatik gordetzeko jarraibide soil batzuk eskaini ziren.

Ekitaldi honetan, **bi tailer-mota** eskaini ziren. Lehenik eta behin, aurreko kanpainetan ere egin zena ("Familia, telebista eta beste pantaila batzuk" izenekoa) mantendu zen; tailer hori 6 eta 12 urte arteko haurren (Lehen Hezkuntza) gurasoei zuzendua zegoen. Materiala berrargitaratzeko beharra zegoenez, diseinua eta edukiak eguneratu ziren, pantaila berriei buruz, eta batik bat bideo-jokoei buruz, informazio gehiago txertatuz. Bigarrenik, "Familia eta Teknologia Berriak" tailerra eskaini zen 13 eta 17 urte arteko seme-alaba nerabe edo nerabeurrekoak (Bigarren Hezkuntza) zituzten gurasoentzat, teknologia berrien erabilera arduratsuari buruz.

Ikasgela birtual baten diseinu pedagogikoa ere taxutu zen "Familia, telebista eta beste pantaila batzuk" tailerraren edukian sakonduz, eta kanpainaren beste ekitaldi batzuetan abian jartzea espero da.

Guztira 36 tailer eman ziren urteko laugarren hiruhilekoan, zehazki 2008ko urriaren 7a eta abenduaren 16a bitarte.

2.1.4. "BELAUNALDI INTERAKTIBOA KOMUNIKAZIO-ESZENATOKI BERRI BATEN AURREAN" AZTERKETA

"Belaunaldi Interaktiboa komunikazio-eszenatoki berri baten aurrean. Gizarte- eta hezkuntza-erronkak" azterketa CoANen bildumako laugarren argitalpena da. Azterketa horretan, gazteek **teknologia berriei duten harremana eta jokalekuak dituzten pantaila anitzeko agertokian** dituzten portaera-ildoak aurkezten dira. Argitalpenaren helburua, adingabeek teknologia berriei (telebista, mugikorak, Internet eta bideojokoak) duten harremana aurkezteaz haratago, **familiaren, eskolaren eta erakundearen bitartekaritza** aldarrikatzen du egoera berri horren aurrean.

Testuan azaltzen da teknologia berrien fenomenoak alderdi positibo ukaezinak dituela, baina auzi gatazkatsuak ere badirela, guraso eta hezitzaileak aktiboki parte-hartzera behartzen dituzte-

nak. Zentzu horretan, nabarmentzen da gehiegizko erabilerak mendekotasuna eragin dezakeela, familiarik eta gizarte-inguruetik bakartzea edo offline munduan komunikatzeko beharra eta gaitasuna galtzea; agertoki horretan, ia gauza bera da adingabea babestea eta hura heztea.

2.1.5. ADINGABEEN BABESAREN INGURUKO PONENTZIAK ETA KOMUNIKAZIO PUBLIKOAK, ETA GAIARI BURUZKO EKITALDIETARA JOATEA

2008an zehar, CoANeko kontseilukide eta langileek zenbait forotan parte hartu dute, baita adituen arteko zenbait topaketatan ere; horietan guztietan, adingabeen babesarekin eta ikus-entzunezko komunikabideekin zerikusia duten gaiak eta arazak landu dira.

Haurren Eskubideen aldeko Nazioarteko Eguna zela bide, CoANeko presidente Ramón Bultók parte hartu zuen Iruñeko Udalak eta OCTA plataformak (Telebistako eta Ikus-entzunezko Edukien Behatokia) antolatutako jardunaldi batean: **“Edukiak eskuragarri izateko eskubidea, berme ala mehatxu?”**. Harekin batera izan ziren, gaiari ikuspegi ezberdinetatik heltzeko, OCTAko kideak, APYMAS plataformako (Ikasleen Guraso Elkarte) ordezkariak, kazetariak eta zuzenbidearen alorreko ordezkariak. Ikus-entzunezko edukien aurrean adingabeak babesteko CoANek duen konpromisoa eta egin duen lana azaldu zituen presidentek.

Murtziako San Antonio Unibertsitate Katolikoak **“Komunikazioa eta Adingabeak”** jardunaldia antolatu zuen, eta han hitzaldia eskaini zuen CoANeko zuzendari kudeatzaile Borja Mora-Figueroak, **“Baterako erantzukizunaren alde, ikus-entzunezko edukien aurrean adingabeei babesa eskaintzeko”** izenburupean. Adingabeen ikus-entzunezkoen kontsumoa erregulatzeko modua aztertu zen

ponentzian, batez ere telebista-kontsumoari erreparatuz. Bestalde, etorkizunera begira teknika berriak ikertzeko premia nabarmendu zen aurrera egin ahal izateko. Auzi horretan, hedabideak, legegariak, profesionalak eta kontsumitzaileak oro ados daude: erregulazioa guztioi dagokigun interes orokorreko edo zerbitzu publikoko betebeharra da. Era berean, baterako erregulazioaren alde egin zen, auzi horri konponbidea emateko teknika legegile egokia delakoan, eta Herbeheretako kasua aurkeztu zen jarraibide moduan.


CoANeko zuzendari kudeatzaile Borja Mora-Figueroa gonbidatu gisa joan zen OCTAk ekainaren 3an Madrilen antolatu zuen **“Adingabeak, telebista eta pantaila berriak”** jardunaldira. Orduko hartan, estatuko kateetan harrentzako ordutegiaren ematen diren edukiei buruzko azterlan bat aurkeztu zen.

2.2. IKUS-ENTZULEEN DEFENTSARAKO BULEGOA (ODA)

Ikus-entzunezko hedabideen erabiltzaileen eskubideak defendatzea eta haien bultzatzea da CoANen funtzio nagusietako bat, eta horri dagokionez arreta berezia eskaintzen zaio haur, gazte eta gutxiengoaren eskubideen babesari. Funtzio nagusia hori izanik, 2004. urtean Ikus-entzuleen Defentsarako Bulegoa (ODA) sortu zen; herritarrentzako arreta-zerbitzua da, ikus-entzunezkoen sektorearekin zerikusia duen orori buruzko kexak, kontsultak eta iradokizunak jasotzen dituena.

2.2.1. ODAREN DATUAK 2008AN

2008. urtean, guztira 96 sarrera zenbatu dira ODAn; horietatik, ia erdiak kexak izan dira (46), herenak kontsultak (33) eta %15 iradokizunak (17).



Erreklamaziogileen profila

2007an bezala, **emakumeek** gehiago erabili dute zerbitzua gizonen baino. Era berean, deigarria da 2008an udalek eta beste erakunde batzuek lege-kontuei buruz aholkua eskatu edo kexaren bat helarazi izana.

Sarrera gehienak Nafarroako Foru Komunitateko pertsonenak dira, zehazki guztizkoaren %70etik gora. Bestalde, aurten atzerritik zenbait kontsulta jaso ditugu, gure erkidegoko ikus-entzuzkoen sektorearen gaineko lege-kontuei buruz interesa agertuz.

Ikus-entzuleen Defentsarako Bulegoarekin harremanetan jartzeko dauden moduei begira, nabarmentzekoa da **Internet** izan dela erabiliena, doako 900 841 014 telefonoa baino gehiago.

Kexak

2008an, aurreko urtean bezala, 46 kexa jaso dira. Beraz, erreklamazio-mota horren kopurua egonkor mantendu da, eta ODA jasotako sarrera guztien %48 dira. Aurten jasotako kexa guztien %80 **edukiei buruzkoak** dira (hala programazio-koak nola publizitatekoak), eta %10 **alderdi teknikoiei buruzkoak**, bai LTDren bai irrati-interferentzien ingurukoak.

Ikus-entzuleen Defentsarako Bulegoan jasotako kexen gaia		
	Kopuru absolutua	Portzentajea
Programazioa	31	%67,4
Publizitatea	6	%13
Teknikoak	5	%10,9
Beste batzuk	4	%8,7
GUZTIRA	46	%100

Erreklamazio-kopuru gehien eragin duen euskarria telebista izan da, kexa guztien %83 erakarrit. %11k hedabideak oro har dituzte jomuga, eta gainerakoak (%6) "beste batzuk" kategorian (prentsa eta irratia) sartzen dira.

Kexak aurkezteko arrazoien artean, haurren babesa nabarmendu da, ia %22 horri buruzkoak baitira.

Ikus-entzuleen Defentsarako Bulegoan jasotako kexen zergatia		
	Kopuru absolutua	Portzentajea
Haurren babesa	10	%21,7
Sexu-edukiak: 7		
Indarkeriazko edukiak: 3		
Programazio-edukiak	7	%15,2
Publizitatea	6	%13,1
Haur-programazioa	6	%13,1
"Call tv" programak	4	%8,7
Ikus-entzulearen informaziorako eskubidea	4	%8,7
LTD zerbitzuaren estaldura	3	%6,5
Komunikabideak eskuragarri izatea	3	%6,5
Irratiak	2	%4,3
Beste batzuk	1	%2,2
GUZTIRA	46	%100

ODAn jasotako kexa guztiak aztertu egiten dituzte CoANeko zerbitzu juridikoek. Prozesua beti bera da, baina prozeduraren amaiera aldatu egiten da, kexak CoANen eskumenekoak diren edo ez: eskualde mailako kexetan, CoANek esku hartzen

du eta ebazpena ematen, eta estatu mailakoetan, berriz, kexak baloratu ondoren, beste erakunde batera igortzen ditu, urratu bide diren eskubideak bermatuak izan daitezten.

Jasotako kexei emandako erantzunak ¹		
	Kopuru absolutua	Portzentajea
Onetsiak	11	%23,9
Igorriak	14	%30,4
Ezetsiak	21	%45,7
GUZTIRA	46	%100

CoANen zerbitzu juridikoek ezetsi dituzten lau kexa operadoreei igorri zaizkie; horietan, ez da egiaztatu lege-xedapenak urratu direnik, eta beraz edukiak hobetzeko iradokizun gisa bidali dira.

Bestalde, aurten ODAk jaso duen kexa bat gerora eginen diren azterketetan analizatzea proposatu da, urraketarik antzeman ez eta ezetsia izan zen arren. Hala, eskualdeko operadore batek bere programazioari buruz argitara eman duen informazioa aztertzea pentsatu da, ikus-entzuleen informaziorako eskubidea bermatzen duen araudia betetzen ote duen ebazte aldera.

Estatu mailako erakundeei igorritako bederatzi kexetatik, bitan zehapen-espeditenteak abiaraztea proposatu dio Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioko Ikus-entzunezkoen Zuzendariordetzak eskumeneko organoari.

Zehazki, 43/2008 eta 45/2008 erreklamazioak dira, estatu mailako telebista-kate bateko magazine tankerako programa batzuetan, haurrentzako ordutegi babestuan, sexu esplizituko eszenak zituzten bi erreportaje eman zirelako.

Bestalde, Turismo eta Merkataritza Ministerioari igorritako kexa bat, "Pressing Catch" programa emateko orduaren ingurukoa, ezetsia izan zela ikusirik, CoANek Ministerioari ostera eskatu zion programa horren emisioari buruz neurriak ez hartzeko erabakia berriro azter zezala. Eskaera berriz egin zen, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren Bizikidetzarako Aholkularitzak aurkeztutako erreklamazioaren larriagatik. Izan ere, erreklamazioak Nafarroako zenbait ikastetxeren kezka jakinarazi zuen, jolas-orduan indarkeriazko jarrerak agertzen ari zirelako: ikasleek programako borroka libreko ekintzak errepikatzen zituzten.

Kontsultak

2008an jasotako kontsultak, guztira, 33 izan dira; hau da, ODA izandako sarrereren herena. Kopuruok 2007an bildutakoen oso antzekoak dira.

Kontsultak egitearen zergatia zein izan den kontuan hartuta, LTDrekin eta ikus-entzunezkoen legediarekin zerikusia duten gaiak kontsulta guztien %70 baino gehiago izan dira.

Kontsulthen zergatia		
	Kopuru absolutua	Portzentajea
Lege-kontuak	15	%45,5
Lurreko Telebista Digitala	9	%27,3
LTD – Estaldura:...5		
LTDko kanalak:...4		
Ikus-entzunezkoen sektoreari buruzko informazioa	5	%15,2
CoANen eginkizuna	2	%6
Beste batzuk	2	%6
GUZTIRA	33	%100

(1) Kexak, behin aztertuak izan ondoren, izan daitezke:

- **Onetsiak:** araudia urratua izan dela pentsatzeko bidea ematen dutenak; CoANen jarduera-esparru geografiko eta eskumenekoaren baitako operadoreen gainekoak dira. Kexen ondorioz, beste jarduketa batzuk ere bidera daitezke, hala nola berariazko azterketak edo txostenak, gomendioak eta iradokizunak.
- **Ezetsiak:** alde zuzeneko ikerketaren arabera, inolako urraketarik ez dela egon pentsatzeko bidea ematen dutenak. Interesdunei erantzuten zaie, azalduz kexa zergatik izan den ezetsia.
- **Igorriak:** CoANen jarduera-esparru geografiko eta eskumenekotik kanpoko operadoreen gainekoak dira. Kexak horiek igortzen dira ebazteko eskumena duten erakundeetara; indarrean dagoen sektoreko araudia edo kode etikoak urratu izanaren zantzurik badago, aurrez azterketak egiten dira erakunde eskudunek egokitzat jotzen dituzten neurriak har ditzaten.

Kontsulta gehienak lege-kontuei buruzkoak izan dira. Erreklamazio-mota hori ohikoa bihurtu da aurten, CoANi egindako kontsulta guztien %45era heltzeraino. Bigarren multzo handia LTDri buruzkoa da; beraz, agerian geratu da herritarrek formatu digitaleko kanalak sintonizatzeko interes handia mantentzen dutela.

Iradokizunak

Gainerako kategorietan bezala, iradokizunen kopurua 2007koaren antzekoa izan da, eta 17 sarrera izan dira. Iradokizunak, batik bat, eskualdeko telebisten programazioari buruzkoak izan dira, eta gehienetan haurrentzako programazioa hobetzeko premia aipatzen da.


Iradokizunen zergatia		
	Kopuru absolutua	Portzentajea
Haurrentzako programazioa hobetzea	12	%70,6
Publizitatea	2	%11,7
Hizkuntza-aniztasuna	1	%5,9
Edukiak hobetzea	1	%5,9
Programazioari buruzko informazioa hobetzea	1	%5,9
GUZTIRA	17	%100

2.2.2. ODAREN BILAKAERA 2004-2008 ALDIAN

2004. urteaz geroztik ari da lanean ODA, eta lau urteko epealdian, guztira, 314 sarrera izan ditu. Kopuru guztiak kontuan izanik, kexak 161 izan dira, eta kontsultak eta iradokizunak, berriz, 105 eta 48, hurrenez hurren.

2004-2008 aldian ODAn izandako sarreraren erregistroa				
Urtea	Kexak	Kontsultak	Iradokizunak	Guztira
2004	21	0	6	27
2005	22	8	0	30
2006	26	32	7	65
2007	46	32	18	96
2008	46	33	17	96
GUZTIRA	161	105	48	314

2008an, ODARA jo dutenen kopurua ez da batere igo: 96 erreklamazio egin dira, aurreko urtean bezala. Era berean, kategorien arabera 2007an bildutakoen oso antzeko datuak ematen ditu.



2.2.3. ODAREN IRUDIA BIRDEFINITZEA

2008ko lehen seihilekoan egin zen komunikazi-ori buruzko barne-auditorioak agerian utzi zuen **ODAREN irudia berraztertu eta aldatzeko premia**. Hain zuzen ere, urte hasieratik irudiaren alor hori lantzeari ekin zitzaion.

Azaroaren 13an egindako osoko bilkuran, Artworks enpresak ODAREN irudia berritze aldera aur-

keztutako proposamena onartu zen. Helburua izan zen irudi hori 2006an diseinatu eta 2007an ezarri zen COANen logotipoarekin identifikatzea. Horregatik, letra-mota bera erabili zen, beltza, eta atzealde zuria paratu, uhin gorriak gehituz. Hala, ODAREN logotipo berriak Kontseiluaren diseinua gogorazten du, eta horrek bien arteko identifikazioa errazten du.



ODAREN irudi korporatibo berria onartu ondoren, irudi berria garatzeari ekin zitzaion, hura paratzeko beharrezkoak ziren aplikazio informatikoak sortuz eta liburuxka korporatibo berriak inprimatuz.

2.2.4. ODAREN SUSTAPEN- ETA PUBLIZITATE-KANPAINA

ODAREN sustapen-kanpaina abenduaren 15etik 21era egin zen, batik bat irratia bidez. Aurreko urteko iragarki berak erabili ziren, eta eskualdeko irratietan txertatu: Iruña, Tafalla eta Tuterako SER katea; Iruña, Elizondo, Altsasu eta Tuterako Onda Cero; Iruña eta Azkoiengo COPE; eta Lizarrako Punto Radio.

3. KAPITULUA

NAFARROAKO IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKABIDEETAN ANIZTASUNA BABESTEIA

18/2001 Foru Legearen 20. artikuluari jarraiki, CoANen eginkizunetako bat da “Konstituzioaren balio eta printzipioak sustatzea eta bermatzea, eta bereziki aniztasuna babestea,” eta “gizarte-komunikazioaren erabiltzaileen eskubideak bermatzeaz arduratzen denez, ikus-entzunezko komunikabideen titulartasunean gardentasuna bermatzea”.

Eginkizun hori garatze aldera, CoANek txostenak egiten ditu Administrazioaren eskariz, Ikus-entzunezko Komunikabideen Titulartasun Erregistroa kudeatzen du eta programazio-edukie buruzko azterketak egiten ditu.

3.1. ADMINISTRAZIOAK ESKATUTAKO TXOSTENAK

18/2001 Foru Legearen 26. artikulua arabea, CoANi dagokio “txostena ematea kontzesioak berritzeko eskaeren gainean, Nafarroako Gobernuak baimenduko dituen enpresa titularren kapital soziala aldatzeko espedienteen gainean eta kontzesioak eskualdatzeko espedienteen gainean”.

3.1.1. EMITITZEKO LIZENTZIAK BERRITZEARI BURUZKO TXOSTENAK

2008ko uztailaren 30ean, Nafarroako Gobernu-ko Erakundeekiko Harremanetarako eta Eledunaren Departamentuko Komunikaziorako zuzendari nagusiak bidalitako txosten-eskaera jaso genuen CoANen egoitzan, beharrezko dokumentazio guztiaz, Uniprex, S.A.U. enpresari Iruñeko 94.3 Mhz irratiaren emakida berritzeari buruz. 2008ko abuztuaren 28ko osoko bilkuran, baimena berritzeari buruzko txostena aztertu zuen CoANek, eta, eskakizun guztiak betetzen zituenez, beharrezko dokumentazio guztia aurkeztu zuenez eta baimena berritzea eragotziko zukeen ezer ageri ez zenez, erabaki zuen hura berritzeko eskaeraren aldeko irizpena ematea.

3.1.2. XURGATZE- ETA TRANSFERENTZIA-BAIMENAREN ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

Urriaren 14an, Nafarroako Gobernu-ko Erakundeekiko Harremanetarako eta Eledunaren Departamentuko Komunikaziorako Zuzendaritza Nagusiaren idatzi bat jaso zuen CoANek; idatzian txosten bat egin zedila eskatu zuten Iruñeko 99.2 Mhz irrati, Unión Ibérica de Radio, S.A. ren jabetzakoa, xurgatzeko eta titulartasuna Uniprex, S.A.U. enpresari eskualdatzeko eskariari buruz.

2007ko azaroaren 13an, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak Ebazpena eman zuen, Unión Ibérica de Radio, S.A. ren kapital sozialaren akzio guztiak Uniprex, S.A.U. enpresari eskualdatzea baimenduz. Ebazpen horren argitan, emakida eskualdatzearen aldeko irizpena eman zuen CoANek; izan ere, indarreko araudian jasotako eskakizun guztiak betetzen zituen eskuratzailleak, eta ez ziren gainditzen 31/1987 Legearen Seigarren Xedapen Gehigarriak kanpo-aniztasuna bermatzearen ezarritako mugak. Nolanahi ere, indar betean egonen da sozietate eskuratzailleari aplikagarri zaion emakidei buruzko erregimen juridikoa, indarreko araudiari eta sozietate eskualdatzailleak (jatorrizko emakidaduna) bere gain hartutako konpromiso partikularrei jarraiki. Horrez gain, irratiari ezarritako parametro teknikoak errespetatu behar-ko ditu sozietate eskualdatzailleak.

3.2. ALDAKETAK IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKABIDEEN TITULARTASUN-ERREGISTROAN

Uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeak, Nafarroako ikus-entzunezkoen jardura arautzen duena eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuena, xedatzen du CoANek Erregistro bat sortuko duela, eta bertan erregistratuko direla Nafarroako irrati- eta telebista-emakiden titular guztiak.

2008an bi aldaketa erregistratu dira:

- CoANen martxoaren 27ko 33/2008 Erabakiaren bidez, erregistratu zen Fernando Sebastián Aguilar jaunak utzi egin diola Popular TV Navarra enpresako kontseilari izateari, Kontseiluaren presidente eta kontseilari nagusi gisa zituen karguak utziz, eta Francisco Pérez González jauna kontseilari izendatu dutela, Kontseiluaren presidente eta kontseilari nagusiaren karguak hartuz.

- CoANen azaroaren 27ko 101/2008 Erabakiaren bidez, Uniprex, S.A.U. enpresaren kapital sozialaren aldaketa erregistratu zen; zehazki, enpresak kapitala gehitu zuen.

3.3. PROGRAMAZIO-EDUKIETAN ANIZTASUNA BABESTEKO JARDUERAK

Hedabideei buruz ari garenean, aniztasunak esan nahi du, batetik, enpresen titulartasunean gardentasuna begiratzea, eta, bestetik, eskualdeko irrati- eta telebista-**operadoreek eskaintzen dituzten programazioetako edukia eta printzipioak** anitzak izatea.

Eginkizun hori betetze aldera, edukien eskaintzan aniztasuna bermatzeko zenbait jarduketa burutu ditu CoANek.

3.3.1. ESKUALDEKO TELEBISTA-OPERADOREEN BARNE-ANIZTASUNARI BURUZKO AZTERKETA, INFORMAZIO-PROGRAMETAN JASOTAKO ALBISTEEN EDUKIARI ERREPARATUZ

Azterketaren helburua izan zen aztertzea eskualdeko telebistetako informazio-programek zenbat denbora ematen dioten errealitatearen atal bakoitzari: ekonomiari, gertakariei, gizarteari, kirolei, kulturari eta abarri.

Hiru urte-sasoitan (San Fermin aurretik, udaren amaieran eta udazkenean) eskualdeko hiru telebista-operadoreek hiru astez emandako informazio-programak aztertu zituzten CoANen zerbitzu teknikoek. Gaurkotasunezko albisteak ikusi eta aztertu ondoren, ezarritako 15 kategoriotako batean sartu ziren albisteak: "Politika nazionala eta nazioartekoa", "Eskualdeko eta tokiko politika", "Segurtasuna eta terrorismoa", "Ekonomia", "Kultura", "Gizartea", "Jaiak", "Ingurumena", "Hezkuntza", "Osasungintza eta osasuna", "Gertakariak", "Gastronomia", "Kirolak", "Meteorologia" eta "Beste gai batzuk".

Datuetatik ondorioztatu zen arreta gehien erakarri zuten gaiak, hurrenez hurren, "**Eskualdeko eta tokiko politika**" eta "**Kirolak**" izan zirela; aztertu ziren hiru telebistetan, gai horiek guztizko denboraren %40 inguru hartu zuten. Nolanahi ere, bi gaion arteko aldea, presentziari dagokionez, nabarmen aldatzen da telebista-katearen arabera: Popular TV katean, lehen eta bigarren gaien arteko aldea %17,71 puntukoa da, Canal 6 katean, berriz, %10,22koa, eta Canal 4 katean 0,98koa. "Eskualdeko eta tokiko politika" kategoriaren baitan, erkidegoko operadoreetan minutu gehien izan dituztenak "Alderdi politikoak" azpikategoria eta Popular TVn "Politika ekonomikoa" izan dira.

Eskualdeko telebistek arreta gehien eskaini dioten hirugarren gaiari erreparatuz gero, aldeak handiagoak dira. Hala, Canal 6ek "**Kultura**" kategoriari albistegietako guztizko denboraren %14,12 eman zion –proporzioan, hiru operadoreetatik denbora gehien ematen diona da–, Canal 4k "Kultura" kategoria berari %10,91, eta Popular TV Navarrak "Gizartea" kategoriari %10,78.

"**Ekonomia**" gaiak gero eta garrantzi handiagoa hartu dute eskualdeko albistegietan, eta hiru telebistetan laugarren kategoria bihurtu da, guztizko denboraren %10 inguru hartuz. "Lana" azpikategoriak ere arreta berezia erakarri du, guztizkoaren %6-7ra helduz.

Azterketa berean, estatu mailan egindako antzeko ikerlanetako datuak aurkeztu dira, eta horietan egiaztatu da estatuko albistegietan gehien landu diren gaiak "Politika", "Gertakariak" eta "Kirolak" izan direla. Datuok eskualdekoekin alderatuta, ondoriozta daiteke bi kasutan gai nagusia "Politika" dela, portzentajeak altuagoak badira ere eskualdeko telebistetan (%25,46) estatu mailakoetan (%20) baino. Paretsuagoa da "Kirolak" kategoriari emandako denbora: estatu mailan guztizkoaren %17 hartu zuen, eta Nafarroan %15,82 (horretan Canal 4 nabarmendu da, %21,27az). Bestalde, "Gertakariak" kategoria da estatu mailan arreta gehien izan duen bigarren kategoria, guztizkoaren %21 zehazki, eta Nafarroan, berriz, %5era ere ez da iritsi. Era berean, nabarmentzekoa da "Kultura" gaiari buruzko albisteeek presentzia handiagoa dutela Nafarroan (%11,38) estatuan (%9) baino.

3.3.2. HAUTESKUNDE-PROZESUA

Kongresurako eta Senaturako hauteskunde-kampainaren hasierarekin batera, **hauteskundealdian eskaini beharreko informazio-estaldurari buruzko gomendioak** gogorazi zizkien CoANek Nafarroan diharduten irati- eta telebista-operadoreei.

3.3.3. ESKUALDEKO TELEBISTA-OPERADOREEK ALBISTEGIETAN EUSKARAZKO EDUKIAK ESKAINITZEAREN ALDEKO PROPOSAMENA

Urriaren 9ko osoko bilkuran, "Lurreko Telebista Digitalak eskaintzen dituen zerbitzu gehigarri buruzko txostena" onartu zuen CoANek. Txostenean proposatu zen Nafarroako Gobernuak aintzat har zezala 2009an, ikus-entzunezko produkzioari laguntzak emateko balizko deialdian, kategoria berri bat txertatzeko aukera, soinu duala (gaztelania eta euskara) duten programak emateko.

4. KAPITULUA

NAFARROAKO IKUS-ENTZUNEZKOEN SEKTOREA BULTZATZEA

CoANek, Nafarroan ikus-entzunezkoen alorrean aginpidea duen organoa izaki, sektorearekin zerikusia duten agente guztiekin batera egiten du lan, Foru Komunitatean industria hau sendotzeko, bultzatzeko eta garatzeko.

4.1. "NAFARROAKO IKUS-ENTZUNEZKOEN BAROMETROA 2008" EGITEA

CoANek **"Ikus-entzunezkoen Barometroa 2008"** ondu du. Horretarako, iritzi publikoa aztertzeko duen ikerlan batean oinarritu da, hain zuzen ere Nafarroako Unibertsitate Publikoaren "Gizarte-aldaketak" ikerketa-taldeak Foru Komunitateko ikus-entzunezko hedabideei buruz egindakoan.

CoANek bereziki garrantzitsua iritzi zion horrelako azterlan bat egiteari, jakiteko Nafarroako herritarrek ikus-entzunezko komunikabideekin zer nolako harremana duten, haiengatik zer espero duten eta haien aurrean ohiturak nola aldatuz doazen.

"Ikus-entzunezkoen Barometroa 2008" 1.190 telefono-elkarrizketatan oinarritu zen; lagin geruzatua baliatu zen (16 urte edo gehiagoko gizon eta emakumeak, Nafarroan bizi direnak, familia-unitateetan), eta bi aldagai aintzat hartu ziren: inkestatua bizi zen eskualdea eta udalerriaren tamaina. Izan ere, bi faktoreek erabakigarriak izan ohi dira ikus-entzunezkoen buruzko ohiturak eta iritziak azaltzeko orduan.

Ikertu diren bost alderdi nagusiak hauek dira:

- Nafarroako etxeetan dagoen ikus-entzunezkoen ekipamendua.
- Telebista- eta irrati-kontsumoa, ohiturak eta hedabide horiek ikusi edo entzutearen zertarakoak.
- Ikus-entzunezko edukiei buruzko iritzia.
- Eskualdeko irrati- eta telebista-operadoreen ebaluazioa.
- CoANi buruzko ezagutza-maila eta balorazioa.

Lan honen emaitzek duten interes soziologiko ukaezinaz landa, herritarrak babesteko eta haien interesak sustatzeko eginkizunean gida moduan erabiliko ditu emaitzak CoANek, eta, zalantzarik gabe, Kontseiluaren lan-eremua den errealitate soziala hobeto ezagutzeko lagungarriak izanen dira.

"Ikus-entzunezkoen Barometroa 2008" 2009ko lehen lauhilekoan aurkeztu da publikoki.

4.2. NAFARROAKO LURREKO TELEBISTA DIGITALARI BURUZKO FOROA

"Nafarroako LTDri buruzko Foroa" 2005ean sortu zen, gure komunitatean LTDren ezarpena bultzatzeko asmoz. Urte hauetan, teknologia berria hedatzeko hainbat ekintza gauzatu ditu.

2008ko abenduaren 18an, Foroa osatzen duten erakundeak bildu ziren Nafarroan teknologia hori garatzearekin zerikusia duten hainbat alderdi jorratzeko. Bilera hartan, "Nafarroan lurreko teknologia digitala hedatzea" proiektua aurkeztu zen, eta itzalaldi analogikoari buruzko alderdiak landu ziren, gertuen dugunari bereziki erreparatu; hain zuzen ere, 2009ko ekaina baino lehen Erriberako eta Lizarrerri hegoaldeko 45 udalerri eraginaren diona.

4.3. TXOSTENAK ETA AZTERKETAK

2008an zehar, CoANek zenbait txosten eta azterketa egin ditu ikus-entzunezkoen sektorearen gaineko alderdi jakin batzuk aztertzeko, horiek xehetasun handiagoz ezagutze aldera. Horrenbestez, aurten txostenak egin dira hala irratigintzari buruz nola tokiko LTD emakiden egoerari edo eskualdeko operadoreek eskaintzen dituzten zerbitzu gehigarri buruz.

4.3.1. FORU-KOMUNITATEKO IRRATIGINTZAREN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA

CoANek, Nafarroako Gobernuako Komunikaziorako zuzendari nagusiaren eskariz, irratigintzak Foru Komunitatean bizi duen egoera sakon aztertzeko duen txosten bat ondu zuen.

Txostenak bederatzi kapitulu ditu:

1. Txostenaren edukia aurkezten duen **'Sarrera'**, irratigintzak Nafarroan bizi duen egoera gaingiroki azaltzen duena, Espainiako merkatu osoaren egoerarekin alderatuz.

2. Jarraian, **'Lege-esparrua'**, txosten osoa testuinguruan paratzeko funtsezkoa, aurkezten da.

3. Hirugarren kapituluak **'Maiztasun modulazioko uhin metrikoen bidezko soinuak irrati-hedapeneko zerbitzuaren zuzeneko kudeaketa'** jorratzen du; Nafarroan, lantegi hori Espainiako irrati nazionalaren (Radio Nacional de España) bidez bakarrik egin da.

4. Txostenaren laugarren atalaren gai bakarra da **'Maiztasun-modulazioko uhin metrikoen bidezko soinuak irrati-hedapeneko etxeen zeharkako kudeaketa administrazio-emakidaz'**.

Txosteneko kapitulu luzeena den honetan, aipatu jardueran hauteman diren irregulartasunak zehatz-mehatz aztertzen dira.

5. Jarraian **'Udal-irratia'** dira hizpide; kapitulu horretan lehendabiziko aldiz sakondu da irratimota horrek Nafarroan izan duen funtzionamenduan.

6. Hurrengo atalak **'Uhin Ertaina'** bidezko emisioa jorratzen du.

7. Zazpigarren kapituluak **'Emisioa administrazio-baimenik gabe'** gaia lantzen du, irradi komertzialak, irabazi asmorik gabeko irradi kulturalak nahiz beste autonomia-erkidego batzuetako irradi publikoak aztertuz.

8. Txostenaren zortzigarren atalak **'Irratiaren etorkizuna'** du hizpide, bai irradi digitalari bai Internet bidezkoari erreparatuz.

9. Txostenaren bederatzigarren kapituluak **'Sektorea antolatzeke ezar litezkeen neurriak'** aztertzen ditu, CoANen iritziz aintzat hartu eta baloratu beharreko zenbait proposamen jasoz, Nafarroako irratigintzaren merkaturua berrantolatzea eta biziberritzeko baliagarriak izan daitezkeelakotan.

10. Txostenaren amaieran eranskin bat gehitzen da, **'Administrazio-emakida duten irratien lege-egoera'** deskribatzen duena.

“Foru Komunitateko irratigintzaren egoerari buruzko txostena” xehetasun handiagoz ezagutu nahi izanez gero, Urteko Txosten honen 10. kapituluak kontsulta daiteke.

4.3.2. IRABAZI ASMORIK GABEKO IRRATI KULTURALEN EGOERARI BURUZKO AZTERKETA

Azaroaren 13ko osoko bilkuran, irabazi asmorik gabeko irradi kulturalen egoerari buruzko azterketa xehea egitea onartu zuen CoANek. Ondorio gisa, Nafarroako Gobernuari gomendatu diogu etorkizunean, maiztasun modulazioko uhin metrikoen bidezko soinuzko irradi-hedapeneko etxeen erregimen juridikoa arautuko duen Dekretua egiten denean, irratimota hori aintzat har dezatela.

4.3.3. TXOSTENA TOKIKO LTD EMAKIDEN EGOERARI BURUZ TUTERA, LIZARRA, TAFALLA ETA ZANGOZAKO MUGAPEETAN

2008ko urriaren 23an, CoANen osoko bilkuran txosten tekniko bat aurkeztu zen, tokiko Lurreko Telebista Digitaleko emakiden egoerari buruz Tuteran, Lizarra, Tafalla eta Zangozako mugapeetan.

Dokumentuan, lau mugapeetan emakidadunak hartutako konpromisoak jaso dira, eta CoANek

2006ko abenduaren 14an onartutako txostenaren edukian sakondu da.

4.3.4. LTDk ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZU GEHIGARRIEI BURUZKO TXOSTENA

Txosten honetan, Lurreko Telebista Digitalak (LTD) eskaintzen dituen zerbitzuak aztertu dira, zerbitzuok balio erantsi moduan ebaluatu dira eta Nafarroako eskualdeko telebistek hura ezartzeko aukeraren inguruan hausnartu da. Era berean, estatu nahiz eskualde mailan jadanik badiren zerbitzuak deskribatu dira, eta ondorio zein ekintza-ildo batzuk proposatu dira.

Gaurko egunean, eta erkidego mailan, **LTDko zerbitzu gehigarriak Nafarroako Gobernuak eskainitakoak baino ez dira**; izan ere, Gobernuak, 'Nafarroan LTD Hedatzeko Plana'-ren baitan, bi proiektu pilotu jarri zituen abian:

- Nafarroako Gobernuaren ataria LTD formatuan garatzea, bertan informazio garrantzitsu eta esanguratsuen txertatuz.
- Zerga Ogasunari lotutako zenbait zerbitzu interaktibo, eta prestakuntza- eta lanbide-ikastaroak.

Txostenaren ondorio gisa, Nafarroako Gobernuari proposatu diogu, LTDko zerbitzu gehigarri dagokienez, lizentziak esleitzeko lehiaketetan hartutako konpromisoak betetzeko egutegi bat adostu dezala eskualdeko hiru telebistekin.

4.4. COAN-en ETA ERAKUNDE ARAUTZAILEEN ZEIN ASKOTARIKO BESTE ERAKUNDE BATZUEN ARTEKO LANKIDETZA-HARREMANAK SENDOTZEKO JARDUERAK

Bere eginkizunak aurrera eramateko orduan, CoANek harremanak ditu, eta elkarlanean aritzen da, beste erakunde arautzaile batzuekin eta proiektu zein ekimenak partekatzen dituen beste erakunde eta entitate batzuekin.

4.4.1. BESTE ENTITATE INDEPENDENTE BATZUEKIKO HARREMANA

CoANek bere gisako erakundeekin harremanak eta kontaktuak ditu, bai Espainiakoak bai Europakoak, **ikus-entzunezkoen sektoreari buruzko ezagutzak eta esperientzia trukatzeko** helburuaz.

Azaroaren 20an, **Ikus-entzunezkoen Kontseiluen Espainiako Plataformaren (PECA) II. Topaketa** egin zen Iruñean. 2007an sortua, PECA eztabaida-foro bat da, erkidegoetako ikus-entzunezkoen kontseiluei esperientziak, iritzia, irizpi-

deak eta jarrerak trukatzeko aukera ematen diena.

Topaketan izan ziren Espainian dauden erkidego mailako ikus-entzunezkoen hiru kontseiluetako ordezkariak, eta hainbat gai landu ziren, hala nola etorkizunean estatu mailako Ikus-entzunezkoen Kontseilu bat sortzea, irratigintzaren egoera kontseilu horien eskumeneko autonomia-erkidegoetan eta ikus-entzunezkoen sektorearen erregulazioari lotutako beste zenbait alderdi.

Bilera horren ostean, Nafarroa, Andaluzia eta Kataluniako ikus-entzunezkoen kontseiluek publikoki eta aho batez adierazi zuten atzerazina eta ezinbestekoa zela estatu mailako oinarrizko araudi bat finkatzea, gaur egungo arau-esparru zatikatu, sakabanatu eta, neurri batean, zaharkitua gainditzeko aldera.

Bestalde, 2008an **Entitate Arautzaileen Europako Plataformaren (EPRA)** bi bilera egin dira, eta bietan CoANen ordezkariak bana izan da.

2008ko maiatzaren 14 eta 16 bitartean Rigan (Letonia) egindako EPRAren 27. bileran izan ziren Toya Bernad eta Eva Laita kontseilukideak. Topaketa hartako osoko bilkuretan jorratu zen gai nagusia izan zen erakunde arautzaileek ikus-entzunezkoen gaineko alfabetatzearen sustapenean duten eginkizuna. Lantaldeetan hainbat gai landu ziren, besteak beste “call tv” deitutako programen erregulazioa, Ikus-entzunezko Komunikabideen Zerbitzuei buruzko Zuzentarau berriak debekatzen duen publizitatea eta Zuzentaruaren irizpidealdaketa europarrak ez diren sateliteen jurisdikzio osagarriaren inguruan.

Urriaren 29tik 31ra Dublinen (Irlanda) egindako 28. bilerara Ramón Bultó CoANeko presidentea eta Borja Mora-Figueroa zuzendari kudeatzailea joan ziren. Europako Zuzentaraua herrialde bakoitzera egokitzeko prozesuari buruz hitz egin zen osoko bilkuretan, eta zehazki Zuzentaruak zein zerbitzu arautuko dituen eta horretarako zein erregulazio-egitura ezar daitekeen eztabaidatu zen. Bestalde, lantaldeetan jorrotutako gaiak izan ziren, besteak beste, erakunde arautzaileek zerbitzu publikoaren ikuskapenean duten eginkizuna, aniztasun politikoa ikus-entzunezko hedabideetan eta telebista digitalaren erregulazioa.

Azkenik, Ramón Bultó CoANeko presidentea, José María Domench kontseilukideak eta Borja Mora-Figueroa zuzendari kudeatzaileak parte hartu zuten otsailaren 1 eta 2an Lisboan egindako **Ikus-entzunezkoen Iberiar Penintsulako Erakunde Arautzaileen I. Topaketan**.

Bileretan, Katalunia, Andaluzia eta Nafarroako ikus-entzunezkoen kontseiluetako ordezkariak, Portugaleko Gizarte Komunikaziorako Erakunde Arautzailekoekin batera, ikus-entzunezko komunikazioa arautzeko erakundeek independentzia mantentzeko mekanismo eta bermeei buruz eztabaidatu zuten, eta informazioa trukatu. Bere mintzaldian, Kontseiluek botere politikoarekiko izan beharreko independentziaz hitz egin zuen Ramón Bultó, eta, zehazki, CoANen independentzia bermatzen duten mekanismoek.

Bilera hura baterako adierazpen batekin amaitu zen. Adierazpen horretan erakunde arautzaileek konpromisoa hartu zuten “lan egiten jarraitzeko beren eskumenak independentzia osoz bete ahal izanen direla modu eraginkorrean bermatzea ahalbidetuko duten mekanismo juridiko eta instituzional guztiak errespetatzearen, ezartzearen eta garatzearen alde”.

4.4.2. COANEN ETA IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKABIDEEN ARTEKO LANKIDETZA-HARREMANAK SENDOTZEKO JARDUERAK

Apirilaren 28an, eskualdeko hiru operadoreak elkarrekin bildu ziren, denei zegozkien zenbait gai jorrotzeko: operadoreek hartutako obligazioen egutegia betetzea, Nafarroako lanen kopurua, ikus-entzunezko produkzioarako laguntza-sistema eta estatuko Autoerregulazio Kodean indarrean dauden programen kalifikazio-irizpideekin bat egitea.

Era berean, bakarkako bilerak egin dira eskualdeko operadoreen arduradunekin, bakoitzak dituen berezitasunen arabera gaiak lantzeko.

Bestalde, urriaren 9an José María Domench kontseilukidea Madrilen egindako Telebista Komertzialen Batasunaren **(UTECA) Urteko Jardunaldira** joan zen. Bileran Espainiako telebistaren egoerari buruzko UTECAren 2008ko txostena aurkeztu zen, eta baita “Espainiako Telebista Publikoari buruzko II. Txosten Ekonomikoa” ere. Bestalde, hiru ponentzia eskaini ziren Espainiako ikus-entzunezkoen sektoreari, telebistaren 2008ko publizitate-merkatuari eta LTDri buruz.

4.4.3. LANKIDETZA-HITZARMENAK BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN

2008an, **hiru erakunderekin lankidetzahitzarmen bana** sinatu du CoANek jarduera zehatzak aurrera eramateko eta bere eginkizunak eraginkortasun handiagoz bete ahal izateko.

Zehazki, akordioak sinatu dira Urrutiko Hezkuntza Unibertsitate Nazionalaren (UNED) Iruñeko zentroarekin, Telekomunikazio Ingeniariei Nafarro-

ako Elkartearekin (ANIT) eta Nafarroako Gobernu-ko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuaren Familia, Haurtzaro eta Kontsumoko Zuzendaritza Nagusiarekin.

Martxoaren 13an, CoANek eta **UNEDek (Iruñeko zentroa)** hezkuntzaren alorreko lankidetzahitzarmen bat sinatu zuten, Urrutiko Hezkuntza Unibertsitate Nazionaleko ikasleek prestakuntza teorikoa osatu ahal izan dezaten CoANen praktikak eginez.

Apirilaren 24an, CoANek lankidetzako esparruhitzarmen bat sinatu zuen **Telekomunikazio Ingeniarrien Nafarroako Elkartearekin (ANIT)**, bi erakundeen onerako izanen diren ekintza eta jarduerazehatzak sustatzeko.

Lankidetzako esparruhitzarmen horren baitan, ANITek “Urruneko estazioetako FM irratiko eta LTDko seinaleak hartzeko sistemaren proiektua” ondu zuen. Proiektuaren helburua da CoANen behaketa-lana erraztea, Iruñean kokaturik ez dauden irradi- eta telebista-operadoreek indarreko araudia betetzen dutela egiaztatzeko orduan.

Irailaren 3an, CoANek lankidetzahitzarmen bat sinatu zuen Nafarroako Gobernuko **Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuarekin**, ikus-entzunezkoetan trebatzeko “Familia eta ikus-entzunezko pantailak” kanpainaren hirugarren ekitaldia aurrera eramateko.

Lankidetzahitzarmen honen baitako jarduerak eta horien garapena Urteko Txosten honen 2.1.2 eta 2.1.3 azpiataletan jaso dira.

5. KAPITULUA

IKUS-ENTZUNEZKO OPERADOREEK AUTO-ERREGULAZIO-ARAUERIKO KONPROMISOA HAR DEZATEN ETA HORIEK EZAR DITZATEN SUSTATZEA

18/2001 Foru Legeak jasotzen duen CoANen beste eskumen bat da "ikus-entzunezkoen sektorea autoerregulatzeko arauak ezar daitezzen sustatzea".

Eginkizun horretan, CoANek gomendioak taxutzen ditu eta jardueren jarraipenean oinarritutako azterketak egiten, gomendio horiek aintzat hartu beharrekoak direnean eskualdeko ikus-entzunezko hedabideetako profesionalen eguneroko lanean. Bestalde, Kontseiluak Autoerregulazio Kodea betetzearen jarraipena egiteko batzorde mistora bidaltzen ditu kode horri atxikitako estatuko operadoreei buruz jasotako keak, eta Interneteko Kalitate Agentzian (IQUA) parte hartzen du.

5.1. GOMENDIOAK TAXUTXEA

Dagozkion funtzioak betetzeko, CoANek eskumena du proposamenak eta gomendioak egiteko. Aurtun, operadoreei laguntzeko zenbait gomendio taxutu dira, autoerregulazioa bultzatuz, ikus-entzunezko komunikabideen erabiltzaileen eskubideak betetzen dituztela bermatzeko.

5.1.1. PUBLIZITATE KONPARATIBOAN OINARRITUTAKO AUTOPROMOZIO-KANPAINEI BURUZKO GOMENDIOAK

2007ko azken hiruhilekoan, Ikus-entzuleen Defentsarako Bulegoak zenbait erreklamazio jaso zituen eskualdeko bi operadorek burututako autopromozio-kanpaineri buruz; kanpainok publizitate konparatiboan oinarriturik zeuden. Publizitate-mota hori mezua aurkezteko zilegizko modu gisa dago jasota Publizitatearen Lege Orokorrean; alabaina, aipatu eskualdeko operadoreek beren lidergoa defendatzearen publizitate-mota hori nola erabili zuten ikusirik, CoANek komunikazio-molde horrek bete beharko lituzkeen gutxieneko gomendio labur batzuk taxutu zituen, herritarrek egiazko informazioa jasotzeko duten eskubidea bermatzeko eta gaizki kudeatutako publizitate konparatiboa iruzurrezko publizitate bihur dadin saihesteko.

Artikulu-bilduma labur baten bidez, adierazten da derrigorrezkoa dela argi eta garbi azaltzea egiten diren baieztapenen oinarrian dauden erreferentzia objektiboak, eta, bestalde, alderatzen diren produktu edo zerbitzuen egiazkotasuna errespetatzea, horretarako datu objektibo, neurgarri, kuantifikatu eta egiaztatuak eskainiz. Era berean, gogorazten da alderaketak ezaugarri funtsezko, kideko,

antzeko eta objektiboki frogagarri buruzkoa izan behar duela; horrela bermatuko da hartzaileak ez direla nahasaraziko.

5.1.2. BESTE TELEBISTA-PROGRAMA BATZUETAKO EDO WEB ORRIETAKO ESZENAK ERAKUSTEN DITUZTEN ZAPPING ETA DENBORA-PASAKO PROGRAMEI BURUZKO GOMENDIOAK

Haurrentzako ordutegi babestuan beste programa batzuen irudiez edo Interneteko edukiez elikatzen diren gero eta programa gehiago daudenez, CoANek egoki eta beharrezko jo zuen gomendio batzuk proposatzea, programa horiek adingabeentzat desegokiak gerta daitezkeen irudi edo eszenak erakusteko bitarteko bihur ez daitezten.

Aukera hori saihestearren, CoANek, ikus-entzunezkoen alorrean eskumena duen aldetik, gomendio batzuk helarazi zizkien Nafarroako estatu eta eskualde mailako telebistei, ordutegi babestuan (18:00 eta 22:00 artean) adingabeen garapen fisiko, mental edo moralarentzat kaltegarriak izan litezkeen irudiak eman ez ditzaten.

Besteak beste, telebista-operadoreei gomendatu zitzaizen programa horiek tentu bereziz kalifikatu eta marka ditzatela, programa osatzen duten eduki guzti-guztiak aintzat hartuz, eta gertakari indarke-riazko edo dramatikoak ez ditzatela haien edukia desitxuratuko duen modu batean zatikatu, testuingurutik kanpo kokatu edo umorez tratatu. Era berean, operadoreei eskatu zitzaizen Internetetik heldutako edukiak hautatu eta aurkezteko orduan bereziki zuhurrak izan daitezela, eduki horiek aurrez kalifikatu gabeak direlako.

5.1.3. BABES BEREZIKO ORDUTEGIAN TELENORBELAK EMATEARI BURUZKO GOMENDIOAK

Berariaz adingabeen babesaren inguruan egin diren txosten eta azterketen atalean (2.1.1 azpiatalla) adierazi den moduan, CoANek txosten bat egin zuen telebista-operadoreen emankizunetan telebeteleak duten lekuari buruz. Txostenean egiaztatu zen genero horretako eduki gehiegi zeudela haurrentzako ordutegi babestuan, eta, gure iritziz, generoa adingabeentzat kaltegarria gerta liteke, korapiloetan ageri diren gai gatazkatsuegatik eta arazoei eman ohi zaien aterabidegatik.

Horregatik, Foru Komunitatean indarrean dagoen ikus-entzunezkoen araudian ezarritakoari jarraiki eta haurrak zein gazteak babesteko asmoz, programa horiek emateko orduan kontuan hartu beharreko jarraibide soil batzuk proposatu zituen CoANek.

Gomendio bat zen operadoreek behar bezala adieraz dezatela zein programa sartzen diren tele-

nobelaren generoan, telenobela bakoitzari dagokion adin-kalifikazioa edozein delarik ere; halaber, programa horiek ordutegi babestuko tartean ez pilatzeko gomendioa egin zitzaien. Gomendio-sorta berean, berariaz haur eta gazteei zuzendutako programazioa eskaintzera animatu genituen, ikus-entzule horiek telebistaren aurrean egon ohi diren ordutegian.

5.2. GAIA DELA-ETA GOMENDIOEI JARRAIKI LANDU BEHARREKO ALBISTEEN INFORMAZIO-TRATAERAREN AZTERKETA

CoANek txostenak egiten ditu albistek jorrazteko orduan azken urteotan landu diren gomendioak behar bezala betetzen diren egiaztatzeko. Era berean, zenbait gertakari izandako trataera aztertzen duten eztabaida-foroetan izan gara, ondorioak atera eta gure jardunean hobetzeko.

5.2.1. MUTILOAGOITIN GERTATUTAKOAK INFORMAZIO-PROGRAMETAN IZANDAKO TRATAERARI BURUZKO TXOSTENA

Otsailaren 6ko goizaldean Mutiloagoitin jazotako gertakari lazgarri bati buruz emandako informazioa aztertu zen. Eskualdeko operadoreek gertakariari eskainitako arreta eta informazio-programetan emandako trataera aztertu ziren, ikus-entzunezko hedabideek prozesu judizialekin zerikusia duten albistek tratatzeko moduari buruz CoANek 2007an egindako gomendioetara egokitzen ziren egiaztatzeko.

Zehazki, alderdi hauei erreparatu zitzaien: iturri fidagarrien erabilera, akusatua errugabetasun-presuntzioarekiko errespetua, gertakarian nahastutako pertsonen intimitate eta irudiarekiko errespetua, eta informazioa eta iritzia garbi bereiztea. CoANek egindako gomendioei erreparatu, gertakaria egoki tratatu zela ondorioztatu zen; hala ere, zehaztasun batzuk egin ziren, etorkizunean gertakari-mota horri buruz eskainiko den informazioa hobetzeko asmoz.

5.2.2. IRUÑEKO ARROSADIA AUZOAN GERTATUTAKOAK INFORMAZIO-PROGRAMETAN IZANDAKO TRATAERARI BURUZKO TXOSTENA

Urtarrilaren 18ko goizaldean Iruñean jazotako gertakari bati buruz emandako informazioa aztertu zen. Gertakaria, ustez, genero-indarkeriaren ingurukoa zen. Eskualdeko operadoreek gertakariari eskaini zioten arreta aztertu zen txostenean, erakundeek emandako gomendioen arabera: alde batetik, CoANek emandakoak, ikus-entzunezko hedabideek prozesu judizialekin nahiz immigrazioarekin zerikusia duten albistek tratatzeko moduari buruz; bestetik, Nafarroako Gobernuaren Nafarro-

ako Emakumearen Institutuak emandakoak, emakumeen aurkako indarkeria hedabideetan tratatzeko moduari buruz.

Egindako azterketatik ondorioztatu zen trataerak ez zuela gomendiorik urratu, baina badela hobe daitekeen alderdirik genero-indarkeriari buruzko informazioen estalduran eta tratamenduan.

5.2.3. BARAJASKO AIRE-ISTRIPUAREN ESTALDURA

Espainiako Prentsa Elkarten Federazioak (FAPE) eta Madrilgo Prentsa Elkarteak (APM) hausnarketa-foro bat antolatu zuten irailean ("Barajasko aireportuan gertatutako aire-istripuaren informazio-trataera"), abuztuaren 20an Madrilgo Barajasko aireportuan izan zen aire-istripuaren estaldura aztertzeko.

Hedabideen, zegokien agintaritzak eta konpainien eta zenbait elkarteren ordezkariak izan ziren bileran. CoANen ordezkari gisa Pedro Lozano Bartolozzi kontseilukidea joan zen Topaketan, hedabideei helarazitako informazio-emia nahiz horien informazioa tratatzeko era aztertu ziren.

5.3. ESTATU MAILAKO AUTOERREGULAZIO-KODEAREN JARRAIPENERAKO BATZORDE MISTORA BIDLITAKO KEXAK

2004an, estatuko telebista-operadoreek 'Telebistako Edukien Autoerregulazio Kodea eta Haurtzarora' sinatu zuten, eta 2006an FORTA eta operadore berriak (La Sexta, Net TV eta Veo TV) atxiki zitzaizkion. Aurten, CoANek Kodearen Jarraipen Batzorde Mistora bidali ditu herritarrek ikus-entzuleen Defentsarako Bulegora helarazitako kexak, horiek CoANen jarduketa-esparruan ez sartzearatik zegokion organora igorriak izan zirenean:

- Kexa "Pressing Catch" programa emateari buruz, Cuatron (ODA, 19/2008).

- Kexa haurrentzako ordutegi babestuan zezeketa bat emateari buruz, Telecincon (ODA, 35/2008).

- Kexak haurrentzako ordutegi babestuan sexu-educia zuten erreportajeak emateagatik, bi Cuatron eta bat Telecincon (ODA, 43/2008, 44/2008 eta 45/2008).

- Kexa Antena 3ko albistegian indarkeriazko edukiak emateagatik (ODA, 46/2008).

- Kexa La Sextan "Padre de Familia" saila emateari buruz (ODA, 84/2008).

5.4. INTERNETeko KALITATE-AGENTZIA (IQUA)

Interneteko Kalitate Agentzia (IQUA) Interneten autoerregulazioa sustatzea helburu duen elkarte bat da, eta, horrez gain, "Confianza Online" zigiluaren bidez, kalitatea bultzatzea eta sarearen erabilzaileen artean konfiantza sortzea ditu xede. IQUAren jarduketa-esparruak dira publizitatearen autoerregulazioa Interneten, merkataritza elektronikoa, hauren babesa, irisgarritasuna, usagarritasuna eta fidagarritasuna, eta, azkenik, datuen pribatutasuna eta babesa.

Otsailaren 19an Sevillan egindako Ezohiko Batzar Nagusian, IQUAren egitura eta haren Zuzendaritza Batzordea aldatu ziren. Estatutu berriak onartu ziren eta bi bazkide berri sartu: Komunikazio Komertzialaren Autoerregulaziorako Elkarte (AUTOCONTROL) eta Espainiako Merkataritza Elektronikoaren eta Harreman Marketingaren Elkarte (AECEM). 2008an, Presidentzia Gonzalo Díe-k (Red.es) hartu du, eta Presidenteordetzak Martí Manent (AECEM), Josep Pont (CAC) eta José Domingo Gómez-Castallo (AUTOCONTROL) kideek.

6. KAPITULUA

KOMUNIKAZIO-POLITIKA BAT GARATZEA KONTSEILUAREN IRUDI PUBLIKOA INDARTZEKO, HERRITARREN ZERBITZURA DAGOEN ELKARTE BITARTEKARI GISA

CoANek, dituen eginkizunengatik, harremanetan egon behar du haren jarduera askoren jomuga den gizartearekin, aginpidean dituen hedabideekin eta Administrazioarekin, uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeak ezarritakoaren arabera. Horretarako, CoANek komunikazio-politika bat garatu du; politika hori berregituratu egin da 2008an, maiatzean komunikazioaren gainean egindako barne-auditoria baten ondorioen argitan.

6.1. KOMUNIKAZIOAREN KUDEAKETA

2008. urtean zehar komunikazioaren inguruko zenbait proiektu gauzatu dira, CoANek bere publikoekin duen komunikazioa eraginkorragoa izan dadin.

6.1.1. KOMUNIKAZIOAREN AUDITORIA

Maiatzaren 21eko osoko bilkuran, "CoANen komunikazioaren auditoria" onartu zen. Dokumentu horren helburua da erakundearen komunikazioa ebaluatzea sistemetan, egituretan, prozesuetan eta estrategietan, bai maila formalean bai informalean, behetik gora, goitik behera zein horizontalki.

Dokumentua lau kapitulutan egituratu zen:

1. CoANen izaera korporatiboaren aurkezpena.
2. Komunikazioaz arduratzen den departamentu edo organoaren deskribapena.
3. Komunikazio-tipologia eta -ereduak.
4. Balorazioa eta hobetzeko proposamenak.

6.1.2. KOMUNIKAZIO-POLITIKA BERRIKUSTEA ETA EGUNERATZEA

Auditoria onartu ondoren, ordura arte garatutako komunikazio-politika berrikusi eta eguneratzea erabaki zuen osoko bilkurak. Kanpora begirako komunikazio ekintzailea sustatzea erabaki zen, informazio-eskariei aurrea hartzen saiatuz. Komunikazio-joera berri hori hobeto egokitzen zaie CoANek, Nafarroako herritarren zerbitzura dagoen ikus-entzunezkoen alorreko organo gisa, bete behar dituen helburuei eta eginkizunari. Horrengatik, erakundearen egitekoak eta jarduerak maiatza jakinaraztea erabaki zen, egiten den lanarekin zerikusi handiagoa duen irudi bat emate aldera.

6.1.3. HEDABIDEETAN AGERTZEA

2008an, CoANek **109 agerraldi esanguratsu egin ditu hedabideetan**. Agerraldien erdiak baino gehiago (%57) prentsa idatzian izan dira, eta gainerakoak (%43) Interneten, irratia eta telebistaren artean banatu da, ia neurri berean (%17, %15 eta %11, hurrenez hurren); agerraldien %3 aldizkarietan jaso dira.

Hedabideetan azaltzeko arrazoi nagusiak "Teknologia berrien eragina familian" jardunaldien estaldura eta CoANeko presidentek Nafarroako Parlamentuan egindako bi agerraldiak izan dira, eta, neurri apalagoan, ikus-entzunezko edukiekin eta sektorearekin zerikusia duten albisteak.

6.1.4. IRITZI-ARTIKULUAK ESKUALDEKO EGUNKARIETAN

CoANek, eskumena duen gaietan aditu gisa ageri denean, eskualdeko egunkarietara bidalitako **iritzi-artikulu bidez** jakinarazten du bere ikuspegia.

2008an, birritan azaldu du irratigintzak Nafarroan bizi duen egoerari buruzko iritzia. Lehendabiziko artikulua "Sobre la radio en Navarra" ("Nafarroako irratigintzari buruz") izan zen, eta soinuzko irati-hedapenaren egungo egoera eta etorkizunerako ikuspegia aztertu zituen. Bigarrena, "El músico de la radio, el pulso de la sociedad" ("Irratiaren giharra, gizartearen taupadak") izenekoak, Nafarroako irratigintzaren 75. urteurrenaren kariatara argitaratu zen. Irratiak gure erkidegoen izan duen historiari gainbegiratu ematen dio artikulua, aldi bakoitzean funtsezkoak izan ziren izenak eta oneak seinatuz eta hedabide honek historian zehar izan duen egokitzeko gaitasuna nabarmenduz.

Bestalde, "Tratamiento informativo del accidente de Barajas" ("Barajasko istripuaren informazio-tratamendua") artikulua argitaratu zen, hedabideek Barajasko tragediari emandako tratamendua aztertuz. Artikuluan azpimarratu zen egiazko informazioa eman eta jasotzeko eskubideak ezin duela hedabide zentzuzko jarreraren zurigarri izan.

6.1.5. BIDEO KORPORATIBOA

Komunikazioaren barne-auditorian aurkeztutako hobekuntzarako proposamenetako bat bideo korporatibo bat egitea izan zen. Horren haritik, Tagomedia produkzio-etxeak hiru minutu pasako animazio-lan bat ondu du, CoANen webgunean zein Kontseiluak Youtube-n duen kanalean (www.youtube.com/ConsejoAudiovisual) eskuragarri dagoena.

6.2. AGERRALDIAK, PONENTZIA INSTITUZIONALAK ETA JARDUNALDI ETA EKITALDIETAN PARTE HARTZEA ETA HORIETARA BERTARTZEA

CoAN, ikus-entzunezkoen alorreko erakunde gisa, erreferentziako organoa da bai Nafarroako Gobernuarentzat bai Parlamentuarentzat. 2008an, CoANeko presidentek bi agerraldi egin zituen Nafarroako Parlamentuan, eta ikus-entzunezkoen sektoreari buruzko jardunaldi eta ekitaldietara joan zen, alorreko aginpidedun moduan.

6.2.1. AGERRALDIA NAFARROAKO PARLAMENTUAN: 2007KO URTEKO TXOSTENAREN AURKEZPENA

18/2001 Foru Legeak CoANen esku utzi duen eginkizunetako bat da “Nafarroako Parlamentuari urtero aurkeztea txosten bat, aurreko aldiaren izandako jardura azaldu eta ikus-entzunezkoen sistemaren garapena, arazoak eta zailtasunak ebaluatzeko”.

Hala, ekainaren 24an Foru Parlamentuaren Ekonomia eta Ogasun Batzordearen aurrean agertu zen CoANeko presidentea, kontseilukide-idazkari Juan Andrés Platerorekin batera. Mintzaldian, 2007an zehar aurrera eramandako jardura garrantzitsuenak azaldu zituen Ramón Bultók, eta ikus-entzunezkoen sektorearen ikuspegi orokorren berri eman zuen.

6.2.2. AGERRALDIA NAFARROAKO PARLAMENTUAN: EMITITZEKO LIZENTZIAK BERRITZEA 1998an ETA 2006an. ENTITATEEK EMAKIDAREN KLAUSULAK BETE DITUZTEN EBALUATZEA.

Irailaren 30ean, Foru Parlamentuaren Ekonomia eta Ogasun Batzordearen aurrean agertu zen CoANeko presidentea, kontseilukide-idazkari Juan Andrés Platerorekin batera, azken esleipen-lehia-ketetan emandako emisio-lizentzien berritzea azaltzeko eta entitate emakidadunen betetze-mailari buruzko ebaluazioa baloratzeko.

Agerraldian, Ramón Bultók gogorazi zuen irati askok, tokiko zein estatu mailakoek, ilegalki emititzen dutela edo emakidak arautzen dituzten baldintzak ez dituztela betetzen; Foru Komunitatean ez ezik, estatu osoan gertatzen da hori.

6.2.3. PONENTZIA: IKUS-ENTZUNEZKOEN KONTSEILUAREN FUNTZIOAK ETA TELEBISTA AUTONOMIKOAK

Nafar Ateneoak, hedabideen sailaren bidez, mahai-inguru bat antolatu zuen otsailean, eta ekitaldi hartan hizpide izan ziren CoANen funtzioak eta Nafarroako eskualdeko telebistekin duen harremana. Moderatzailea Alejandro Pardo (Nafar-

roako Unibertsitateko Komunikazio Fakultateko irakaslea) izan zen, eta gainerako parte-hartzaileak, berriz, Roberto Sanz (orduan Canal 6 Navarrako zuzendaria), José María Tejerina (Localia-Canal 4 Navarrako zuzendaria), Jokin San Julián (Popular TV Navarrako zuzendaria), eta Ramón Bultó (CoANeko presidentea) izan ziren.

6.2.4. HIZKUNTZAREN III. AKTA

CoANen izenean, José María Domench kontseilukideak analista gisa parte hartu zuen Espainiaren Nazioarteko III. Aktan, apirilaren 11tik eta 13ra La Rábidan (Huelva) egin zena. “Ikus-entzunezkoen eta teknologiaren aro berri bat” goiburupean, Espainia, Latinoamerika eta AEBetako hirurogei aditu baino gehiago bildu zen biltzarrera. Topaketa horretan, bizi dugun iraultza teknologiko eta digitalaren aurrean ikus-entzunezkoen industriak Espainiako merkatuan ageri dituen indargunak, ahulguneak, mehatxuak eta aukerak aztertu ziren.

José María Domenchek ‘Konbergentzia digitala’ lan-mahaian parte hartu zuen, eta han aztertu zuen **teknologiak zein neurritan eragin dezakeen ikus-entzunezko produktuen ekoizpen-, banaketa- eta merkaturatze-prozesuen hobekuntzan**, eta horrek guztiak azken kontsumitzaileari ekar diezaiokeen onura.

6.2.5. INFORMAZIOAREN ETIKARI ETA ZUZENBIDEARI BURUZKO NAZIOARTEKO 6. BILTZARRA

CoAnen bi ordezkari, zehazki Borja Mora-Figueroa zuzendari kudeatzailea eta Juan Carlos Orenes letrada, Informazioaren Etika eta Zuzenbideari buruzko 6. Biltzarrean izan ziren. Biltzarra Komunikazioaren eta Gizartearen Garapenerako COSO Fundazioak antolatuta zuen, eta azaroaren 7 eta 8an egin zen, Valentzian. Prozesu judizialekin zerikusia duten albisteak tratatze aldera 2007an egindako gomendioak aurkeztu ziren foro horretan.

6.3. COAN-ek ANTOLATUTAKO BESTE EKITALDI BATZUK

2008an, ikus-entzunezkoen sektorea erregulatzeko organo eskudun gisa betetzen dituen funtzioen inguruko bi liburu aurkeztu ditu CoANek bere goitzan.

6.3.1. “LENGUAJE PUBLICITARIO Y DISCURSOS SOLIDARIOS” LIBURUAREN AURKEZPENA

Castellóko Jaume I Unibertsitatean Ikus-entzunezko Komunikazioan eta Publizitatean doktore eta irakasle den Eloísa Nos-ek bere azken liburua,

“Lenguaje publicitario y discursos solidarios,” aurkeztu zuen CoANen egoitzan, otsailean Iruñera egindako bisitaldian. **Publizitate-komunikazioaren adierazkortasun-gaitasunak** aztertzen dira liburuan, eta batik bat publizitatearen erabilpen konplexu eta gutxien aztertuenetako bat: sentsibilizazioa.

Aurkezpenean, Ramón Bultó presidentek gogora ekarri zuen CoANek egiten duen publizitatearen jarraipen- eta kontrol-lana, eta baita ikus-entzunezkoen sektorea dinamizatzeko duen egin-kizuna ere.

6.3.2. “LIBERTAD DE INFORMACIÓN Y PROCESO PENAL. LOS LÍMITES” LIBURUAREN AURKEZPENA

Urrian, Juan Carlos Orenes CoANeko letraduak “Libertad de información y proceso penal. Los límites” bere liburua aurkeztu zuen CoANen egoitzan. Lan horretan, **hedabideen eta botere judizialen arteko harremanen esparrua** deskribatzen eta aztertzen du, tartean prozesu judizial penal bat denean informazio-askatasunak ezinbestean dituen mugetan sakonduz.

Aurkezpenean, Ramón Bultó CoANeko presidentek azaldu zuen Nafarroako ikus-entzunezkoen Kontseiluak duen konpromisoa ikus-entzunezko hedabideek autoerregulazio-arauak ezar ditzaten, informazioaren kalitatea hobetze aldera. Horri dagokionez, prozesu judizialei buruzko informazioa jorratzean jarraitu beharreko gomendioak aipatu zituen, zehazki 2007an landu eta 2008ko txostenetan aztertu direnak.

6.4. www.consejoaudiovisualdenavarra.es WEBGUNEAREN FUNTZIONAMENDUA

2008. urtean zehar, CoANen webguneak 76.867 bisita izan ditu, egunean 210 batez beste. Guztira, erabiltzaileek 256.007 orri bisitatu zituzten, egunean 699 batez beste. Nabigatzaileek gehien ikusitutako orriak izan dira “La Imagen de la Juventud en la publicidad televisiva” (“Gaztediaren irudia telebistako publizitatean”) txostena, eta orri nagusia; biek ala biek 10.000 bisitatik gora izan dituzte 2008an.


6.4.1. EGUNERATZEA: ATAL BERRIAK

Webgunea da CoANek duen komunikazio-tresna nagusietako bat ikus-entzunezkoen alorreko bere jarduera herritarrei helarazteko.

2008an, webguneako orri nagusia eraberritu zen eta “Prensa-aretoa” atala gehitu. “Adingabearen babesa” atala eguneratu zen, eta atalaren baitako “Ikus-entzunezkoetan alfabetatzea” sailean txertatu ziren “Familia eta ikus-entzunezko pantailak” kanpainaren hirugarren ekitaldiko informazioa eta materialak. Bestalde, “Hedabideak” atala eguneratu zen informazioa modu egituratuan eskaintzeko, hedabideen berezko tipologiai aintzat hartuz eta horien emakidaren ezaugarriei zein irismen geografikoari erreparatuz.


6.4.2. BILAKAERA

Lau urtez bisitek etengabe gora egin ostean, 2008an %7ko beherakada izan zen aurreko urtearekiko; 2007. urtean izan ziren, hain zuzen ere, bisita gehien (82.698).



Datuak hilen arabera alderatuz eta webgunea martxan egon den bost urteei erreparatuta, ohartu gara 2008ko apirilean eta maiatzean nabarmen

areagotu dela internauten interesa; webgunea abian denetik, denbora-tarte horretan izan da bisita gehien.



II. ZATIA ALDERDI OROKORRAK

7. KAPITULUA

CoAN-en ANTOLAKETA

7.1. CoAN-en OSAERA

Uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeak, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautzen duena eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuena, 23. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua (CoAN) zazpi kidek osatzen dute; horietatik bost Nafarroako Parlamentuak hautatzen ditu, eta beste biak Nafarroako Gobernuak.

Kontseilukideak erabateko independentziaz jarduten dira beren karguetan, ez baitaude inolako manamenduren mende, eta autonomiaz eta norberaren irizpideei jarraiki betetzen dituzte beren eginkizunak.

2008ko otsailaren 11n, Ramón Bultó presidentea eta Balbino Bados presidenteordeak karguak utzi zituzten, beren agintaldia burutu zelarik. CoANen Antolamendu eta Funtzionamendu Estatutuaren 7 bis artikuluari jarraiki, bi pertsona horiek jardunean jarraitu zuten izendapen eta kargu-hartze berriak gertatu bitartean. Bestalde, eta hauteskunde berriak egin bitartean, erabaki zen Ramón Bultó jarrai zezala jarduneko presidentea gisa.

Nafarroako Gobernuaren 2008ko otsailaren 25eko Erabakiaz, Ramón Bultó CoANeko kide gisa hautatua eta izendatua izan zen. Era berean, eta Nafarroako Gobernuaren 2008ko ekainaren 17ko Erabakiaz, Balbino Bados CoANeko kide gisa hautatua eta izendatua izan zen, Nafarroako Parlamentuak egindako proposamena aintzat hartuta. Behin kontseilukide gisa kargu hartu zutenean, CoANeko presidentea hautatzeari ekin zitzaion. Hala, ekainaren 26ko oso bilkuran, bozketa egin ostean, Ramón Bultó **CoANeko presidentea** hautatua izan zen aho batez. Erabakia jakinarazi zitzaion Nafarroako Gobernuko presidenteari, izendapena egin zezan, eta baita Nafarroako Gobernuko Erakundeekiko Harremanetarako eta Eledunaren Departamentuari ere, jakinaren gainean egon zedin.

Bilkura berean, eta 18/2001 Foru Legearen 23.4 artikuluari jarraiki, presidentea Balbino Bados kontseilukidea izendatu zuen presidenteorde gisa. Izendapena berretsia izan zen Nafarroako Gobernuko presidentea Ramón Bultó CoANeko presidentea izendatu zuenean, Nafarroako Gobernuko presidenteari uztailaren 3ko 11/2008 Foru Dekretuaren arabera.

2008ko abenduaren 31n, pertsona hauek osatzen zuten CoAN:

Presidentea:
Ramón Bultó Llevat

Presidenteordea:
Balbino Bados Artiz

Kontseilukide idazkaria:
Juan Andrés Platero Alda

Kontseilukideak:
Toya Bernad Calza
José María Domench García
Eva Laita Martínez
Pedro Lozano Bartolozzi

Lana hobeto antolatzeko, funtzioak kontseilukideen artean banaturik daude. Hala, nor bere erantzukizun-arloa du. Irailaren 19ko 55/2006 Erabakiaren ostean, honela banatu ziren funtzioak kontseilukideen artean:

- Ramón Bultó Llevat, presidentea:

=> Presidentearen esku utzitakoak (CoANen Antolamendu eta Funtzionamendu Estatutuaren 9.2 artikuluan bildutakoak).

=> Ardura-eremuak eta jarduketa-arloak koordinatzea.

=> Harreman instituzionalak eta beste entitate arautzaile batzuekikoak.

- Balbino Bados Artiz, presidenteordea:

=> Presidenteordearen esku utzitakoak (CoANen Antolamendu eta Funtzionamendu Estatutuaren 10.2 artikuluan bildutakoak).

=> CoANen aurrekontuak.

=> Memoria eta txostenak.

- Juan Andrés Platero Alda, kontseilukide idazkaria:

=> Idazkariaren esku utzitakoak (CoANen Antolamendu eta Funtzionamendu Estatutuaren 11.2 artikuluan bildutakoak).

=> Hezkuntza eta ikus-entzunezko hedabideak.

- Toya Bernad Calza, kontseilukidea:

=> Hedabideekiko eta sektore profesionalakiko harremanak.

=> Irratiko edukien eta produkzioaren kontrola.

- José María Domench García, kontseilukidea:

=> Kontseiluaren argitalpenak, dokumentazioa eta dosierak.

=> Nafarroako kulturaren presentzia ikus-entzunezkoen sektorean.

- Eva Laita Martínez, kontseilukidea:

=> Ikus-entzunezko Komunikabideen Titulartasun Erregistroa.

=> Aniztasuna, ikus-entzunezko operadoreak eta erabiltzaileak.

=> Internet, alderdi teknikoak eta legeari buruzkoak: IQUA.

- Pedro Lozano Bartolozzi, kontseilukidea:

=> Telebistako edukien eta produkzioaren kontrola.

=> Legedia eguneratu eta egokitzea.

7.2. COAN-en EGOITZA

CoANek, hura sortzeko Foru Legearen 22. artikuluari jarraiki, **Iruñean** dauka egoitza. 2007ko otsailaz geroztik, CoANen instituzio-, lan- eta gizarte-egoitza Arrieta kaleko 8an dago, zazpigarren solairuan.

2008ko irailaren 17ko osoko bilkuran, 'Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren egoitza esleipen bidez lagatzearen kontabilizazioari buruzko txostena' onartu zen, Comptos Ganberak 2006ko ekitaldiari buruz egin zituen Gomendioen Gutunean ezarritako ildoari jarraiki. Idatzi hartan, gomendatu zen CoANi Nafarroako Gobernuko Ondare Zerbitzuari eskatzea atxikitako egoitzaren balioespena. Helburua esleipen bidez jasotako ondarea kontabilizatzea zen, zegokion kontabilitate-oharra eginez. Aurrekontuen eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak eskainitako datuekin, lokalaren %65 kontabilizatuko da, hori baita CoANI atxiki zitzaion solairuaren azaleraren portzentajea.

7.3. COAN-en PERTSONAL ORGANIKOA ETA LANGILEAK

2008ko otsailaren 7ko Erabakiaz (Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 27. zenbakia, 2008ko martxoaren 3koa), pertsonal organiko hau onartu zuen CoANek 2008. urterako:

Lanpostua	Kop.	Mail.	Osoa	Ez-osoa	Lanp.	Mailaren osag.
Administrazio Publikoko teknikaria (arlo juridikoa)	1	A	-	35	15	-
Administrazio Publikoko teknikaria (arlo juridikoa)	1	A	-	35	5	
Goi Mailako teknikaria (kazetaria)	1	A	-	35	10	-
Erdi Mailako teknikaria	1	B	-	35	2,58	
Administrari laguntzailea	1	D	-	-	10,66	12

B) Behin-behineko langileak:

Lanpostua	Kop.	Izendapen askekoak
Presidentearen idazkaria	1	X
Gerentea	1	X

2008ko apirilaren 8ko 40/2008 Erabakiez (NAO, 103. zenbakia, abuztuaren 22koa), pertsonala aldatu egin zen lanpostu osagarriei dagokienez. Horrenbestez, pertsonal organikoa honela eratu zen:

Lanpostua	Kop.	Mail.	Osoa	Ez-osoa	Lanp.	Mailaren osag.
Administrazio Publikoko teknikaria (arlotu juridikoa)	1	A	-	35	18,72	-
Administrazio Publikoko teknikaria (arlotu juridikoa)	1	A	-	35	13,72	
Goi Mailako teknikaria (kazetaria)	1	A	-	35	13,72	-
Erdi Mailako teknikaria	1	B	-	35	6,15	
Administrari laguntzailea	1	D	-	-	13,65	12

B) Behin-behineko langileak:

Lanpostua	Kopurua	Izendapen askekoak
Presidentearen idazkaria	1	X
Gerentea	1	X

CoANeko langileek dituzten egitekoei eta erakundearen baitako lan-egituraketari erreparatuta, egokia iritzi zitzaion B taldeko langile funtzionario-postu bat sortzeari, zehazki Erdi Mailako teknikariarena. Izan ere, Nafarroan diharduten 9 telebista-kateek eta 20 irratiek emandako edukien jarraipena egiten dugu, horiek aldi-aldi kontrolatuz, eta arlo hori beste pertsona batekin sendotzeko premia ikusi genuen.

2008aren hasieran, pertsonal organikoaren postu guztiak baterik zeuden, aldi baterako erregimenean, administrari laguntzailearena eta Erdi Mailako teknikariarena izan ezik.

2007an deialdi bat antolatu genuen D mailako administrari laguntzailearen posturako hautagaien zerrenda bat osatzeko, ondoren langile bat aldi baterako kontratatuzeko asmoz. 2008ko apirilaren 1ean hasi zen lanean azaroaren 22ko 85/2007 Erabakiaz deitutako hautaketa-prozesuan puntuaziorik altuena atera zuen pertsona.

Bestalde, ekainaren 19ko 55/2008 Erabakiaz, CoANek lan-eskaintza publikoa onartu zuen; ondoren, irailaren 25ean, 83/2008 Erabakiaz, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluan Goi Mailako tituludun kazetariaren postua, A mailakoa, oposizio-lehiaketaz betetzeko deialdia onartu zuen (NAO, 142. zenbakia, azaroaren 21ekoa).

7.4. COAN-en AURREKONTUA

7.4.1. COMPTOS GANBERAREN TXOSTENA 2007ko EKITALDIARI BURUZ

2007ko ekitaldiari dagokionez, urte horretako ekitaldiari buruzko **behin betiko fiskalizazio-txostena, Comptos Ganberak egina**, jaso zuen CoANek 2008ko abuztuaren 8an. Hona hemen, besteak beste, txostenak ondorioztatu zuena: 2007. urterako aurrekontuaren likidazioak behar bezala adierazten zuela ekitaldi horretan egindako ekintzak; egoera-balantzeak, 2007ko abenduaren 31n, egoki adierazten zuela finantza- eta ondare-egoera; eta CoANek legezotasun-printzipioari jarraiki egin zituela ekonomia- eta finantza-jarduerak.

7.4.2. COAN-en AURREKONTUA 2008an

2007ko irailaren 27ko osoko bilkuran onartu zuen CoANek **2008. urterako aurrekontuaren** aurreproiektua, Nafarroako Aurrekontu Orokorren Foru Legearen proiektuan programa independente gisa sartua izateko; izan ere, hala ezarrita dago 18/2001 Foru Legearen 31. artikuluan. Jarraian, aurrekontua gastu-kapituluen arabera laburbildu da:

1. kapitulua	Langile-gastuak	309.000 euro
2. kapitulua	Funtzionamendu-gastuak	312.200 euro
3. kapitulua	Finantza-gastuak	150 euro
4. kapitulua	Ohiko transferentziak	14.400 euro
6. kapitulua	Inbertsio-gastuak	34.000 euro
NAFARROAKO IKUS-ENTZUNEZKOEN KONTSEILUA GUZTIRA		669.750 euro

2008. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorren Foru Legean, CoAN programa independente gisa ageri da, "D00-Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua" izenaz; 669.750 euroko kopurua esleitu zitaion, honela banakatua:

Programaren izena eta proiektuaren izena	Organikoa	Proiektuaren kodea	Ekonomikoa	Funtzio-nala	Kontusailaren azalpena	Euroak
Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua, GUZTIRA						669.750
D-00 Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua					D00 programa GUZTIRA	669.750
Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua	D0000				Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua	
	D0000	D00000	4459	912200	Nafarroako Gobernuaren ohiko transferentziak	635.750
	D0000	D00000	7459	912200	Nafarroako Gobernuaren kapital-transferentziak	34.000

Behin 2007. urteko ekitaldia itxita, aurrekontu bateratua eta aipatu aurreproiektuarena berberak izan ziren.

7.4.3. 2008ko GASTUEN AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA

2008ko ekitaldirako, hasierako aurrekontuko diru-hornidura 669.750 euro izan zen.

Aitortutako obligazio garbiak 549.855,15 euro izan dira; beraz, aurrekontu bateratuarekiko betetze-maila %82,10ekoa izan da.

Ekitaldian zehar ordaindutako gastuaren gutzitza 492.652,35 euro izan da; horrez gain, "gastu-emaitzak" kontabilizatu dira, 57.202,80 euroko kopuruan.

7.4.4. 2008ko GASTUEN EGOERA-ORRIA

Hona hemen gastuen egoera-orria osatzen duten kapituluei buruzko azterketa, ehunekotan:

KAP.	BATERATUA	%	AITORTUTAKO OBLIGAZIOAK	%	BETETZE-MAILA
I	309.000	46,14	241.734,48	43,96	%78,23
II	312.200	46,61	284.280,89	51,70	%91,06
III	150	0,02	125,88	0,02	%83,92
IV	14.400	2,15	14.400	2,62	%100
VI	34.000	5,08	9.313,90	1,69	%27,39
GUZTIRA	669.750		549.855,15		%82,10

I. kapitulua. Langile-gastuak

Aurrekontu bateratua 309.000 euro da; hau da, gastuen egoeraren %46,14. Aitortutako obligazioak 241.734,48 euro dira. Aurrekontuaren betetze- edo gauzatze-maila %78,23koa izan zen, aurrekontu bateratuarekiko.

II. kapitulua. Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan

Aurrekontuko diru-hornidura 312.200 euro da; hau da, aurrekontuaren %46,61. Betetze-maila, berriz, %91,06koa izan da. Kapitulu horren barruan sartzen dira erakundeak funtzionatzeko behar dituen gastu guztiak, hala nola bulegoko materiala, komunikazioak eta beste enpresa batzuek egindako lanak.

Nabarmentzeko modukoa izan da edukien kontrolerako kontusaila, kapituluaren gutizko gastuaren %37,83 hartu baitu.

III. kapitulua. Finantza-gastuak

Hornidura 150 euro da; hau da, aurrekontuaren %0,02 baino ez. Horren betetze-maila %983,92koa izan da. Kontu korrontea mantentzeko gastu txikiei eta ekitaldian sor litezkeen bestelako koei aurre egiteko paratu da kontusail hori.

IV. kapitulua. Ohiko transferentziak

Behin betiko kredituak 14.400 euro dira; hau da, aurrekontuaren guttizkoaren %2,15. %100ean gauzatu da. Irabazi asmorik gabeko erakundeei

eta unibertsitateko fakultateei transferentziak egiteko paratu da kontusail hori.

VI. kapitulua. Inbertsio errealak

Aurrekontu bateratua 34.000 euro da, eta aurrekontuaren %5,08 hartzen du kapitulu honek. Kontusailaren %27,39 gauzatu da.

7.5. COAN-en ONDASUN ETA ESKUBIDEEN INBENTARIOA

Uztailaren 30eko 54/2007 Erabakia, Ondasunen eta Eskubideen Inbentario Orokorra egiteko eta horien mantentze-lanetarako jarraibidea onartu zuena, betez, mugimendu hauek jaso dira aurten:

- Urtarrilaren 10eko 3/2008 Erabakiaz, CoANen zenbait ondasun higigarriren erabilera Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Kontu-hartze Orokorren Zerbitzuari doan lagatzea onartu zen.

- Irailaren 17ko 75/2008 Erabakiaz, CoANi atxikitako egoitza kontabilitatean eta ondasunen inbentarioan jasotzea onartu zen, Nafarroako Gobernuko Ondare Zerbitzuak helarazitako balio-espenaren ondotik.

- Abenduaren 18ko 116/2008 Erabakiaz, CoANen inbentario orokorretik baja eman zaie dagoneko erabilgarriak ez diren ondasun jakin batzuei; zaharkiturik geratu direlako, matxuratu direlako edo hondatuta daudela eman zaie ondasun horiei baja.

8. KAPITULUA.

2006-2008 PLAN ESTRATEGIKOA

2006ko martxoaren 23ko osoko bilkuran, 2006-2008 Plan Estrategikoa onartu zuen CoANek, hiru helburu hauek lortze aldera: jarduketa-esparru egonkorra ezartzea, xedeak eta jomugak zehaztea (urtekoak zein hiru urtekoak) eta jardueretan lehenetsunak ezartzea.

8.1. 2006-2008 ALDIRAKO HELBURUAK

Diagnostiko batetik abiatuta, eta aintzat hartuta misioa, ikuspegia eta balioak definitzean, ikus-entzuleak identifikatzean eta gure kokagunea finkatzean taxututako ideiak, 9 helburu orokor zehaztu ziren 2006 eta 2008 arteko aldirako. Hala, **helburu orokor eta komunikazio-helburu** hauek ezarri ziren:

- Ikus-entzunezko operadoreek dagokien legedia beteko dutela zaintzea.
- Ikus-entzunezko hedabideen erabiltzaileen eskubideak babestea, eta bereziki adingabeenak, horiek ere ikus-entzunezko hedabideen erabiltzaile eta kontsumitzaile diren neurrian.
- Nafarroako ikus-entzunezko hedabideetan aniztasuna babestea.
- Nafarroako ikus-entzunezkoen sektorea sendotzeko lan egitea, bereziki LTD ezartze aldera.
- Ikus-entzunezko operadoreek autoerregulazio-arauekiko konpromisoa har dezaten eta horiek ezar ditzaten sustatzea.
- Komunikazio-politika bat garatzea CoANen irudi publikoa indartzeko, herritarren zerbitzura dagoen elkarte bitartekari gisa.

Azalpenak argiagoak izan daitezen, indarreko Plan Estrategikoaren barruan ezarritako helburuak hartu dira oinarritzat 2007ko Urteko Txostena antolatzeke, 'Jardueren Memoria' atalari dagokionez.

8.2. 2008ko KUDEAKETA-PLANA

Kudeaketa Planaren abiapuntua Plan Estrategikoa da, eta kudeaketaren estrategia eta CoANen eguneroko jarduna lotzen dituen tresna da; horrela, erakundearen ekintza guztiei koherentzia emateaz gain, lortu beharreko helburu nagusiak modu eraginkorrean zehazten laguntzen du planak. Horrenbestez, 2008ko Kudeaketa Planak eta Plan Estrategikoak helburu berak dituzte eta elkarren osagarriak dira. Bestalde, planaren azken helburua da CoANek eskura dituen baliabideak lortu nahi dituen helburuetara egokitzea, ahalik eta emaitza onenak lortzeko.

2008ko Kudeaketa Planak 18 ekintza-plan taxutu zituen eta 50 jarduera antolatu, 2007an baino 7 gehiago. Nahiz eta azken helburua jardue-
ra guztiak gauzatzea zen, gutxienez antolatutako-
en %85 egiteko konpromisoa hartu genuen (hau
da, gutxienez 43). Jarduera bakoitzerako ardura-
dun bat izendatu zen eta gauzatzeko epea ere
ezarri zen.

Hiru hilean behin, 2008rako prestatutako ekin-
tza-planen eta jardueren betetze-mailari buruzko
jarraipen-balantzeak osatu dira; plan eta jarduera
horiek 2008ko apirilaren 8an, uztailaren 31n eta
urriaren 9an eta 2009ko urtarrilaren 15ean aurkez-
tu ziren. Azken emaitza gisa, programatutako 50
ekintzetatik 46 gauzatu dira; beraz, urte hasieran
taxututako jardueren %92 egin dira.

8.3. 2009-2011 PLAN ESTRATEGIKOA: 2009rako JARDUERAK

Plana arrakastaz ezarri eta garatu denez, CoA-
Nen osoko bilkurak egokitzen jo du bigarren Plan
Estrategiko bat lantzeari 2009-2011 aldirako.

2009ko urtarrilaren 15eko oso bilkuran erabaki
zen **2009-2011 aldirako 5 helburu estrategiko
ezartzea; horiek 12 helburu operatibotan islatu-
ko dira** (helburu estrategiko bakoitzeko 2 edo,
garrantzitsuenen kasuan, 3), eta urtez urte berraz-
tertuko dira.

I. Nafarroako Foru Komunitatean ikus-entzu- nezkoen sektorea bultzatzea

1. Nafarroan LTD behar bezala ezarriko dela begiratzea.
2. Foru Komunitatean sektorearen garapena akulatzea.

II. Ikus-entzunezko hedabideek legedia betetzen dutela zaintzea

3. Programazioko eta publizitateko edukietan erkidegoko araudian xedatutakoa betetzen ote den aztertzea eta, beharrezkoa izanez gero, neurri zuzentzaileak ezartzea.

4. Administrazio Publikoek ikus-entzunezko hedabideekin duten harremana indarreko legedia-
rekin bat datorrela kontrolatzea.

5. Nafarroako Gobernuari proposatzea bere eskumeneko esparruan antzematen diren arazoak konpontzeko ekintzak.

III. Ikus-entzunezko komunikazio-enpresek eskainitako edukietan kalitatearen hobekuntza bultzatzea

6. Eskualdeko operadoreen artean autoerregu-
lazioa eta praktika onak sustatzea.

7. Barne- eta kanpo-aniztasuna bultzatzea.

IV. Nafarroako herritarren eta ikus-entzunezko hedabideen arteko harremana egokia izan dadin zaintzea

8. Ikus-entzunezkoetan alfabetatzeko programak taxutzea.

9. Adingabeak haien garapen fisiko, mental edo moralarentzat kaltegarriak izan litezkeen edukietatik gordetzea.

10. Ikus-entzuleen Defentsarako Bulegoan jasotako erreklamazioak kudeatzea.

V. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluen funtzionamendua sendotzea

11. Kontseiluaren egiteko behar bezala eginen direla bermatzea.

12. Komunikazio-ekintza deigarri eta egokiak gauzatzea, herritarrek erakundea hobeto ezagut dezaten.

CoANen 2006-2008 Plan Estrategikoaren helburuei jarraipena emate hutsean geratu gabe, erakundearen eginkizunean sakondu dugu, CoANek dituen eskumenak, 18/2001 Foru Legearen 26. artikuluan jasoak, baliatuz. Horrenbestez, hiru urterako 9 helburu (5 helburu orokor, eguneroko funtzionamendurako 3 eta komunikazioko bat) eta urtez urte hainbat ekintza-plan –kopurua urtero xedatzen da– ezartzeko eskema hori aldatu egin dugu, eta programa xume eta malguago bat ezarri. Izan ere, helburu sistemikoak ezarrita errazago izanen da urteko jarduerak antolatzea.

Eraginkortasunaren mesedetan, **2009rako jarduerak** batzea erabaki dugu; guztira 40 jarduera dira, eta horien artean nabarmentzekoak dira, besteak beste, honakoak:

- Irrati- eta telebista-operadoreek eskaintzen dituzten edukien jarraipeneko txosten orokorrak egitea, eta baita programazioaren alderdi jakinei buruzko berriazko txostenak ere.

- LTD jendarteratzea, LTDren Nafarroako Foroa hartutako osagarri izanen diren neurriez.

- Telebistetan ageri den gai-, lurralde- eta hizkuntza-aniztasunari buruzko azterketak egitea.

- “Babes bereziko ordutegian emititzen den publizitateari buruzko praktika onen gida” osatzea, eta iragarkiak Dekretu Foralean onartu diren eskakizun berrietara egokitzen direla zaintzea.

- Eskualdeko Autoerregulazio Kodea eguneratzea.

- Nafarroako Ikus-entzunezkoen Foroa martxan jartzea.

- “Nafarroako Ikus-entzunezko Barometroa 2008” jendaurrean aurkeztea.

- Nafarroako produkzio-etxeen sektorea biziberritzeko neurriak hartzea.

- “Familia eta ikus-entzunezko pantailak” kanpainaren 4. ekitaldia aurrera eramatea, guraso eta irakasleei eskaintza berriak eginez.

- Ikus-entzunezko Komunikabideen Titulartasun Erregistroaren Araudia ontzea.

III. ZATIA IKUS-ENTZUNEZKOEN SEKTOREAREN EGOERA

18/2001 Foru Legearen 26.1 h) artikulua xedatzen duen moduan, CoANen eginkizunetako bat da "Nafarroako Parlamentuari urtero aurkeztea txosten bat, aurreko aldi izandako jardura azaldu eta ikus-entzunezkoen sistemaren garapena, arazoak eta zailtasunak ebaluatzeko". Hain zuzen ere, hurrengo bi kapituluetan gai horri helduko diogu.

Urteko txosten honen 4.1 atalean adierazten denez, CoANek 'Nafarroako Ikus-entzunezkoen Barometroa 2008' egin du, Nafarroako Unibertsitate Publikoko "Gizarte-aldaketak" ikerketa-taldearekin batera, ikus-entzunezkoen sektoreak gure erki-degoan bizi duen egoera ezagutzeko asmoz. Jarraian, azterlanaren egitura eta ondorio nagusiak aurkeztuko ditugu. Aurkezpenak, gainera, testuinguruan kokatuko ditu 9. eta 10. kapituluak, non zehatz-mehatz aztertuko baitira Nafarroako Foru Komunitateko irratia eta telebistaren sektoreak. Azterlana gauzatzeko, 1.190 inkesta egin ziren ⁽²⁾.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Barometroa 2008 agiriaren lehen kapituluaren ikerketaren planteamendua azaltzen da, erabilitako metodologia eta teknikak xehatuz. Beraz, azterlan osoa behar bezala irakurri ahal izateko gakoak ematen ditu kapituluak. Jarraian, kapituluaren aztertzen dira gai hauek: Nafarroako etxeetan dagoen ikus-entzunezkoen ekipamendua, eskualdeko hedabideen garrantzia Foru Komunitateko informazioaren eta denbora-pasako programen kontsumoan, telebista, irratia, publizitatea, eta inkestatuek CoANi eta haren lan-ildoei buruz dituzten iritziak. Amaitzeko, nafarren eta hedabideen arteko harremanari buruzko ikuspegi orokorra eskaintzen du 2008ko Barometroak. Horretarako, herritarrek sailkatzeko zenbait tipologia taxutu dira, azterlanetik ateratako datuak gurutzatuta.

2008ko Barometroaren datuak agertzen dute **telebista Nafarroako etxe guztietan dagoela**, eta %96an irratia. Etxeen %29,2k telebista bat dute, %46k bi eta %19k hiru. Bestalde, azterlanak nabarmentzen du inkestatuen %42k prentsa idatzia erabiltzen dutela **Nafarroan gertatzen denaren berri izateko** (%35 eskualdeko prentsaren bidez). %35ek telebista hautatzen dute informatuta egoteko, eta horietatik %39k eskualdeko telebistak. Nafarren %18k irratia hautatzen dute gertatzen denaren berri izateko; horien artean, lautik

batek eskualdeko irratia, eta %6k tokikoak. Informazio-iturri nagusi gisa Internet erabiltzen dutenak oso gutxi dira oraindik, nafarren %5 baino ez, eta batik bat gazteak, landunak eta goi-mailako ikasketak dituztenak dira.

Bestalde, nafarrak **telebista ikustera edota irratia entzutea bultzatzen dituzten arrazoi nagusiak** biltzen ditu azterlanak. Itxura batean, nafar gehienek denbora-pasarako ikusten dute telebista (%55), eta bigarrenik informatuta egoteko (%38); nafarren %5ek konpainia gisa erabiltzen dute, eta %2k ikasteko. Irratia entzuteko arrazoiez galdetuta, berriz, informatuta egoteko eta denbora-pasarako erabiltzen dutela diotenen portzentajeak antzekoak dira (%36 eta %33, hurrenez hurren). Irratia konpainia izateko entzuten dutenen portzentajea %15era igotzen da. Era berean, nabarmentzekoa da inkestatuen %13k adierazi izana irratia inoiz ez dutela entzuten.

Bestalde, 2008ko Barometroan egiaztatzen denez, ikus-entzuleek ia aho batez uste dute **telebistan publizitate gehiegi** dagoela, batez ere estatu mailako telebistetan; izan ere, inkestatuen %97ren ustez publizitate gehiegi dago, eskualdeko telebisten kasuan portzentajea zertxobait jaisten bada ere. Ikus-entzule gehienek iritziak, halaber, publizitateak gizartean zenbait joera sustatzen laguntzen du.

Erregulazio-organoei buruzko ezagutzari dagokionez, nafarren %31k CoAN ezagutzen dute; portzentaje adierazgarria da inondik ere, kontuan hartuz gero, alde batetik, organoa nahiko gaztea dela eta, bestetik, beste autonomia-erkidego batzuetan egindako antzeko azterlanetako datuak (Andaluziako Ikus-entzunezkoen Kontseilua andaluziarren %24,3k ezagutzen dute, eta Kataluniakoa, Espainiako erregulazio-organoen artean zeharrena, erkidego hartako bizilagunen %40k baino gehiagok). **CoANek bete beharreko eginkizunei dagokionez**, herritarren ustez egin behar nagusia da "gurasoak heztea, haiek beren seme-alabei erakuts diezaieten ikus-entzunezko hedabideak behar bezala erabiltzen" (%30), eta "adingabeak babestea" (%25). Pertsona gutxiagok aipatu dute "irradi eta telebistako edukiak kontrolatzea" (%22) eta "ikus-entzuleen zein irradi-entzuleen eskubideak defendatzea" (%17).

2008ko Barometroan aztertzen diren aldagai guztiak aintzat hartuta, **Nafarroako gizartea 6 tipologiatan sailkatu da**, ikus-entzunezko hedabideekin duen harremanaren arabera:

(2) Azterlan osoa CoANen web orrian kontsulta daiteke, helbide honetan:

[<http://www.consejoaudiovisualdenavarra.es/actuaciones/documents/Barometro2008e.pdf>].

• I. eredua: **“Ikus-entzunezko hedabideekiko eszeptikoak, nafar hedabideekiko ikuspegi kritikoa dute”**. Nafarroako gizartearen %15 dira. Telebistako albistegiak ez dituzte sobera estimatzen. Haien ustez, eskualdeko telebistek ez dute beren informazio-eskaria asetzen, eta ezta Nafarroari buruz behar adina informazio eskaintzen ere. Batez ere gauzez ikusten dute telebista. Irratia informatuta egoteko entzuten dute, eta eskualdeko irratiekiko oso kritikoak dira. Nafarroako Foru Komunitateari arreta handiagoa eskainiko dion irrati bat nahi dute.

• II. eredua: **“Ikus-entzunezko hedabideak estimu handitan dauzkate, eta baita nafar hedabideak ere”**. Nafarren %26,4 dira, multzorik ugariena osatuz. Eskualdeko telebistetako albistegiak sobera estimatzen dituzte, eta iritzi diote telebista horiek kalitatea dutela eta programazioan Nafarroari behar besteko arreta eskaintzen diotela. Irratia informatuta egoteko entzuten dute, %78ren ustez eskualdeko irratia ona da eta pozik daude Nafarroari buruz eskaintzen duten informazio-kopuruarekin. Etxean ikus-entzunezkoen ekipamendu gehien dutenak dira.

• III. eredua: **“Telebistazale amorratuak, Nafarroako eskualdeko telebistari buruz bitarteko balorazioa egiten dute”**. Herritarren %15,5 dira.

Irratia gutxi entzuten dute. Nafarroari buruz informatuta egon nahi dutenean, telebistara jotzen dute (%57). Eskualdeko telebistetako albistegiei buruz duten iritzia erdibidean kokatzen da. Haien ustez, eskualdeko telebistek kalitate ona dute eta Nafarroari buruz behar adina informazio eskaintzen dute.

• IV. eredua: **“Telebistan murgilduak, Nafarroako hedabideetan konfiantza handia dute”**. Nafarroako gizartearen %20,8 dira. Telebista arratsean (eguerdian eta arratsaldean) kontsumitu ohi dute, eta medioa Nafarroari buruzko informazioa lortzeko gehien erabiltzen duen bigarren multzoa da (II. ereduaren atzetik). Telebista informatuta egoteko ikusten dute, eta Nafarroako telebistek kalitatea badutela uste duten arren, berariaz Nafarroari buruzko eduki gehiago nahi dituzte.

• V. eredua: **“Ikus-entzunezkoekin harremanik apenas dute”**. Herritarren %2,5 dira; multzorik urri eta zehaztugabeena osatzen dute. Beren ezaugarri komuna da galdetutako auziei buruzko inolako ezagutzarik ez izatea.

• VI. eredua: **“Nafar hedabideak erdeinatzen dituzte”**. Nafarren %19,8 dira. Nafarroako telebista erabat arbuiatzen dute. Telebista denbora-pasarako erabiltzen dute.

9. KAPITULUA

TELEBISTAREN EGOERA NAFARROAN

Kapitulu honetan, telebistaren sektoreak Nafarroan dituen ezaugarriak aurkeztuko dira, eskualdeko telebisten eskaintza aztertuko da eta sektorearen etorkizuneko arau-esparruari buruzko aurreikuspenak aipatuko dira.

9.1. SARRERA

Ikuspegi profesionaletik, telebistaren sektoreak Nafarroan dituen bereizgarri nagusiak **esparru geografiko txikia eta biztanleria murrizta dira**; horrek Nafarroako ikus-entzunezko jardura baldintzatzen du. CoANek sarritan adierazi bezala, esparru horretan lehia handia da eta inbertsio ekonomikoak arriskutsuak, batik bat mundu osoa pairatzen ari den finantza-krisia bizi dugun honetan.

2008an, Nafarroako ikus-entzunezkoen sektorea astindu zuen Prisa taldeak azaroan egindako iragarpenak, Espainia osoko Localiaren etxe guztiak itxiko zituela adieraziz; Nafarroan, neurri horrek Canal 4 Navarra eskualdeko operadoreari eraginen lioke, eta, hain zuzen ere, operadore horrek erkidegoan LTDko bi kanal ustiatzeko emakida zuen. Ikus-entzunezkoen enpresak krisialdi ekonomiko orokorrari eta publizitate-inbertsioaren jaitsierari egotzi zien tokiko telebisten jarduna eteteko erabaki hori hartu beharra.

Nafarroan, telebistaren sektorean, beste autonomia-erkidego batzuetan ez bezala, **operadore pribatuak dira nagusi**, eta ez irrati-telebistako erakunde publiko autonomikoren bat. Egoera horrek gure erkidegoan ikus-entzunezkoen sektore indartsu bat eratzea eragozten du, eta zailagoa egiten du, oraingoz, Nafarroako herritarrei gertuko telebista zabal eta askotariko bat eskaintzeko asmoa bete ahal izatea. Hala ere, gure erkidegoan

daukagun **ikus-entzunezkoen eskaintza** zabaldu egin da azken urteotan, hala kopuruan nola kalitatean; beraz, bidezkoa da aitortzea eskualdeko telebista-operadoreak egiten ari diren lan garrantzitsua.

Kontsumo-ohiturak

Bestalde, ikus-entzunezkoen sektorea azter daiteke erabiltzaileek eskualdeko hedabideen inguruan dituzten usadio eta ohiturei erreparatuz, 'Nafarroako Ikus-entzunezko Barometroa 2008' oinarri harturik. Lehen ere adierazi dugun moduan, inkestaturen %35ek diote telebista baliatzen dutela Nafarroan gertatzen denaren berri izateko; horietatik %39k adierazi dute eskualdeko telebista ikustzen dutela erkidegoari buruzko informazioa jasotzeko.

Eskualdeko operadoreen artean, inkestaturen %60k foru-komunitateko telebistak hobesten dituzte, eta, horien artean, alde handirik ez dago: Canal 4 eta Canal 6 kateek ikus-entzuleen %30na hartzen dute. %6k nahiago dute Popular TV (duen irismen geografiko murrizta baldintzatzen du, neurri batean, kate hori), eta %34k horietako telebista bakar bat ere ez dute hautatzen, hala hartzen ez dituztelako nola gogoko ez dituztelako.

Eskualdeko telebista bat edo bestea hautatzeko orduan, bizilekua da aukera gehien baldintzatzen duen aldagaia. Hala, Canal 4 da Iruñean eta 20.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi diren gogokoena, eta Canal 6, berriz, hegoaldean zein 2.001 eta 10.000 biztanle arteko udalerrietan bizi direnek hobesten dutena.

Ikus-entzuleen kopuruari buruzko datuak

CIES enpresak eskainitako datuen arabera, Nafarroako telebistek lortu zituzten ikus-entzuleen kopuruak, estatu mailako operadoreen eskaintza osoarekin alderatuta, hauek izan ziren:

OPERADOREA	BATEZ BESTEKO IKUSLE-KOPURUA ASTEGUNETAN	BATEZ BESTEKO IKUSLE-KOPURUA LARUNBATETAN	BATEZ BESTEKO IKUSLE-KOPURUA IGANDEETAN	BATEZ BESTEKO IKUSLE-KOPURUA ORO HAR
Canal 4 Navarra	%7	%8,6	%2,9	%6,6
Canal 6 Navarra	%6,3	%6,5	%6,3	%6,2
Popular TV Navarra	%2,6	%1,7	%2,3	%2,4
ESKUALDEKO OPERADOREAK GUZTIRA				%15,2

9.2. TELEBISTAREN SEKTOREAREN AZTERKETA NAFARROAN

9.2.1. TELEBISTA AUTONOMIKOA

Telebista autonomikoa 2004an hasi zen emititzen Nafarroan, **Lurreko Telebista Digitaleko zerbitzuak (zeharkako kudeaketa-erregimenean, telebista komertzialen bidez) emateko lizentziak esleitu zituztenean**. 2004ko apirilean, Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren apirilaren 27ko 122/2004 Foru Arauari jarraiki, bi lizentzia esleitu ziren: bata, Canal 4 Digital Navarra S.A.ri, eta bestea, Editora de Medios Independientes S.A.ri (Canal 6).

2007ko apirilaren 3an, Canal 4 Navarra eta Canal 6 Navarra teknologia digitalaren bidez emititzen hasi ziren; horrenbestez, estatuan emisioak digitalizatzeko ezarritako epeei aurrea hartu zien Nafarroak. Oraingoz, bi operadoreek kanal analogiko bana mantentzen dute, beren lehenengo kanal digitalaren eduki bera emititzen dutenak; sistema analogikoaren eta digitalaren arteko bizikidetzatza horrek 2009. urtearen erdialdera arte iraunen du Nafarroako Erriberan eta Lizarrerri hegoaldean, eta urte amaiera arte Nafarroaren gainerakoan ("itzalaldi analogikoak" deitutakoak dira).

Operadoreak, estaldura eta maiztasunak

Aurrez adierazi den moduan, erkidego mailan lau kanaletan (enpresa bakoitzeko bina) emititzeko baimena duten operadoreak Canal 4 Navarra eta Canal 6 Navarra dira. Bi telebista horiek multiplex⁽³⁾ bat partekatzen dute, 62 zenbakiduna zehazki; estaldura autonomikoko lau kanalak hartzen ditu multiplexak. 62 multiplexari 802 Mhz maiztasuna dagokio.

Programazio-edukiak: programak, Nafarroako lanak eta generoak

Nafarroan emititzen duten eskualdeko operadoreek eskainitako programazio-dukien etengabeko jarraipena egiten du CoANek. Zeregin horren emaitza gisa, atal honetan jaso ditugu bai eskualdeko operadoreen programazio-eskaintzak bai horiek emititzen duten Nafarroako lanen kopurua nahiz generoek eskualdeko telebisten programazioetan duten lekua.

PROGRAMAK

Jarraian, aipatu bi telebistek 2008an emandako programei erreparatuko diegu; zehazki, telebistek beraiek ekoiztitako programak deskribatuko dira labur-labur.

(3) Multiplexa irrati-maiztasuneko kanala da, konpresio-teknikei esker telebistako zenbait programa eta beste zerbitzu digital batzuk har ditzakeena.

CANAL 4 NAVARRA

Bere lehenengo kate digitalean, formatu analogikoko katean emititzen duen programazio bera ematen du Localia-Canal 4 Navarra operadoreak. Canal 4 Navarra Digital operadorearen bigarren kate digitalean, berriz, aurrez lehenengo kanalean emandako Nafarroari buruzko edukiak emititzen


dira, hala berriki emandakoak nola aurreko urteetan emandakoak. 2008. urtean, **Canal 4 Navarrak orotariko programazioa eman zuen, informazioa, gaurkotasuneko gaiak eta entretenimendua lantzeko formatu berriak eskainiz.** Jarraian, operadore horrek berak ekoizten dituen programak paratuko dira:


CANAL 4 NAVARRA	
Informazio-programak	<u>Astelehenetik ostiralera:</u> Canal 4 Noticias, 1. edizioa Canal 4 Noticias, 2. edizioa
Gaurkotasuna	7 días Plató Abierto 24 horas El Mirón Signos Voz y Voto Nos queda la palabra (irailetik) Entérate
Kirolak	<u>Programak:</u> Alerta Roja <u>Emankizunak:</u> Emakumezkoen eskubaloia: EHF Kopako finala eta Txapeldunen Ligako aurreko faseko hiru partida. Pilota: 2. maila (urtarrila-martxo; apirila-ekaina; urria-abendua)
Ekonomia	Innova
Monografikoak	Navarra sin fronteras Las cuatro esquinas Por mérito propio Denominación de origen: Ribera Parece que fue ayer (irailetik abendura) Made in Navarra (apiriletik ekainera)
Sanferminak	Uztailaren 6ko txupinazoaren emankizuna Entzierroa Sanfermanía Sanfermix
Uda	Navarra Splash Fiestas de... Santa Ana jaietako txupinazoaren emankizuna: zuzeneko bi programa hilaren 25 eta 27an, ekitaldi nabarmenenak jasoz
Bereziak	Nafarroaren Egun Berezia Fitur-en (Turismoaren Nazioarteko Azoka) "Festival Punto de vista" gala Zuzeneko programa berezia: Hauteskunde Orokorak Elkartasunaren 2008ko Nafarroako Saria Kulturaren Vianako Printzea Saria Berri-emankizunak Zaragozako Expotik Omenaldia Carlos Chiviteri Komunitatearen Egoerari buruzko Eztabaidaren gaineko programa berezia Nafarroako Urrezko Domina emateko ekitaldia Meza Santua Xabiertik, Nafarroaren Egunean Nafarroaren Eguna Zaragozako Expoan "Ser Navarro" sariak Kultura-ikuskizunak (La Traviata, Hamelingo txirularia, Ali Baba eta 40 lapurrak, Beltxargen aintzira eta Ostalera)

CANAL 6 NAVARRA

2008an, **Canal 6** Navarra kateak berak ekoiztako programen eskaintza askotarikoa izan da generoei dagokienez. Aurreko urteetan bezala, programetan nahiz emankizunetan **gaurkotasuneko gaiei buruzko edukiak izan dira nagusi, kirolari arreta berezia eskaini zaiolarik**. Era

berean, **kateak programak egokitzen ditu, aintzat hartuz bai urteko garai esanguratsuak** (uda, Aste Santua, Gabonak) bai **Nafarroako politikan eta gizartean izaten diren ekitaldi garrantzitsuenak**; azken horiek, hain zuzen, albistegi berezietan lantzen dituzte. Jarraian, operadore horrek berak ekoizten dituen programak paratuko dira:

 CANAL 6 NAVARRA	
Informazio-programak (urte osoan zehar)	Canal 6 Noticias, 1. edizioa (egunero) Canal 6 Noticias, 2. edizioa (egunero) El tiempo (egunero) 30 Minutos (astean behin) Navarra de otra forma (astean behin)
Gaurkotasuna	Cara a Cara (astean behin, urtarrila-ekaina eta iraila-abendua) Navarra en Abierto (astean behin, urtarrila-uztaila) Reportajes C6 (astean behin, urtarrila-ekaina eta iraila-abendua) Encuentros en la Ribera (astean behin, urtarrila-ekaina eta iraila-abendua)
Kirolak	<u>Programak:</u> Área Osasuna (egunero, urtarrila-ekaina) El Remate (astean behin, urtarrila-ekaina) Frontis (astean behin, abendutik) <u>Emankizunak:</u> Eskubaloia (10: 4 Portland, 4 Magna BKT, 2 Erreginaren Kopa) Areto-futbola (4: MRA Área 99) Pilota (11) Atletismo Eguna Murchanten (2008ko maiatzaren 24an)
Denbora-pasa	Objetivo Navarra (astelehenetik ostegunera, urtarrila-uztaila eta iraila-abendua) Ya falta menos (15 egunez, ekaina-uztaila) De fiesta en fiesta (astean behin, uztaila-iraila) Gente Candela (astean behin, urtarrila-uztaila) Con Sexo sentido (astean behin, urtarrila-uztaila)
Ekonomia	Navarra emprende (urtarrila-ekaina eta iraila-abendua)
Sanferminak (uztailaren 6tik 14ra – 6 ordu eta erdi zuzenean egunero)	Emankizunak: sanferminetako txupinazoa, Pobre de mí, San Fermineneko prozesioa Agenda Sanferminera Los fuegos 850 Metros San Fermín, San Fermín (<i>magazinea</i>)
Uda	Abierto por vacaciones (egunero, uztaila-iraila) De Fiesta en Fiesta

	CANAL 6 NAVARRA
<p>Bereziak</p>	<p>Gobernuko presidentearen inbestidura Diputatuen Kongresuan Aurrekontuei buruzko eztabaida Nafarroako Parlamentuko osoko bilkurak (urriak 16, 17 eta 30, azaroak 6, 13 eta 27 eta abenduak 23) Foru Komunitatearen Egoerari buruzko Eztabaida Elkarrizketa Miguel Sanzi Omenaldia Carlos Chiviteri Europako Parlamentuaren 50. urteurrena Turismo Gala Alimentaria'08 Omenaldia Raimundo Lanasi Encuentros 2008 gala Las 10 maravillas de Navarra gala Tuterako Hiria III. Jota Lehiaketa Torun, Kulturaren Europako Hiriburua Vianako Printzea Sariak Nafarroaren Eguna Zaragozako Expoan Tuterako txupinazoa Tuterako Jaiak Faltzesko Jaiak Kirolaren Gala Zinema Jaialdia <u>Huteskundeak:</u> Elkarrizketak: Mariano Raxoi, José Blanco, Santiago Cervera, Juan Moscoso, Uxue Barcos, Isabel Arboniés Eztabaida-saioak: Uxue Barcos – Juan Moscoso, Zapatero – Raxoi, Uxue Barcos – Santiago Cervera, Santiago Cervera – Juan Moscoso Huteskunde-saioak: Debate 4 eta Escrutinio</p> <p><u>Gabonak:</u> Gabonetako gala Errege Kabalgata Gabonetako Loteria Nafarroako Gobernuko presidentearen gabonetako mezua Espainiako erregearen gabonetako mezua</p> <p><u>Aste Santua:</u> 30na minutuko bost programa berezi egunero</p>

NAFARROAKO LANAK

18/2001 Foru Legearen arabera, **urteko emisio-denboraren %10 Nafarroako lanen hedapenerako gorde beharko dute operadoreek**. Jarraian, operadoreek emankizun horiei eman dioten denboraren portzentajeak xehatuko dira. Azterlana egiteko orduan, Nafarroako lan gisa hartu dira Nafarroako emisio guzti-guztiak, albistegiak, kirol-

emankizunak eta lehiaketak barne; hala ere, kanpoan utzi da goizaldeko ordu biak eta seiak arteko tartea.

Nafarroako lanen kopurua neurtzeko, urteko bi hiruhilekotan lortutako lagina aztertu da, zehazki lehenengo eta laugarrengoa. Jarraian doan taulan, Nafarroako lanen emisio-portzentajeak jaso dira, kontrolatu diren hilen datuak ere paratuz.

	CANAL 4 NAVARRA	CANAL 6 NAVARRA
URTARRILA	%12,48	%32,95
OTSAILA	%13,59	%34,66
MARTXOA	%11,97	%28,80
URRIA	%13,20	%45,99
AZAROA	%11,62	%46,04
ABENDUA	%10,87	%39,56
URTEKO BATEZ BESTEKOA	%12,29	%38


Kasu honetan, nabarmentzekoa da Canal 6 Navarrak aise gainditzen duela, Nafarroako lanen emisioari dagokionez, legez ezarriko gutxieneko portzentajea. Aurreko datuek adierazten dute Nafarroako lanek leku handia dutela pantailan, baina azpimarratu beharra dago kopuru horiek lortzen direla hainbat saio errepikatu egiten direlako, emisio-denboraren %77,9 hartzeraino. Hiruhilekoen datuak estrapolatuz gero, 2008an eskualdeko telebistak emisio-denboraren %38 eskaini zien Nafarroako lanei, legez ezarritako gutxieneko %10eko portzentajea aise gaindituz.

GENEROAK


Emisio-denboraren portzentajeak generoen arabera aztertuz gero, Nafarroako operadoreen

programazio-eskaintzaren egitura eta osieran sakondu ahal izanen dugu, operadore bakoitzak bere edukien diseinuan bilatu duen oreka ezagutze aldera; horrez gain, balizko ikus-entzuleen kezka, interes eta eskariei zein neurritan erantzuten dioten jakiteko informazio baliagarria lortuko dugu. Jarraian, **programazio guztia, eta bereziki eskualdeko programazioa, generoen arabera sailkaturik** aurkeztuko da.

Datuetatik ondoriozta daiteke **Canal 6 Navarra** operadoreak informazioa lehenetsi duela, katearen programazio osoaren herena hartzeraino, eta, neurri txikiagoan, fikzioa era programa kulturalak.



Canal 4 Navarra operadorearen programazioan, berriz, fikzioa nabarmentzen da, emandako programa guztien %40 genero horretakoak baitira.



Informazio horren osagarri, CoANek eskualdeko programazioan dagoen **genero-aniztasunaren** jarraipena egin du. Horretarako, 2008ko azken hiruhilekoa hartu genuen lagintzat, eta datuok 2007ko aldi berean lortutakoekin alderatu genituen.

Azterlanerako ateratako datuen arabera, **Canal 6 Navarraren programa lokaletan batik bat informazio-programak** (guztizkoaren %43,1) **eta denbora-pasakoak** (%42,01) ematen dira. Programazioko hirugarren bloke adierazgarriena programa kulturelek osatzen dute, emisioaren %11,3 hartuz.

CANAL 6 NAVARRA	2007KO 4. HIR. BATEZ BESTE	2008KO 4. HIR. BATEZ BESTE
INFORMAZIOA/DIBULGAZIOA	%44	%43,1
DENBORA-PASA	%35,1	%42
KULTURA	%10	%11,3
KIROLAK	%10,1	%2,1
MUSIKA	%0,5	%1,5
ERLIJIOA	%0,3	%0
GUZTIRA	%100	%100

Aurreko urtean bezala, **Canal 4 Navarran nabarmena da eduki informatiboaren presentzia**. Izan ere, genero informatiboaren baitako programen emisio-denboraren %62,1 hartzen dute; hala

ere, zehaztu behar da denbora horren %84,4 gaurkotasuneko gaiak jorratzen dituzten egunero-ko informazio-programei dagokiela.

CANAL 4 NAVARRA	2007KO 4. HIR. BATEZ BESTE	2008KO 4. HIR. BATEZ BESTE
INFORMAZIOA/DIBULGAZIOA	%60	%62,1
KULTURA	%8,1	%15,7
DENBORA-PASA	%19,5	%15,5
KIROLAK	%11,8	%6,3
ERLIJIOA	%0,6	%0,4
GUZTIRA	%100	%100

9.2.2. TOKIKO TELEBISTA

Tokiko Telebista Digitalaren Plan Teknikoak **LTDko bost mugape esleitu dizkio Nafarroako Foru Komunitateari**. Mugape guztietan, Popular TV Navarra izan da esleipenduna horiek zeharkako kudeaketaz ustiatzeko; esleipenak administrazio-lehiaketan bidez eman ziren. Zehazki, 2005eko abuztuaren 8an, Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren 236/2005 Foru Aginduaz, tokiko telebista digitaleko kanal bat eman zitzaion Televisión Popular Navarra S.A.ri Iruñeko mugapean; eta 2007ko otsailaren 5ean, Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren 47/2007 Foru Aginduaz, tokiko telebista digitalaren zerbitzu publikoa kudeatzeko lau administrazio-emakida esleitu zitzaizkion enpresa berari Tuteran, Lizarra, Tafalla eta Zangoza mugapeetan.

Operadoreak, estaldura eta maiztasunak

Popular TV Navarra LTDko bost administrazio-emakidaren esleipenduna da, Nafarroan dauden bost mugapeetan kanal bana ezartzeko: Iruña (38 kanala, 610 Mhz maiztasuna), Tuteran (42 kanala, 642 Mhz maiztasuna), Zangoza (45

kanala, 666 Mhz maiztasuna), Tafalla (31 kanala, 506 Mhz maiztasuna) eta Lizarra (25 kanala, 506 Mhz maiztasuna).

Edukiak: programak, Nafarroako lanak eta generoak

Jarraian, tokiko operadorearen programazio-eskaintza aurkeztuko dugu, eta, horrez gain, Nafarroako lanen kopuruari buruzko datuak nahiz generoen presentzia programazio-eskaintzan.

PROGRAMAK

2008an, **Popular TV Navarra** kateak **askotari-ko programazioa eman zuen bai generoei bai programei dagokienez, baina, batez ere, gaurkotasuneko edukiak landu zituen**, ikuspegi desberdinetatik landu ere; horretarako, iritzi- eta analisi-programak zein albisteen inguruko eztabaida-saioak eskaini zituen. Horrez gain, tokiko operadoreak **zuzeneko emankizun gehiago eskaini zituen**, eta baita gure erkidegoan izandako ekitaldi edo gertakari garrantzitsuenei buruzko programa gehiago ere.

 POPULAR TV NAVARRA	
Informazio-programak	Navarra al Día, 1. edizioa Navarra al Día, 2. edizioa Signos (astean behin)
Gaurkotasuna	Contraste 15 minutos Sala de Prensa
Kirolak	<u>Programak:</u> Tercera Parte Al Rojo Vivo Nafarroako Txirrindularitza Itzuliaren eguneroko laburpena <u>Emankizunak:</u> Futbola:3. maila Nafarroako Foru Komunitatea Criteriuma
Haurrak	Dale al coco
Denbora-pasa	Cristina y Cía De jueves a jueves Sobre Ruedas El Sacapuntas
Erljioa	<u>Programak:</u> Iglesia en Navarra A fondo <u>Emankizunak:</u> Igandeko mezak Ehorzketa Santuaren prozesioa Avilako San Joanen meza Puyko Ama Birjinaren koroatzea
Sanferminak	Txupinazoa Prozesioaren eta Sanferminetako meza ospetsua Vaya Peña! San Fermín 08 Mozos y Toros Toma San Fermín (tokiko eta estatuko edizioak)
Bereziak	Iruñeko Errege Kabalgata Nafarroa Fitur-en Xabierraldia Pamplona&Torum Nafarroa Zaragozako Expoan Nafarroako futbolaren gala Popular TV Navarrako Gabon-kanten III. Lehiaketa "Nafarroako Foru Komunitatea Saria" II. Jota Lehiaketa Nafarroako Urrezko Domina emateko ekitaldia

NAFARROAKO LANAK

Erkidego mailan emititzeko baimena duten operadoreen moduan, tokiko operadoreek ere **urteko emisio-denboraren %10 Nafarroako**

lanetarako gordetzeko legezko obligazioa dute. Hurrengo taulan, jarraipena egin den hilabeteetan Nafarroako lanek izan duten lekua jaso da, ehunekotan:

POPULAR TV NAVARRA	
URTARRILA	%19,77
OTSAILA	%22,64
MARTXOA	%15,18
URRIA	%25,48
AZAROA	%24,97
ABENDUA	%19,22
BATEZ BESTEKOA	%21,20


Hilabete guztietan erraz gainditu da urteko gutxienekoa den %10a, eta Nafarroako lanek urtean zehar izan duten batez besteko presentzia %21,20koa izan da programazio osoarekiko.

tu da, programazio guztia, eta bereziki eskualdeko programazioa, aintzat hartuz.

GENEROAK

Atal honetan, Popular TV Navarra katearen programazioan emisio-denboraren banaketa azter-

Telesalmentako programak alde batera utzita, Popular TVren bereizgarri nagusia fikzioaren, informazioaren, kulturaren eta denbora-pasaren arteko oreka da.



Tokiko programazioa aztertuta, jarraian azalduko diren datuak atera dira, eta horiek aurreko urteko sasoi berean lortutakoekin alderatuko dira. Programazioaren osaera 2007koaren antzekoa da generoen arteko orekari dagokionez; hala ere,

alde txiki batzuk badira genero bakoitzaren emisio-portzentajeetan. Bestalde, **nabarmentzekoak dira informazio-programen nagusitasuna eta kirolari eskaintzen zaion arreta berezia.**

POPULAR TV NAVARRA	2007KO 4. HIR. BATEZ BESTE	2008KO 4. HIR. BATEZ BESTE
INFORMAZIOA/DIBULGAZIOA	%34,7	%40,2
KIROLAK	%22,6	%21,1
KULTURA	%13,5	%14,9
DENBORA-PASA	%23,6	%13,9
ERLIJIOA	%4,4	%8,1
MUSIKA	%1,2	%1,9
GUZTIRA	%100	%100

9.2.3. NAFARROAKO TVE

RTVEren Nafarroako lurralde-ordezkaritza da estatuko telebista-operadore publikoak Nafarroan duen hurbileko erreferentzia. 2006. urtean erakunde publikoaren Saneamendu Plana eta Enplegua Erregulatzeko Espedientea ezarri zirenetik, TVEk Nafarroan duen ikus-entzunezko jarduera murriztuz joan da pixkanaka.

2006ko uztailaren 5etik, TVEren Nafarroako programazioa **egunero eguerdian ematen duten ordu erdiko albistegira** mugatzen da kasik. Programazioa **'Arin Arin'** lau minutu eskaseko saioak osatzen du; azken horretan, zehazki, eguneko titularrak ematen dituzte, euskara hutsean. Udaren amaiera arte, saio hori albistegiaren aurretik ematen zen, baina udazkenaz geroztik ondoren ematen da.

Sanferminetan ere programa berezi bat emititzen da egunero, 07:30etik 09:00ak arte, eta tarte horretan entzierroa ematen dute.

9.3. ARAU-ESPARRU BERRIARI BURUZKO AURREIKUSPENAK

Berritasunak estatu mailan

Estatuko arau-esparruan, **Ikus-Entzunezkoen Lege Orokorra izapidetu eta onartzeaz zegoela**

amaitu zen urtea; aurreko legealdian, aipatu legea geroratu egin zen. Itxura guztien arabera, 2009an zehar prest egonen da sektorea estatu mailan erregulatuko duen araudia; haren bitartez, estatuko araudian txertatuko da Europako Parlamentuak eta Europar Batasunaren Kontseiluak 2007an onartu zuten Ikus-entzunezko Komunikabideen Zerbitzuei buruzko Zuzentaraua.

Lege horretan berean, Ikus-entzunezko Komunikabideen Estatuko Batzordea sortzea planteatzen da; batzorde hori erregulazioko organo independentea izanen da, CoANen estatu mailako homologoa, eta haren misioa izanen da komunikabide publiko zein pribatuen alorrean eskubideak eta askatasunak errespetatuko direla begiratzea. Batzorde hori sortzea, hain zuzen ere, CoANek eta Ikus-entzunezkoen Kontseiluen Espainiako Plataformaren etengabeko eskakizuna izan da.

Berritasunak erkidego mailan

2009an zehar espero da onartzea CoANek 2006an aurkeztutako proposamena, adingabeak telebistatik babesteko mekanismoak erregulatzeari buruzkoa ⁽⁴⁾. Testua Foru Dekretu gisa egin da legezko, eta haren helburua da ikus-entzunezkoen alorrean adingabeei babes osoa eskaintzea, haiek telebistaren, publizitatearen eta sektoreak eskaintzen dituen gainerako zerbitzuen arriskuetatik gordez.

(4) Azkenik, 2009ko urtarrilaren 19an onartu zen 4/2009 Foru Dekretua, adingabeak telebistatik babesteko mekanismoen erabilera erregulatzen duena.

10. KAPITULUA

IRRATIAREN EGOERA NAFARROAN

2008ko Urteko Txostenaren hamargarren kapituluak –azkena– irratigintzak Nafarroan bizi duen egoera aztertzen du, eskualdeko eta tokiko programazio-eskaintzari bereziki erreparatuz.

10.1. SARRERA

Nafarroako irratigintza ospakizun betean izan da 2008. urtean zehar; izan ere, **75 urte bete dira** 1933ko maiatzaren 27an EAJ-6 Radio Navarra (egun SER kateko Radio Pamplona dena) erregularki emititzen hasi zenetik, hedabideak Nafarroako Foru Komunitatean izan duen ibilbidea abiatuz.

Gaur egun, irratia trantsizio-prozesu batean murgildurik dago. Laurogei eta laurogeita hamarreko urteetan heldutasunera iritsi ondoren, merkaturia bidegurutzeko dago, eta, hedabidearen gertuko etorkizunari begira, erabakigarria izanen da jarraitu beharreko bidea argitzea.

Irrati digitalaren bideragarritasunak, **teknologia berrien** erabilera maiztasun-modulazioa nahiz uhin ertaina optimizatzeko, eta online irratia ez-tandak markatuko dute, besteak beste, datozen hamabost urteetako bilakaera.

Sektorearen eraldaketa horren ondorioz, **seinale kontraesankorrak** ageri dira: alde batetik, krisi-zantzuak nabari dira, edo beheraldi-zantzuak bederen, eta, bestetik, medioaren bigarren (edo hirugarren) loraldia iragartzen duten seinaleak. Itxura batean, irratia indartsu dago eta gizartearen gero eta onarpen handiago du, baina, bestalde, sektoreak ahuleziak ageri ditu planteamendu estrategikoan zein enpresa-egituran; beraz, lehen batean esan liteke sektoreak enpresa-krisia bizi duela.

Espaniako irradi-merkatuak aldaketa handiak izan ditu azken 35 urteetan, eta horietako batzuk mehatxu larriak dira bere zilborrari begira bizi den eta behin betiko eraldaketaren bidetik urratsik egitera deliberatzen ez den sektore honen garapenerako.

- Lege eta arau gehiegi dago, eta horrek lege-esparru sakabanatu eta zaharkitua ekarri du, arazoak konpondu baino sortu egiten dituena.

- Irratiak, gero eta gehiago, kate handien esku geratzen ari dira.

- Irrati publikoen finantzaketaren auzia konponetzeke dago.

- Administrazio-baimenik gabe emititzen duten gero eta irradi gehiago daude, eta horrek merkaturia

desitxuratzen du eta konkurrentzia bidegabea eragiten.

- Irrati digitalaren garapena eten egin da.

Dena den, **irradiari aukera berriak zabalduta zaizkio multimedia-produktuen bateratze-prozesuan nahiz digitalizazio-prozesuan**, eta, horrenbestez, erantzun ahal izanen die aurrean dituen erronka nagusietako batzuei: zuzenean eta eskaeraren arabera entzuteko produktu originalak eta bakarrak sortzea, irradi interaktiboa eta entzundaldi pertsonala sustatzea, kanal anitzeko eskaintza bat taxutzea eta irradian parte hartzeko aukera hedatzea, horretarako beste euskarri interaktibo batzuk baliatuz.

Foru Komunitatean, zehazki, irratigintza nahiko osasuntsu dago, krisialdiari baikortasunez aurre egiteko moduan, batik bat eskualdeko irratiaren lan egiten duten profesionalen kalitateagatik, medioak nafar herritarren artean onarpen handia duelako eta azken hamarkadetan produktu gisa finkatzea lortu duelako.

Hori guztia, irratia Nafarroan muga nabarmenak dituen arren: esparru geografiko txikia eta biztanleria murrizta, sektorea biziberrituko duen kate publiko autonomikorik ez egotea (beste autonomia-erkidego batzuetan gertatu den moduan), eta tokiko eskaintzaren eta estatukoaren artean dagoen desoreka; izan ere, tokiko eskaintza txikia da, ordutegi beretan emititzen da eta iragarki gehiegi ditu.

10.2. IRRATIGINTZAREN AZTERKETA NAFARROAN

2008an, gure erkidegoko irratigintzan **udaleko irratia emititzeko bi lizentzia berri** eman dira abuztuan (Corella eta Aezkoa Ibarra).

Era berean, Iruñeko 92.2 FM eta 94.2 FM irradi komertzialen zein Lekunberri eta Martzillako udal-**irratien administrazio-emakida beste hamar urtez berritu da.**

Bestalde, Nafarroako Gobernuak Erakundeetako Harremanetarako eta Eledunaren Departamentuko Komunikaziorako zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko Ebazpen batek bertan behera utzi zuen Información por Ondas, S.A. eta Radio Popular, S.A.ren irradi-instalazioen erabilera Navarra de Radio, S.A.ri lagatzeko erabakia. Horrela amaitutzat jo zen 2083/1999 Foru Aginduak baimendu zuen erabilera-lagapena, eta, 2007tik zerbitzuaren zuzeneko kudeaketa bi enpresa emakidadunen esku zegoenez, egoera hori erregularizatu egin zen.

Azkenik, 2008. urtea amaitu delarik, Zangozako 92.6 FM irratia, aurreko urtean lehen batean MEDIPRESS, S.A.ri esleitu zitzaiona, ez da emititzen hasi. Izan ere, instalazioko proiektu teknikoa aztertzen ari zen Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioko Irratigintza Planifikatu eta Kudeatzeko Zuzendariordetza Nagusia.

Irratiko entzule-kopuruak

2008an zehar Nafarroako irratiek izandako entzule-kopuruari dagokionez, CIESek Nafarroako Komunikabideen Ikus-entzuleei buruzko Azterketan eskainitako datuen arabera, entzuleen guztizko kopuruak gora egin du aurreko urtearekiko:

		GUZTIRA	Astegunak	Larunbatak	Igandeak
2008	Orotariko irratia	212.000	227.000	179.000	165.000
2007		205.000	216.000	179.000	175.000
2008	Gaikako irratia	99.000	113.000	71.000	54.000
2007		85.000	94.000	69.000	57.000

Iturria: CIES, Iritzi eta Merkatu Azterketak. 2008ko datu metatuak.

Bestalde, Foru Komunitatean emititzeko baime-na duen operadore bakoitza kontuan hartuz gero, horien 2008ko entzule-kopuru metatuak hauek izan dira:

IRRATIA*	GUZTIRA	Astegunak	Larunbatak	Igandeak
Radio Pamplona – Los 40	36.000	41.000	39.000	11.000
SER Pamplona	34.000	36.000	29.000	29.000
Onda Cero Pamplona	28.000	29.000	31.000	19.000
COPE Pamplona	28.000	29.000	19.000	29.000
Kiss FM	21.000	26.000	7.000	8.000
Radio 1 Navarra	18.000	21.000	9.000	14.000
Cadena 100	16.000	18.000	10.000	12.000
Europa FM	14.000	15.000	10.000	13.000
SER Tudela	13.000	14.000	11.000	10.000
Radio 5 Navarra	9.000	10.000	5.000	10.000
SER Tafalla	9.000	10.000	8.000	5.000
Onda Cero Tudela	7.000	8.000	9.000	4.000
Punto Radio Tierra Estella	5.000	5.000	5.000	3.000
Onda Melodía Pamplona	5.000	6.000	1.000	2.000
Radio 3 Navarra	4.000	5.000	7.000	1.000
Onda Cero Estella	4.000	5.000	4.000	1.000
Onda Melodía Tudela	4.000	5.000	3.000	0
COPE Peralta	3.000	3.000	0	2.000
98.3 FM	3.000	2.000	3.000	3.000
Onda Cero Elizondo	2.000	2.000	4.000	0
Xorroxin Irratia	1.000	2.000	0	1.000
Onda Cero Alsasua	1.000	1.000	3.000	0
Cadena Dial	1.000	1.000	0	2.000
Radio Clásica	1.000	1.000	0	1.000

* Baime-na duten gainerako operadoreei dagokionez, ez daukagu entzule-kopuruari buruzko daturik
Iturria: CIES, Iritzi eta Merkatu Azterketak. 2008ko datu metatuak.

10.2.1. IRRATIAK: UDALERRIAK ETA MAIZTASU-NAK

Irrati komertzialak

Gaur egun, 20 administrazio-emakida daude zeharkako kudeaketaz Nafarroako Foru Komunitatean **soinuzko maiztasun-modulazioko** uhin metrikoen bidezko irrati-hedapeneko zerbitzua eskaintzeko.

Udalerría eta maiztasuna	Emakidaduna	Izen komertziala	Behin betiko emakida
IRUÑA 87.9	RADIO POPULAR, S.A.	CADENA 100	1982/08/11
IRUÑA 92.2	RADIODIFUSORA NAVARRA, S.A.	RADIO PAMPLONA CADENA 40	1982/08/11
IRUÑA 94.2	UNIPREX, S.A.	ONDA CERO PAMPLONA	1988/09/06
IRUÑA 94.9	INFORMACIÓN POR ONDAS, S.A.	ONDA MELODÍA	1983/07/15
IRUÑA 89.3	RADIO BLANCA, S.A.	KISS FM	1992/12/28
IRUÑA 99.2	UNIÓN IBÉRICA DE RADIO, S.A.	EUROPA FM	1993/11/02
IRUÑA 105.6	MEDIOS DE COMUNICACIÓN 21, S.L.	NET 21 RADIO	2007/05/21
IRUÑA 98.3	NAFARROAKO UNIBERTSITATEA	98.3 RADIO	2007/05/21
TUTERA 90.4	ANTENA 3 DE RADIO, S.A.	SER TUDELA	1987/05/14
TUTERA 103.1	INFORMACIÓN POR ONDAS, S.A.	ONDA MELODÍA	1993/05/03
TUTERA 99.4	RIBERA NAVARRA, S.L.	ONDA CERO TUDELA	2002/11/08
TAFALLA 96.3	AGRUPACIÓN RADIOFÓNICA, S.A.	CADENA DIAL	1995/01/30
TAFALLA 93.9	SOCIEDAD ESPAÑOLA DE RADIODIFUSIÓN, S.A.	SER TAFALLA	1992/01/13
LIZARRA 89.5	INFORMACIÓN POR ONDAS, S.A.	ONDA CERO ESTELLA	1984/01/26
LIZARRA 93.4	RADIO PUBLI, S.A.	PUNTO RADIO TIERRA ESTELLA	2002/11/08
AZKOIEN 104.7	RADIO POPULAR, S.A.	COPE PERALTA	1992/06/22
ALTSASU 87.9	INFORMACIÓN POR ONDAS, S.A.	ONDA CERO ALSASUA	1993/05/03
ELIZONDO 91.3	INFORMACIÓN POR ONDAS, S.A.	ONDA CERO ELIZONDO	1993/05/03
LESAKA 88.0	XORROXIN ELKARTEA	XORROXIN IRRATIA	2003/02/17
ZANGOZA 92.6	MEDIPRESS, S.A.	-	2007/06/06*

* Hasierako emakida, oraindik ez behin betikoa

Uhin ertainari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitatean enpresa hauei esleitu zitzaizen irrati-en zeharkako ustiapena: Radio Popular S.A.ri (EAK-4) eta Radiodifusión Navarra S.A.ri (EAJ-6); horiei esleitutako maiztasunak 1134 Khz eta 1575 Khz dira, hurrenez hurren.

Estatu mailako irrati publikoak

Bestalde, 169/1989 Errege Dekretuaz onartutako Soinu-zuko Irrati Hedapenaren Plan Tekniko Nazionalaren I. eranskinean xedatutakoari jarraiki, maiztasun-modulazioko irrati-hedapeneko zerbitzuaren zuzeneko kudeaketa Espainiako irrati publikoaren (**Radio Nacional de España**) bidez egiten du estatuak; dekretu horrek, hain zuzen, zerbitzua eskaintzeko maiztasunak zehazten ditu. Nafarroari dagokionez, maiztasunak hauek dira:

Irrati-etxea	Radio 1	Radio Clásica	Radio 3	Radio 5
LIZARRA	89.0	101.2	100.5	90.9
GORRAMENDI	88.3	99.0	100.6	95.3
IBANETA	89.6	93.8	103.4	101.9
IZABA	90.3	95.1	103.0	91.8
LAPLANA	102.5			104.3
LEIRE	88.9	101.0	99.6	90.5
LEITZA	102.2	91.9	89.8	88.2
LESAKA	90.6	94.8	97.0	102.2
ELO	106.1	97.5	93.0	95.7
MUSKILDA	102.3	93.4	95.9	97.8
BERRIOBEITI	104.8	97.1	102.3	103.7
ARALAR	96.7	100.0		102.7
TUTERA	100.9	102.2	91.3	88.3
ZUDAIRI	101.7	91.9	100.7	88.3

Era berean, Nafarroan, uhin ertaineko irrati-hedapeneko zerbitzuaren zuzeneko kudeaketa RNEren Radio 1 (855 Khz) eta Radio 5 Todo Noticias irrati-kateen bidez egiten du estatuak.

Udal-irrati publikoak

Apirilaren 8ko 11/1991 Legeak, soinu-zuko hedapeneko udal-irratiak antolatzeari eta kontrolatzeari

buruzkoak, oinarrizko arauak xedatzen ditu **udal-titulartasuneko irratiak** maiztasun-modulazioko uhin metrikoen bidezko soinu-zuko irrati-hedapeneko zerbitzu publikoa eskain dezaten.

Gaur egun, Nafarroako Foru Komunitatean **bederatzi udal-irrati** daude; horiez gain, **beste sei irrati maiztasuna erreserbatua dute**, eta zenbait izapide egin zain daude. Hauek dira:

Udalerría eta maiztasuna	Emakida-erabakia:	Maiztasun-erreserba
ARTAXOA 107.8 Mhz	1996/09/16	
BASABURUA 107.9 Mhz	2002/02/20	
BERRIOZAR 100.8 Mhz	1996/09/16	
CORELLA 107.5 Mhz	2008/08/11	
FONTELLAS 107.2 Mhz	2002/02/25	
LEKUNBERRI 107.1 Mhz	1997/06/16	
MARTZILLA 107.9 Mhz	1997/06/16	
SAN ADRIÁN 107.7 Mhz	1996/09/16	
AEZKOA IBARRA 107.7 Mhz	2008/08/11	
BAZTAN IBARRA		107.3 Mhz
ETXARRI ARANATZ		107.3 Mhz
LEITZA		107.6 Mhz
OLLARAN		107.0 Mhz
IRUÑA		93.7 Mhz
ANTSOAIN		90.7 Mhz

Emandako bederatzi udal-irratietatik, gaur egun seik (Artaxoa, Berriozar, Corella, Martzilla, San Adrián eta Aezkoa Ibarra) ez dute programaziorik emititzen. Hala ere, horietako hiru udalek CoaNi berretsi diote 2009ko urtarriletik aurrera erregulariki emititzen hasteko asmoa dutela; udalok Berriozar, San Adrián eta Aezkoa Ibarra dira. Gainerako hiruek (Artaxoa, Corella eta Martzilla) ez dute interesik edo aukerarik epe laburrean emititzen hasteko, edo berriro ekiteko.

Maiztasuna erreserbatua duten udal-irratieki dagokienez, seitek hiru emititzen ari dira gaur egun, behin betiko administrazio-emakida izan ez

arren. Paradoxikoki, maiztasuna erreserbatua duten udal-irratien %50 (Etxarri Aranatz, Iruña eta Leitza) emititzen ari dira, eta maiztasuna izanik emititzen duten udal-irratiek, berriz, %33 baino ez dira.

10.2.2. PROGRAMAZIO-EDUKIAK

2008an, **Nafarroako Foru Komunitatean maiztasun-modulazioan emititzen duten eta dagokion administrazio-emakida duten irratiek emandako programak, eta zehazki irratiek bereiek ekoizitakoak**, hauek izan dira:

A) IRUÑA

87.9 Iruña [Cadena 100]

Irratiak berak ekoizitako programarik ez da emititzen, publiziterako zenbait deskonexio izan ezik.

89.3 Iruña [Kiss FM]

Irratiak berak ekoizitako programarik ez da emititzen, publiziterako zenbait deskonexio izan ezik.

92.2 Iruña [Radio Pamplona Cadena 40]

Astelehenetik ostiralera:

10:00 – 14:00: **40 Principales Fórmula Pamplona**

Larunbatetan eta igandeetan ez du tokiko programarik emititzen.

94.2 Iruña [Onda Cero Pamplona]

Astelehenetik ostiralera:

07:20 – 07:30: **Informativo regional** (eskualdeko albistegia)

08:20 – 08:30: **Informativo local** (tokiko albistegia)

12:30 – 14:00: **Pamplona en la Onda**

14:20 – 14:30: **Noticias de Navarra**

15:05 – 16:00: **Onda Deportiva**

19:00 – 19:40: **Gente de Navarra** (al.: *La hoja del lunes*; ar.: *Va por ustedes* edo *Sopas con ondas*; az.: *Tertulia*; og.: *El apuntador*; ol.: *Va de cine*)

19:40 – 20:00: **Informativo regional** (eskualdeko albistegia)

Horrez gain, ordu oro 3 minutuko bi deskonexio egiten dira, batik bat iragarkiak edo zerbitzuei buruzko informazioa emateko.

Larunbat eta igandeetan ez du tokiko programarik emititzen.

94.9 Iruña [Onda Melodía Pamplona]

Astelehenetik ostiralera:

19:00 – 21:00: **Rockefor**

Larunbatean edo igandean: **Osasunaren partida**, eta, segidan, **Caliente, Caliente** programa, futbol-partidari buruz.

Publiziterako deskonexioak ere egiten ditu, batez beste 3 minutu emisio-orduko.

98.3 Iruña [98.3 Radio]

Astelehenetik ostiralera:

08:00 - 08:30: **Buenos días**

09:00 - 09:05: **Agenda universitaria**

09:30 - 09:35: **Navarra hoy**

10:00 - 10:05: **Agenda cultural**

12:00 - 12:02: **Angelus**

12:30 - 12:35: **Noticias del campus**

14:30 - 14:35: **Kulturaren Lapikoa**

15:00 - 16:00: **'Plástico 70', 'Confluencias' edo 'En directo'**

16:00 - 16:05: **Agenda cultural**

18:30 - 18:35: **Noticias universitarias**

21:30 - 21:35: **Kulturaren Lapikoa**

22:00 - 23:00: **'Plástico 70', 'Confluencias' edo 'En directo'**

23:00 - 23:05: **Un cuento antes de dormir**

Programazioan zehar, *puntuari edo erdietan*, 5-10 minutuko mikrosaiok txertatu ziren. Horien artean, nabarmentzekoak dira, besteak beste, Un mundo mejor, A ciencia cierta, Área de salud, Tirando de la lengua, La biblioteca, Después de la orla, Programas máster UN, Navarra hacia el 2015, En medio del medio, Europa es Europa, Oldies, Es de justicia, Pensar la fe, Historia de las ideas, Clásicos del cine, Menudo menú, Nuestro Tiempo, eta El Camino de Santiago.

Larunbatetan eta igandeetan:

Irratiak berak ekoiztako mikrosaiok, musika eta Radio Exterior de España (REE) erreportajeak tartekatuta ziren.

99.2 Iruña [Europa FM]

Astelehenetik ostiralera:

12:00 - 14:00: **Europa FM Fórmula Pamplona**

Publizitaterako deskonexioak ere egiten ditu, 3 minutuko bi bloke emisio-ordu bakoitzeko.

105.6 Iruña [Net 21 Radio]

Irratiak ez du berak ekoiztako programaziorik emititzen, eta ezta publizitaterako deskonexiorik ere.

B) TUTERA**90.4 Tuterak [SER Tudela]**

Astelehenetik ostiralera:

07:55 – 08:00: **Informativo local** (tokiko albistegia)

08:20 – 08:30: **Informativo local** (tokiko albistegia)

12:30 – 14:00: **Hoy por hoy Tudela**

14:20 – 14:30: **Hora 14 Tudela**

15:05 – 16:00: **Ser Deportivos** (tokiko albiste-tartearen iraupena 0' eta 55' artekoa izaten da)

20:25 – 20:30: **Hora 20 Tudela**

23:55 – 00:00: **Informativo local** (tokiko albistegia)

Horrez gain, ordu oro 3 eta 5 minutu arteko bi deskonexio egiten dira, batik bat iragarkiak edo zerbitzuei buruzko informazioa emateko.

99.4 Tuterak [Onda Cero Tudela]

Astelehenetik ostiralera:

08:20 – 08:30: **Informativo local** (tokiko albistegia)

12:30 – 13:50: **Tudela en la Onda**

13:50 – 14:00: **Altavoz de la Ribera**

15:05 – 16:00: **Onda Deportiva** (al.: Tuterako edizioa; ar.-ol.: Iruñekoa)

23:55 – 00:00: **Informativo resumen** (laburpeneko albistegia)

Horrez gain, ordu oro 3 eta 5 minutu arteko bi deskonexio egiten dira, batik bat iragarkiak edo zerbitzuei buruzko informazioa emateko.

103.1 Tuterak [Onda Melodía Tudela]

Irratiak berak ekoiztako programarik ez da emititzen, eta Onda Melodía Pamplona katearen programazioa errepikatzen da.

C) LIZARRA**89.5 Lizarra [Onda Cero Estella]**

Astelehenetik ostiralera:

08:20 – 08:30: **Informativo local** (tokiko albistegia)

12:30 – 14:00: **Estella en la Onda**

15:05 – 16:00: **Onda Deportiva** (al.: Lizarrako edizioa; ar.-ol.: Iruñekoa)

Horrez gain, ordu oro 3 eta 5 minutu arteko bi deskonexio egiten dira, batik bat iragarkiak edo zerbitzuei buruzko informazioa emateko.

93.4 Lizarra [Punto Radio Tierra Estella]

Astelehenetik ostiralera:

06:50 – 07:00: **Informativo local** (tokiko albistegia)

07:20 – 07:30: **Informativo local** (tokiko albistegia)

07:50 – 08:00: **Informativo local** (tokiko albistegia)

12:00 – 14:00: **Protagonistas Tierra Estella**

14:30 – 15:00: **Primera plana de los deportes en Estella**

15:00 – 16:00: az.: **Tertulias locales**

Horrez gain, ordu oro 3 minutuko bi deskonexio egiten dira, batik bat iragarkiak edo zerbitzuei buruzko informazioa emateko.

Larunbatetan:

12:00 – 14:00: **Protagonistas de la semana en Tierra Estella**

D) TAFALLA**93.9 Tafalla [SER Tafalla]**

Astelehenetik ostiralera:

07:55 – 08:00: **Informativo local** (tokiko albistegia)

08:20 – 08:30: **Informativo local** (tokiko albistegia)

12:30 – 14:00: **Hoy por hoy Tafalla**

14:20 – 14:30: **Hora 14 Tafalla**

23:55 – 00:00: **Informativo local** (tokiko albistegia)

Horrez gain, ordu oro 3 eta 5 minutu arteko bi deskonexio egiten dira, batik bat iragarkiak, zerbitzuei buruzko informazioa edo musika emateko.

96.3 Tafalla [Cadena Dial]

Irratiak berak ekoiztako programarik ez da emititzen, publizitaterako 3 eta 5 minutu arteko deskonexioak izan ezik.

E) BESTE HERRI BATZUK**87.8 Altsasu [Onda Cero Alsasua]**

Irratiak berak ekoiztutako programarik ez da emititzen, eta Onda Cero Pamplona katearen programazioa errepikatzen da.

91.3 Elizondo [Onda Cero Elizondo]

Irratiak berak ekoiztutako programarik ez da emititzen, eta Onda Cero Pamplona katearen programazioa errepikatzen da.

88.0 Lesaka [Xorroxin Irratia]

07:30 – 09:30: **Bidekari Saioa**

09:30 – 10:00: **Ur eta lur**

10:00 – 12:00: **Balekabale**

12:00 – 12:40: **Joko Trostan**

12:40 – 14:00: **Heltzekari**

14:00 – 15:00: **Onin Bazterretik**

20:00 - 22:00: **Karakola Segi Hola**

Gainerako programazioa **musika** da.

Larunbatetan: 10:00 – 14:00: **Bide Eginez**; gainerako orduetan eta igandeetan, musika.

Emisio osoa irratiaren berean ekoizia eta tokikoa da, eta dena euskaraz egiten da.

104.7 Azkoien [COPE Peralta]

Asteleheneretik ostiralera:

12:00 – 13:30: **La mañana en Peralta**

13:35 – 14:00: **Navarra a la Palestra** (tokiko informazioa ematen da)

14:40 – 15:00: **Los deportes a la Palestra** (tokiko edizioa)

Horrez gain, ordu oro 3 eta 5 minutu arteko bi deskonexio egiten dira, batik bat iragarkiak, zerbitzuei buruzko informazioa edo musika emateko.

10.2.3. ESKUALDEKO IRRATIETAKO INFORMAZIO-ZERBITZU NAGUSIEI BURUZKO AZTERKETA

CoANen 2008ko Kudeaketa Planak "irradi-operadoreen albistegiaren kalitateari buruzko azterketa" bat egitea xedatu zuen. Horretarako, egokia iritzi zitzaion, lehen urrats gisa, **Foru Komunitateko eskualdeko irratietako informazio-zerbitzu nagusiak ebaluatzeari**. Horrenbestez, SER Navarra, Onda Cero Navarra eta COPE Navarra kateek eguerdian eta arratsaldean emititutako albistegiak aztertzea erabaki zen.

Hautaketa horren bidez, zuzenean ezagutu nahi genuen nolakoak diren baimena duten eta beraiek ekoiztutako irradi-informazioa emititzen duten 11 operadoreetatik 8tan landu eta emandako albistegi nagusiak. Horretarako, urriaren 15eko eguna hautatu genuen, zehazki eguerdiko eta arratsaldeko informazio-zerbitzuak, horiek baitira luzeenak eta horietan jartzen baitute irradi-operadoreek produkzio-ahalegin handiena.

Albistegi nagusien ekoizpenari eta emisioari buruzko azterketa konparatiboa egitea erabaki genuen, hainbat alderdiri erreparatuz: albistegiaren iraupena, albiste-kopurua, publizitatearen txertaketa, ahots-kopurua, adierazpenen txertaketa eta soinuak elementuen erabilera, hala nola sintoniak, xafladak eta kolpeak.

10.3. ARAU-ESPARRU BERRIARI BURUZKO AURREIKUSPENAK

Berritasunak estatu eta nazioarte mailan

Irrati digitalaren mailakako ezarpenak Espainiako irratigintza baldintzatuko du epe ertainera; ezarpen-prozesua uste baino mantsoago doa. Teknologia digitalak funtsezko aldaketa ekarriko du irratigintzara, bai soinuaren kalitateari dagokionez, bai zerbitzu gehigarriak eskaintzeko aukerari dagokionez. Ikuspegi teknikitik, irradi digitalak maiztasunen kudeaketa erraztuko du, kudeaketa eraginkorragoa izan dadin ahalbidetuko du eta interferentziarik gabeko seinalea emanen du. Alor horretan, oinarritzko araua da soinuak lurreko irradi digitalaren eta lurreko telebista digitalaren araubidea ezarri zuen 66/1997 Legearen 44. xedapen gehigarria.

Teknologia digitalaren bidez irradi-zerbitzuak kudeatzeko emakidetakarako, lege-esparrua arau hauek osatzen dute: uztailaren 23ko 1287/1999 Errege Dekretuak, soinuak lurreko irradi digitalaren Plan Tekniko Nazionala onartu zuena, eta 1999ko uztailaren 23ko Aginduak, araudi teknikoa onartu zuena. Komunikazioen Idazkaritza Nagusiaren 2000ko martxoaren 10eko Ebazpenaz, Ministro Kontseiluaren Erabakia jakinarazi zen; aipatu

Erabakiaren bidez, **10 emakida esleitu ziren soinuak lurreko irradi digitalaren zerbitzu publikoak zeharka kudeatzeko**. 2000ko abenduaren 13ko Ebazpenaz, Ministro Kontseiluaren Erabakia jakinarazi zen; azken horren bidez, zerbitzua zeharka kudeatzeko beste bi emakida esleitu ziren.

Lehen batean, **estatu zein erkidego mailako edo, horrelakorik balego, tokiko estaldura duen maiztasun-bloke bakoitzean sei programa sartuko dira**, eguneko hogeita lau ordutan ustia daitezkeenak.

Industria Ministerioaren ekainaren 23ko 776/2006 Dekretuaz, 1287/1999 Errege Dekretua aldatu zuena, Telekomunikazioetako eta Informazioaren Gizarterako estatu-idazkariari eskumena eman zitzaion soinuak lurreko irradi digitalaren Plan Tekniko Nazionalako maiztasun-blokeak aldatzeko, interesa duten erakundeek (publiko zein pribatuek) aurrez hala eskatzen badute. Horren xedea litzateke zerbitzu horri atxikitako **maiztasunen kudeaketa erraztea**, lurreko irradi digitalari bultzada bat emate aldera; horretarako, emakidatuen kokapena aldatzea baimenduko da hala maiztasun-blokeetan nola zerbitzuaren euskarri diren sareetan. Era berean, baimendutako entitateek bete beharreko obligazio bat, hain zuzen ere biztanleen %80ra heltzearena, 2011ko abenduaren 31 arte luzatu zen; estaldura hedatzeko prozesuari epe errealistak ezarrita, bateragarri egin nahi dira arau-esparrua eta lurreko irradi digitalaren sektoreak bizi duen egoera ekonomiko eta komertziala.

Estatuan, nabarmentzekoa da irradi digitalak Katalunian egin duen aurrerabidea; izan ere, soinuak lurreko irradi digitalaren zerbitzu publikoko lizentziak emateko bi lehiaketa publiko egin dira jada. 2003. urtean, Kataluniako Generalitatek erkidego mailako lurreko irradi digitaleko 12 lizentzia eman zituen, eta eskualdeko zein eskualdez gaindikoa lurreko irradi digitaleko 48 lizentzia. Dena den, erkidego horretan ere kostata sartzen ari da teknologia digitala.

Bestalde, maiztasun-modulazioa digitalizatzeko DAB (Digital Audio Broadcasting) teknologia baliatu behar den moduan, **uhin ertain, luze eta motzen trantsizio digitala** DRM (Digital Radio Mondiale) sistemaz bideratzen da. Irrati digitaleko seinale bat gaur egun uhin ertainak erabiltzen dituen maiztasun-bandetan hedatzea ahalbidetzen du DRM sistemak, eta European nahiz estatu mailan harekin saiakuntzak egiten ari dira; hain zuzen ere, 2007ko maiatza eta urria artean, SER katearekin proba pilotu handi bat egin zen Euskal Autonomia Erkidegoan. DRM sistemaz lortzen da uhin ertaina FMren kalitate beraz entzutea, eta, horrez gain,

emititzen ari den programara datu osagarriak transmititu ahal izatea. Zentzu horretan, azpimarratzekoa da Radio Nacional de España, SER eta COPE kateek sinatutako akordioa, 'Impulsa Onda Media Digital' ('Bultza Uhin Ertain Digitala') izenekoak. Akordio horren bidez, Espainia osoan uhin ertaineko emisioen hedapena eta harrera indartzeko konpromisoa hartu dute kateok.

Berritasunak erkidego mailan

Foru Komunitateko irratigintzaren arau-esparruan edozein berrikuntza egite aldera, ezinbestekoa litzateke **araudi bat taxutzea, Foru Komunitatean administrazio-emakidaren bidez kudeatutako soinuzko maiztasun-modulazioko irradi-hedapenari buruzko araubide orokorra ezarriko duena, emakida bera esleitzeko prozesua nahiz emakidadunak zerbitzua eskaintzeko baldintzak arautuz**. Era horretako arauak dagoeneko ezarri dira zenbait autonomia-erkidegotan; esaterako, Madrilgo Autonomia Erkidegoko 57/1997 Dekretua, Andaluziako 174/2002 Dekretua eta Errioxako 44/1997 Dekretua.

Horrenbestez, komenigarria litzateke, 964/2006 Errege Dekretuak onartutako Plan Tekniko Nazionalan jasotako maiztasun berriak etorkizunean esleitze aldera, Foru Gobernuak beste dekretu bat egitea, aurrekoek (1990 eta 1997koek) baino irismen handiagoa izanen duena.

Beti ere estatuko oinarrizko legedia eta 18/2001 Foru Legea errespetatuz, etorkizuneko foru-dekretuak arautu beharko lituzke, alde batetik, Foru Komunitatearen eskutik emakidak esleitzeko prozesua, eta, bestetik, emakidadunak zerbitzua eskaintzeko baldintzak. Horrenbestez, araudiak

emakidadunaren ustiapenari dagozkion gai guztiak arautu beharko ditu, hainbat gai berariaz zehaztuz, besteak beste honakoak: titulartasun-aldaketa, erabilera-lagapena, hirugarrenekin kontratuak eta akordioak egiteko erregimena horiek zerbitzua ematean eragina dutenean, eta emakidak berritzeko erregimena. Kontuan izan behar da 1990eko eta 1997ko Dekretuak atera zirenean CoAN artean sortzeke zegoela; horrenbestez, erregulazio-araudi berriak kontuan hartu beharko ditu, derrigorrean, CoANen ezaugarriak eta kontseilu horrek, 18/2001 Foru Legeak esleitu dizkion funtzioen eta eskumenen arabera, soinuzko maiztasun-modulazioko uhin metrikoren bidezko irraditaduneko zerbitzuaren erregimen juridikoaren baitan duen eginkizuna.

18/2001 Foru Legearen 26.1.a) artikulua arabera, CoANi dagokio ikus-entzunezko sistemaren legediarekin eta araudiekin zerikusia duten gaietan Nafarroako Gobernuari eta Parlamentuari aholku ematea, eta, horretarako, txostenak egiten ditu, bai bere ekimenez, bai horretarako eskumena duten organoek hala eskatuta. Horrenbestez, CoANek txosten bat prestatu du, maiztasun-modulazioko uhin metrikoren bidez soinuzko irraditaduneko etxerri emakidak esleitzeko prozesua etorkizunean erregulatuz gero, kontuan hartu beharko liratekeen hainbat alderdiri buruz proposamenak eta iradokizunak eginez. Era berean, zenbait urtez lanean jardun ondoren CoANek pila-tu duen esperientzia oinarri harturik, gure iritziz garrantzitsuenak diren auziei buruz zenbait kontsiderazio egin ditugu, etorkizunean araudia prestatzea, idaztea eta onartzea egokituko zaien pertsonentzat baliagarriak izanen direlakoan.